

ROSA ARBURUA GOIENETXE

# *Wolframa*

## *Diktadoreen arteko kontrabandoa*



Rosa Arburua Goienetxe, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean da irakasle.

Pedagogi arloko gaietan hainbat argitalpen plazaratuak ditu.

Azken bi hamarkadetan Baztan-Bidasoa inguruko muga eta bertako biztanleen bizimodua ikertzen eta idazten aritu da: 1940-60. *Bortzirietako gaztiak* (2005), *Gau lana. Kontrabandoa Bidasoa aldean* (2011), *Mugaz gaineko portugaldarren pasa* (2014) frantsesera eta portugalesera itzulia 2017an.

Bere azken ikerlanaren liburua eskuartean daukazuna da: *Wolframa. Diktadoreen arteko kontrabandoa — El wolframio. Contrabando entre dictadores* (2021).




LABORATORIUM  
BERGARA



WOLFRAMA  
DIKTADOREEN ARTEKO KONTRABANDOA

ROSA ARBURUA GOIENETXE

# WOLFRAMA DIKTADOREEN ARTEKO KONTRABANDOA



*Misak Diktadorearen Omenez*



LABORATORIUM  
BERGARA

DONOSTIA 2021



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

Liburu hau inprimatzeko erabilitako papera **paper ekologiko** gisa kalifikatuta dago eta modu iraunkorrean kudeatutako basoetatik dator

Nuevos Extractos Gipuzkoa  
Ale berezia

Argitaratzaile: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte  
Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País  
Gipuzkoako Saila / Comisión de Gipuzkoa  
Laboratorium Chemicum Bergara

ISBN: 978-84-09-28260-9  
Legezko Gordailua: D 00219 - 2021

Inprimatzaile: FASPRINT-IGARA - Donostia

*Nire bihotzeko loreei, maitasun osoz.  
2021eko Udaberrian.*



# AURKIBIDEA

AITZINETIK ZENBAIT OHAR .....	9
ELHUYAR ANAIEN INGURUAN .....	11
WOLFRAMAREN GARRANTZIAZ BIGARREN MUNDU GUDAN .....	21
Carceller VS Gómez-Jordana .....	23
WOLFRAM, MEATEGIAK ETA KONTRABANDOA .....	39
Galizia .....	41
Carreiras .....	41
Carballo .....	41
Ponteceso - Balares .....	43
Galizia - Euskal Herriko portuak. Kontrabandoa .....	45
Portugal .....	48
Castro Laboreiro .....	50
Panasqueira .....	51
Bierzo .....	51
Peña do Seo .....	51
Salamanca - Cáceres .....	55
Navasfrías .....	55
Barruecopardo .....	61
WOLFRAM, KONTRABANDOA EUSKAL HERRIAN ZEHAR .....	65
SOFINDUS ETA MARION, LEGEZ KANPOKO LANETAN .....	69
Wolfram Biltegiak Euskal Herrian. Kontrabandoa egiten zelako susmoak. ....	72
KAMIOIZ ETA GABARRAZ BIDASOA ZEHARKATUZ .....	83
BEHOBIA-PAUSUKO MUGA ZEHARKATU NAHIAN .....	93
Behobian gertatutakoaren ondorioak. Legez kanpo egindako ekintzen dikotomia .....	97
BIBLIOGRAFIA .....	113





## AITZINETIK ZENBAIT OHAR

Ikerketa-lan hau egiteko, idatzizko dokumentazioa kontsultatu eta aztertu dut, eta ahozko lekukotasunez ere baliatu naiz.

Azken horiek ez dira ugari izan; besteak beste, protagonistak adinean aurreratuak direlako.

Batzuetan haien ondorengoek eman dizkirate ebidentzia interesgarriak. Badakit beste pertsona batzuek ere badutela kontrabando honi buruz zer kontatua eta horrek gaiari buruzko are datu gehiago azaleratzen lagunduko lukeela. Pertsona horiengana ere jo dut, baina ez zaie egokia iruditu parte hartzea. Aztergai dugun gaia, izan ere, zail samarra da, tartean besteren artean aliatuak, naziak eta frankistak egonik gaur egun oraindik ere kontuz landu beharrekoa baita.

Eskerrak eman nahi dizkiet gai honi buruz nirekin hitz egin nahi izan dutenei eta haiekin harremanetan jarri nautenei.

Espero dut beren lekukotza konta ziezadatela eskatu arren datu gehiago azaleratzea egokia iruditu ez zitzaienek aurkituko dituztela lan honetan berenak izan zitezkeen hitzak.

Erregimen frankistako goi-karguek wolframaren kontrabandoa babestu egin zuten eta horregatik, ez zen izan garai bereko beste kontrabando mota batzuk bezain jazarria.

Wolframa ezin zitzaionez gobernu naziarri legez saldu, isil-gordeka ematen zitzaion; hala utzi zuten agerian aliatuek egindako salaketek. Kontrabando horretarako erabiltzen zuten sarea erregimen frankistako funtzionario eta buruzagiek antolatua zen.

Idatzizko dokumentazioari dagokionez, hainbat artxibo arakatu ditut, gaiari buruzko erreferentzia bila.

Hasiera latza izan zen, oso zaila, eta behin baino gehiagotan hartu ninduen etsipenak, harik eta Madrilgo Atzerri Ministerioaren artxiboan

R2245/9 paper sorta aurkitu nuen arte. Dokumentazio horretan oinarrituta egin ahal izan dut ikerketaren zati funtsezkoena.

Wolframaren kontrabandoaren gaia sakonago aztertu nahi duen edonork libre du paper sorta horretarako irispidea; lan honetan emandako informazioa egiaztatu nahi duen orok ere bai, jakina.

Nire eskerrik beroenak Madrilgo Atzerri Ministerioaren artxiboko langileei, nirekin hain adeitsuak izateagatik eta emandako laguntza ordainezinagatik.

## ELHUYAR ANAIEN INGURUAN

Euskaldunentzat Elhuyar abizena zientziarekin lotuta dago, baina gehiengo batentzat arrotza izango da agian, nahiz eta badauden horren inguruko ikerlanak.

Juan Jose, Fausto, Fermin eta Maria Lorenza Elhuyar anai-arreben aitak Juan zuen izena. 1725. urtean jaio zen, Lapurdiko Hazparne herrian, Elizaldea etxean. Ama, berriz, Ursula Lubize zen, Donibane Lohizunekoa, Gratxenenea etxeko alaba.

Juan Elhuyar sendagilea zen, baina ez nolana hiko sendagilea, zirujau latinoak baizik. Horiek, latinoak, sendagile arruntak baino espezializatua-



Fausto eta Juan Jose

goak ziren: medikuntza ikasketa sakonagoak egiteaz gain, latina ere bazekiten.

1746. urtean ezkondu ondoren, Juan eta Ursula Bilbora joan ziren, Juanek sendagile lanetan aritzeko aukera lortu baitzuen han.

Bilbon zazpi urtez bizi eta gero, Logroñora aldatu ziren. Bertan sortuko ziren hiru seme-alabak.

Hasierako urteetan, tirabirak bizi izan zituzten Elizarekin. Esate baterako, elhuyartarrek Logroñon zuten etxebizitza Inkisizioak erreklamatu zuen, Francisco Martínez de la Mata ministroarentzat nahi zuelako. Juanek erabaki zuen bere etxea ez ziola ministro hari utziko, eta gogor egin zuen haren kontra. Zigor gisa, eskumikatu egin zuten. Bazituen Juanek, hala ere, bere alde egin zuten adiskideak. Gorabehera luzeen ondoren, bere etxea eustea lortu zuen.

Gertaera horien ondoren, 1758. urtean, alargun geratu zen Juan. Hirugarren umea (alaba) jaiotzerakoan izandako osasun arazoan ondorioz zendu zen Ursula.

Horri guztiari egoera ekonomiko latza gehitu zitzaion.

Sendagile ospetsua omen zen Juan. Hala, Logroñoko udaletxean dagoen dokumentu batek “*cirujano de acreditada habilidad*” gisa deskribatzen du. Eta badakigu Errioxa eta Euskal Herriko hainbat herritan ebakuntza zailak egin behar zirenean Juan Elhuyarri deitzen ziotela. Besteak beste, begietako kataratak eta *morbis gallicus* gaixotasun sexuala sendatzen zituela diote dokumentuek.

Sendagile ospetsua zen, beraz, baina dirurik ez zuen. Diru faltan izaten omen zen, eta egoera hobetu nahian, kimika ezagutzez baliaturik, pattarra lortzeko modu berri bat asmatu zuen Juanek. Prozeduran lortutako alkohola ezin zen ardo modura saldu. Juanek, bere asmaketa martxan jarrita, ardo gisa kaleratzerik ez zegoena pattar bihurturik saltzen zuen. Dokumentu bati esker, badakigu 1771. urtean negozioa ongi zihola. Bertan, Logroñon eta beste hainbat herritan “*...muchas fábricas de su cuenta y en ellas veintidós calderas corrientes*” zituela ageri da.

Juanek Logroñoko Udalarari urteko memoria eskeintzen dionean, bere buruaz harro dagoela azaltzen du:

*“...el primer fomento de el ramo de los aguardientes en esta ciudad y en toda la Rioja y en parte del Reino de Navarra se me debe a mí como primer motor en poner en su perfección los aguardientes y en competencia contra los de Francia; .... por cuya industria he producido en benefi-*

*cio de los cosecheros de esta ciudad, Viana, Los Arcos, Lodosa, ....., Villarroya, Murillo, Navarrete, Fuenmayor, La Puebla, Elciego, en La Rinconada, Lardero, Entrena y otros, los que han despachado sus cosechas del todo por medio de mi industria y calderas.... introduciendo comercio de dicho género en San Sebastián, Bilbao, Santander, El Ferrol, Principado de Asturias, y en la ciudad de Vitoria, Vergara y otros pueblos de las provincias, Alava, provincia de Guipúzcoa y Señorío de Vizcaya”.*

Arazo ekonomikoak gaindituta, eta garai horretan bere lehenengo emaztearen herri bereko Dominique Elizagarayekin ezkondu ondoren (1769), bihotza alai zuela dirudi. Aurreko hodei beltzen arrastorik ez dago elhuyartarren inguruan.

Dena den, nahiz eta une horietan diru ugari irabazi, asko gastatzen zuen semeen hezkuntzan. Bi semeek Parisen eta atzerriko beste hainbat lurraldetan ikasi zuten, eta horretarako, dirutza behar zen. Behar adina ez zuenean, zorpetu egiten omen zen Juan. Bere lehenengo testamentuan honela idatzi zuen:

*“...puesto en la disposición y estado en que se hallan [semeak] y es notorio, a costa y solicitud mia y de muchos reales”.*

Seme bakoitzeko 15.000 erreal gastatu omen zituen.

Beraz, aitaren diruari esker, bai Juan Josek eta bai Faustok goi mailako ikasketak eskuratu zituzten. Ikasketa horiei etxean bizitako giro kultural eta zientifikoa erantsi beharko genieke, anaia horien abiapuntu ikertzailea ulertzeko. Zoritxarrez, haien arrebaren ikasketez ez dut ezer aurkitu; bai, ordea, norekin ezkondata zegoen: Angel Diazekin, hain zuen. Senarraren inguruko gorabeheren berri ere badugu.

Juanek sendagile izaten jarraitu zuen. Hala, San Millán markesaren gaixotasuna tratatzeko, 1775. urtean Azpeitira deitu zuten.

Diotenez, Juanek lortu zuen lehen aldiz zesarea bat egin eta emakumea bizirik ateratzea. Aurretik hainbat emakumeri egin izan zitzaizkion zesareak, baina guztietan, nahiz eta batzuetan umea bizirik jaio, amak ez zuen horrelako zorterik izan.

Ilustrazioko gizona zen Juan. Ikuspegi irekia eta ideia aurrerakoiak zituen. Zientziaren inguruan lan egin behar zela eta Elizaren boterea murriztu beharra zegoela pentsatzen zuen. Berdintsu pentsatzen zuten kideen batera, 1777. urtean Euskalerrriaren Elkarteko partaide izan zen. Bi semeek emango zioten jarraipena aitak hasitako partaidetzari.

Erdaraz Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País edo La Bascongada izenaz ezagaturiko Elkarteak, Caballeritos de Azkoitia edo Triunvirato de Azkoitia deituriko taldean izan zuen abiapuntu. Elkartearen bultzatzaileak hiru pertsona izan zirelako eman zitzaion azken izen hori. Hain zuzen ere, hiru hauek izan ziren: Xabier Maria de Munibe, Peñafloridako kondea; Joaquín de Egia, Narroseko markesa; eta Manuel Ignacio de Altuna.

Peñafloridak solasaldiak antolatzen zituen Azkoitiko Insausti jauregian, eta bertan European zehar bidaiatutako pertsonak elkartzen zirenez, hizketagai izaten zituzten lurralde desberdinetako esperientziak, politika liberalak, kultura gaiak... Ilustrazioko ideiak.

1763. urtean Plan de Sociedad Económica o Academia de Agricultura, Ciencias y Artes útiles y Comercio zelakoa aurkeztu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Handik urtebetera, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País izenarekin Azkoitian gauzatu, eta 1765ean Bergaran lehen Batzar Orokorra egin zuten.



Besteak beste Forondak, Olabidek eta Samaniegok parte hartu zuten, Frantziako Ilustrazioko ideiekin bat zetozen garaiako intelektualek.

XX. mendearen bukaeran Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen izena jarri zitzaion.

Bergarako Seminarioa ere sortu zuten. Han, lehenagotik irakasten ziren gaiei beste batzuk gehitu zizkieten. Hala nola geografia, matematika, atzerriko hizkuntzak, zientzia esperimentalak. Seminarioa sortzeaz gain, Laboratorio Chemicum ere martxan jarri zuten eta Elhuyar anaien, parte hartze zuzena izango zuten han.

Haien aita Juanek erreal asko “*muchos reales*” gastatzeari esker, bi Elhuyar anaiek Parisen ikasi zuten, baita Freiberg-en (Alemania) ere. Barneratutako ezagutzak, besteak beste, kimika, fisika eta mineralen arlokoak izan ziren. Europa Erdialdeko hainbat meategi eta fundizio ezagutu-ta, ustiaketa-aren prozeduraz ongi aski jabetu ziren.

Vienan, Juan Josek eta Faustok bide desberdinak jorratzea erabaki zuten. Lehenengoa Suediara joan zen, eta bestea, berriz, Bergarara itzuli zen. Faustok Laboratorium Chemicum-en lan eginen zuen irakasle moduan, katedra eskuraturik. Aldi berean ikerkuntzan eta lanen argitalpean aritu zen.

Juan Josek goi mailako kimika ikasketak egin zituen Uppsalan.

Espainiaren eta Ingalaterraren arteko guda garaia zen. Espainiako Itsas Armadak une ahulak bizi zituen. Erabiltzen zituzten guda tresnak teknikoki atzeratuak zirenez, Espainiako Koroak, egoera horri irtenbidea emateko asmoz, armetan teknikoki aurrerratuago zeuden lurraldeetara espioiak bidaltzeko erabakia hartu zuen.

Espainiako gobernuak eta Bascongadak akordio bat adostu zuten: alde batetik, Eskoziako Carrongo kanoi guden fabrikari erabiltzen zuten teknika zelatatu nahi zuen Koroak; eta bestetik, Bascongadak, Koroaren helburu hori lortzen baldin bazuen, dirua jasoko zuen, Real Escuela Metalúrgica de Bergara eta Laboratorium Chemicum sortu eta aurrera egiteko.

Espioitza lan korapilatsuak betetzeko, estatu idazkari nagusia zen Pedro Gonzalez de Castejonek pertsona berezi batzuk behar zituela idatzi zuen:

*“... uno o dos hombres áviles i capaces para... irse de España, pudiesen introducirse como jornaleros o de otro modo en las fábricas de Artillería de Carron (Escocia)”.*

Pertsona horien zeregina oso berezia izango zenez, ministroaren esanetan bi bizkaitar behar ziren:

*“... porque son hombres capaces de todo... por su carácter silencioso, su habilidad, su genio laborioso...”.*

Tira, bizkaitarrak ez, baina bi euskaldun aukeratu zituzten: Juan Jose Elhuyar eta Jose Martínez nafarra. Ziur nago gaitasun handikoak, isilak, abilak eta langileak zirela!

Haiek Suedian, Alemanian eta Eskoziako Carrongo arma fabriketan erabiltzen zen teknologiaz jabetu behar zuten, gero ezagutza hura Espai-

niara eramateko. Horren truke, Karlos III.a erregeak agindurik, Juan Josek “*veinte reales de vellón*” jasoko zituen egunero.

Esan dugunez, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País aritu zen Espainiako Koroarentzako espioien aukeraketa lanetan bitartekari. Peñaflo-rida kondeak prestatu zizkion zereginak Juan Joseri:

*“Desde Suecia pensará en introducirse por último escalón en las fábricas de Carron en Escocia; y a fin de ser admitido en ellas con menor recelo, se dirá alemán y del oficio...”.*

Alemana ez zela inork susma ez zezan, Juan Josek hizkuntza ondo jakin behar zuen, eta hori agindu zion Munibe jaunak. Espioi lanen ondorioak helarazteko, berriz, euskara erabili beharko zuen. Hara nola gure hizkuntza aproposa bihurtu zen espioi lanetarako!

Baina, aginduen kontra jokaturik, Juan Jose ez zen Eskoziako Carro-nera joan. Alde batetik, ez zuen bere burua Espainiaren eta Ingalaterra-

**EXTRACTOS**  
DE LAS  
**JUNTAS GENERALES**  
CELEBRADAS  
POR LA  
REAL SOCIEDAD BASCONGADA  
DE LOS  
**AMIGOS DEL PAIS**  
EN LA CIUDAD DE VITORIA  
POR SETIEMBRE DE 1783.



**CON LICENCIA.**  
EN VITORIA: Por Gregorio Marcos de Robles y Kavilla,  
Impresor de la misma Real Sociedad.



ren arteko gudan nahastuta ikusi nahi. Bestetik, Suedian teknologia berri bat erabiltzen ari zirela jakin zuen, eta azken hori aztertzea interesgarriagoa iruditu zitzaion. Haren esanetan, Suediako kanoiak oso kalitate onekoak ziren. Ez zituzten etengabeko probak jasan behar, besteak beste, erabilitako metala goi mailakoa zelako. Hala idatzi zuen 1782. urteko azaroan, Bergarara igorritako txosten batean:

“*Por el gran cuidado que tienen los directores en la fundición, están seguros de sacar siempre un producto de la misma calidad*”. (Román, 2000)

Baina... esan dugunez, Espainiako Koroaren aginduen kontra jo zuen. Ministroak “*capaces de todo*” ziren pertsonak behar zirela zioen, eta Juan Josek betetzen zuen, bai, profil hori. Suedian kanoiak egiteko erabiltzen zen teknologia ezagutzeaz gain, Uppsalako Unibertsitatean Olof Bergman irakasle izan zuelarik, kimika ikasketetan sakondu zuen Juan Jose Elhuyarrek. Bergmanek susmoa zuen bazela oraindik ezaguna ez zen material bat. Bestalde, Carl Wilhelm Scheele suediar kimikariak “*acide tungstique*” lortzeko ikerketak zeramatzan aurrera momentu hartan. Juan Josek bazuen horren guztiaren berri.

Askotan izan da eztabaidagai nork aurkitu ote zuen wolframa, Faustok ala Juan Josek. Batzuek lehenengoa izan zela badiote ere, beste batzuek bigarrena izan zela ziurtatzen dute. Mineral “*berriaren*” aurkuntzan elkarri lagundu ziotela garbi dago.

Juan José, 1782. urteko urrian, Bergarara itzuli zen. Han, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-ek martxan jarritako Laboratorio Chemicum-en, bere anaia Faustoren laguntzaz, eta Uppsalan egindako azken egonaldian ikasitakoari esker, wolframa aurkitu zuen, Scheelek aurkituriko “*acide tungstique*” hartatik abiatuta. Gogoratu beharra dago Fausto aspalditik ari zela Laboratorio-en irakasle lanetan.

Scheelek berak Bergmani idatzitako gutun batean zioen bazekiela Luyarte-k (Elhuyarrez ari da) *regulum tungsten* lortu zuela, eta berria pozgarria zela.

Scheele eta Bergmanek Juan Jose ezagutzen zuten, baina ez Fausto.

Beraz, esan dezakegu lehenengoa izan zela aintzindaria.

1783. urtean, Bascongadaren Extractos aldizkarian bi anaiek egindako lanari buruzko memoria idatzi zuten: “*Análisis químico del wolfram, y exámen de un nuevo metal, que entra en su composición*”. Horren amaieran wolframaren aurkikuntzaz hauxe idatzi zuten:



*“Habiendo puesto otros cien granos de este polvo en un crisol de Zamora, guarnecido con carbonilla, y bien tapado, á un fuego fuerte, en el qual estuvo hora y media, encontramos rompiendo el crisol despues de enfriado un botón que se reducía á polvo entre los dedos. Su color era gris, y examinándolo con un lente, se veía un conjunto de globos metálicos, entre los quales habia algunos del tamaño de una cabeza de alfiler, cuya fractura era metálica, y de color de azero. Pesaba sesenta granos, y por consiguiente habia disminuido quarenta. Su pesadez específica era ::1:17,6”. (Extractos 1783, Elhuyar)*

Aurkikuntza inportantea zen. Bestalde, Itsas Armadako ministro espainiarra ez zegoen pozik. Haren aginduak ez ziren bete, Juan Jose Eskoziako Carronera joan beharrean Suedian gelditu baitzen. Txosten gutxi bidali omen zituen, berandu, eta... eskatutako betebeharrei uko eginez. Hori guztia ikusirik, ministroak hil baino lehen erabaki zuen ez zuela Juan Joseren beharrik.

Hala ere, hurrengo ministroak, Antonio Valdesek, fundizioen zuzendari izendatuta bidali zuen Indietara, Nuevo Reino de Granada-ra (Kolumbia). Juan Jose Elhuyar ikertzaile eta espioiak lurralde hartan emango zituen bere azken urteak.

Haren anaia Fausto, Mexikoko Meatze zuzendaria izan zen eta hobekuntza franko ezarri zituen han. Mexikoko Meatze Seminarioa sortu zuen. Geroago Espainiara bueltatu eta Almadeneko Meatze Eskolan plan berri baten proposamena egin zuen, baita Madrilgo Meatze Eskola mar-txan jarri ere.

Elhuyar abizena eta meatzea bat eginda zeudela garbi dago.

Wolframa, hasiera batean, bonbillen barruko harizpia egiteko erabili zen. Milioika bonbilla egin zituzten Elhuyar anaien ikerketari esker. Argindarra martxan zegoen. Gerora, X izpien tutuetarako, elektronika bal-buletarako, erreaktore eta espazio suzirietarako erabili izan da.

Mineral horri, wolframitari, ez zioten asmatzaileen izena jarri. Izena-ren jatorria aleman hizkuntzan dago. *Wolfram* izena Georgius Agricola XVI. mendeko alkimista alemanak asmatu zuen. *Wolf-rahm-etik* dator, hau da, *lupi spuma edo otso aparra*.

Mineral hori tungsteno izenez ezaguna ere bada. Anglosaxoiek hor-rella deitzen diote askotan. Suediar hizkuntzako tung (astuna) eta sten (harria) hitzen ondorioa dugu: harri astuna.

Dena den, eta Salamancako Navasfríasen esan zidatenez, chelitatik eta wolframitatik ateratzen da tungstenoa. Bi lehenengoak mineralak dira, eta azkena, berriz, horiek manipulaturik lortzen dena.

Nahiz eta hasiera batean wolframa bonbilletako harizpitan arginda-rra sortzeko erabili, geroago, XX. mendearen erdialdean, Elhuyar anaien buruetatik seguru asko pasatu ez zen zerbaiterako erabili zen: guda tres-neriarako.



Perrisan

www.delcampe.net

XVIII. mendean Juan Jose Europara joan zen gudako teknologia espiatzera, eta han egindako ikasketei esker, wolframaren aurkikuntza egin zuen gero. XX. mendean alemanek eta aliatuek mineral hori lortu nahi izan zuten, gudarako materiala gogortzeko.

## WOLFRAMAREN GARRANTZIAZ BIGARREN MUNDU GUDAN

Elhuyar anaiak wolframaren aurkikuntza egin eta gero, mineral horrek fusio eta irakin puntu oso altua zuela konturatu ziren. Bere gogortasuna zela eta, oso aproposa eta baliotsua bihurtu zen hainbat produktu ekoizteko. Horregatik, bonbillen harizpia egiteko, armen gogortasuna sendotzeko, armadako gurdi blindatuetan erabiltzeko, motorren balbulak ongi ixteko, suziriak egiteko, hegazkinen motorretan erabiltzeko eta, besteak beste, hainbat tresnaren gogortasuna ziurtatzeko erabilia izan zen.

Beraz, hainbat gauzatarako egunero erabil dezakegun mineral horrek garrantzi handia du, eta are protagonismo handiagoa izan zuen Bigarren Mundu Gudaren garaian. Alemanak izan omen ziren lehenak armadarako tresneriari wolframa eransten. Hala, guda orgak, balak... askoz ere gogoragoak, sendoagoak, bihurtzen zituenez, abantaila izaten zuten gudan.

Wolframa mineral estrategikoa bihurtu zen gudarako.

Gerraren aurretik, 1938. urte inguruan, Alemaniak wolframa Txinatik ekartzen zuen, batez ere. Baita Indiatik ere; eta askoz kopuru txikiagotatik, Portugaldik eta Espainiatik ere bai. Baina 1941. urtean Errusiak lehen erasoak egitean, zaila bihurtu zen Txinatik minerala trenez garraiatzea, eta garbi geratu zen alemanek beste irtenbideren bat pentsatu beharko zutela wolframa eskuratzeko.

Europako wolfram guztiaren %95 Iberiar penintsulan zegoenez, ekialdeko meategiak kontuan hartzen hasi zen Alemania. Ez zuen beste erremediorik.

Aliatuek berdintsu pentsatu zuten. Hala, 1943. urtean alemanek baino wolfram gehiago erosi zioten Espainiari. Lurralde horretako esportazioen artean gai nagusi bihurtu zen. Dena den, aliatuek Estatu Batuetatik molibdenoa, wolframaren ordezkoa, jasotzen zuten, ez zuten

guda tresneriarako hain beharrezkoa. Estrategikoki bai ordea, alemanek mineral hori lor ez zezaten.

Alemanek ahalik eta wolfram gutxien edukitzea interesatzen zitzaaien aliatuei. Horretan datza wolframa lortzeko lehia.

Norgehiagoka horrek mineralaren prezioa igotzea ekarri zuen. Portugalgo gobernua, 1942. urtean, prezio zehatza ezarri zuen: 150.000 eskudo, wolfram tonako. Espainian aldiz, merkatu askeak prezioen gorabeherak eragin zituen: 1942. urtean tona bakoitzeko 125.000-160.000 pezeta artean ordaindu zen, eta 1943an 170.000-285.000 artean ibili zen prezioa.

Wolframa erosteko alemanen eta aliatuen arteko lehia, prezioak asko igo zirela nabari da. Bistan da: gehiago norik ordaindu, harentzat minerala.

Gordon eta Dangerfield-en ikerketetan (1947) esaten denez, Portugal 9.000 tona wolfram eta Espainiari 6.000 erosiz, aliatuek 170 milioi dolar gastatu zituzten. Gerra aurretik 15 milioiren truke eros zitezkeen 15.000 tona.

Wolframa erosteko dirutza izugarria ordaindu behar zen. Hala, aliatuek eta naziek nonbaitetik lortu behar zuten dirua, Espainiari saltzen zizkieten produktuen prezioa igotzea erabaki zuten. Wolframagatik asko ordaindu behar zuten, baina Espainiatik ere diru asko jasotzen zuten.

1944. urteko maiatzaren 11n, Espainiako Ekonomia Zuzendaritzak Hazienda Ministerioari idatzi bat bidali zion, wolfram salmentei esker jasotzen zuen dirutzari buruzko ikerketa egin zezan eskatuz:

*“... me sean remitidos los siguientes datos de esa Dirección General de su digno cargo: Cantidades percibidas, tanto de las Naciones Unidas como de Alemania, por el concepto del impuesto establecido sobre las exportaciones de wolfram durante el año 1943 y los cuatro primeros meses del año 1944...”*

Hauexek ikerketen ondorioak:

<i>“Año 1943</i>	
<i>Naciones Unidas (U.K.C.C.)</i>	<i>116.686.458’00 ptas</i>
<i>Alemania (Minerales Españolas S.A.)</i>	<i>56.155.443’06 ptas</i>
<i>Primer trimestre año 1944</i>	
<i>Naciones Unidas (U.K.C.C.)</i>	<i>80.044.425’75 ptas”</i> .

1943. urtean, hilabete batzuez, aliatuek alemanek baino wolfram gehiago erosi zuten. Naziak mineral hori erosteko zuten urteko aurrekontua uztaierako gastatua zuten. Baina wolframa lortzeko beste modu batzuk asmatu zituzten: urrearen truke, esaterako. Bai, alemanek, lapurtutako urreaz baliaturik, minerala erosi zioten Espainiari. Trukaketa asko Canfranc-etik egin zirela dio hainbat ikerketak (Campos, 2012).

Esan dugunez, Portugalgo gobernuak ezarria zuen wolfram tonako prezioa, baina ez Espainiakoak. Hor dena zen posible: prezioak gorantz egitea; pezetaz gain urrea, dolarrak edo librak onartzea... Merkatu balio-tsua zenez, kontrabandoa egitea ere posible zen. Eta hala gertatzen zen.

Joan Maria Thomàs ikerlariak ere horixe dio (2010):

*“La producción de wolframio en España, muy inferior antes de la guerra a la de Portugal (400 toneladas frente a 4.000), se fue incrementando en la medida que existía mercado e incluso se practicó un nada despreciable contrabando de mineral portugués que buscaba los precios más altos en el mercado no regulado español”.* (98. or.)

### **Carceller VS Gómez-Jordana**

Alemaniko enbaxadore Hans Heinrich Diehhoft-ek honela esan omen zion 1943. urteko martxoan Espainiako Industria ministro zen Carceller-i: *“Para nosotros el wolframio es prácticamente lo que la sangre para el hombre”*. Beraz, guztiz beharrezkoa zen alemanentzat.

Bestalde, Espainiako esportazioen artean lehen gaia mineral hori zenez, produktu estrategikoa izan zen Espainiako Gerra Zibilean naziekin egindako zorrak ordaintzeko, esportazioari esker dirua lortzeko eta, nire ustetan, baita lagun naziekin ongi baino hobeto konpontzeko ere.

Aldi berean, Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuan, prentsan eta amerikar biztanle gehienen artean, Francok ezarritako diktaduraren aurkako sentimendua zegoen. Roosevelt lehendakariak pentsaera horrekin bat egin zuen, eta Espainiarekiko harremanak aldatu behar zirela erabaki. Espainiak Alemaniari wolfram gehiago ez saltzea proposatu zuen, Quebec-eko konferentzian (1943. urteko abuztuan).

Dakigunez, aliatuek Espainiari wolframa erosten zioten, ez beharrezko zutelako, baizik eta alemanek gudarako lor ez zezaten. Eta esan dugunez, norgehiagoka horrek dirutza izugarria gastatzea zekarren.

Estatu Batuetako gobernuak, Espainiak alemani wolframa ez saltzeko presionatu nahian, Espainiako gobernuari petrolioaren salmenta murriztea erabaki zuten.

Britainia Handiak, 1943. urteko azaroan, Espainiaren eta Alemaniaren arteko wolfram salerosketak aurrera egingo zuela jakin zuenean, Estatu Batuen erabakiarekin bat egin zuen. Petrolioaren salmenta murriztu edo oztopatuko zuen berak ere.

1943. urteko azaroaren 23an Britainia Handiko Thomson eta Estatu Batuetako Harrington jaunak Espainiako Iturralde eta Ruiz Morales jaunekin bildu ziren. Thomsonek argi azaldu zien:

*“El Sr. Thomson, al referirse a las actividades alemanas que burlando a la Administración española hacen inútiles los esfuerzos ingleses de “pre-emptive purchasing” (política de prioridad en la compra), ya que si Alemania adquiere todo lo que necesita, para nada sirve esa política...”*

Bilera horretan, salmenta ilegalak egiten zirela salatu zuten aliatuek, eta horren aurrean honako hau erantzun zuen Iturralde:

*“... el Consejo Ordenador es el primero que tiene interés en perseguir las ilegalidades y que efectivamente en un año ha disminuido muchísimo el comercio clandestino...”*

Espainiarrak ederki aitortzen du wolframaren salmenta ilegalak egiten zirela: isilpeko salmentak behera egin zuela esaten badu, asko edo gutxi, baina egin egiten zela onartzen ari da.

Nahiz eta Espainiaren eta Alemaniaren arteko kreditu akordioa azaroan egin izan, 1944. urteko urtarrilean eman zen horren berri. Hortik aurrera, beraz, aliatuek, Estatu Batuekin bat eginez, petrolioaren salmenta murriztuko zuten.

Aliatuen eta Espainiako gobernuaren artean tirabira galanta gertatu zen. Eta ez hor bakarrik. Francoren gobernuak kideen artean ere gorabehera sakonak izan ziren.

Hala, Gómez-Jordana Atzerri ministroak negoziazioen aldeko apustu egin zuen, baina Carceller Industria eta Merkataritza ministroak, berriz, alemani kreditua emanez wolframaren esportazioarekin jarraitzearen aldeko jarrera sutsua azaldu zuen.

Gorabehera handiak gertatu ziren: informazio filtratzeak, gezurrak, salaketak, azpijokoak... denetarik. Politika kontuak, azken finean.



Sinpleki bada ere, esan dezakegu Gómez-Jordanak aliatuen politikara hurbildu nahi zuela, eta Carceller, aldiz, naziekin negozioak egiteko prest zegoela.

Ameriketako Estatu Batuetako gobernuak garbi zeukan zer jokabide izango zuen berak. Thomas ikerlariak (2010) jasotzen duenez, 1944. urteko azaroaren 3an hau idatzi zuten:

*“Nuestra principal preocupación es que cesen las exportaciones de wolframio. Considerando la escasez de aleaciones que experimenta Alemania, nuestras autoridades militares aseguran que cada tonelada de wolframio que llega a Alemania se puede traducir directamente en bajas americanas. Por tanto, se trata de un tema de extrema importancia y urgencia sobre el cual debería insistirse con fuerza. El Departamento será muy reacio a contemplar ninguna propuesta que permita a España seguir exportando wolframio”. (131. or.)*

Seguru nago Francok bazuela horren guztiaren berri. Nola ez, bada? Ministerio guztiak bere kontrolpean izanik, argi daukat hain garrantzitsu zena korapilo horren guztiaren berri bazuela. Baina Gómez-Jordanari eta Carcellerri beren estrategia kontrajarriak aurrera eramaten utzi zien.

Momentu batean, Ameriketako Estatu Batuetako petrolioa Espainiara inportatzea guztiz beharrezkoa zenez, Gómez-Jordanaren iritzitari jarraituz, Espainiak aliatuekin negoziatzea erabaki zuen. Amerikarren proposamena, 1943. urtean alemanei egin zitzaien wolfram esportazioan oinarritzea zen.

*“... el caballo de batalla de la larga negociación fué la limitación de las salidas de wolfram, en lo que se ha logrado que los Aliados se conformen con una cantidad que representa las tres cuartas partes del mineral español enviado a su país por los alemanes durante el año 1943 en régimen de mercado libre, el respeto real de esa cifra es la base fundamental de la debida aplicación de lo acordado...”.*

Ezinbesteko eskaera egin zioten amerikarrek Espainiako gobernuari: negoziazioek irauten zuten denboran, Espainiak naziei wolframik ez saltzea.

Aliatuen kalkuluen arabera, sei hilabetez naziei wolframik saltzen ez bazitzaien, haien armen indarra nabarmen ahulduko zen, eta hala, aliatuek gudan abantaila izango zuten.

Carceller ministroa ez zegoen negoziaketan alde, baina egoerari sekulako etekina ateratzeko aukera zuela konturatu zen. Wolframa legez

saltzerik ez bazegoen, isilpean salduz berak ere zer edo zer irabazterik izango zuen. Hala, alemanek nahi zuten wolframa lor zezaten, kontrabandoa bultzatu eta antolatu zuen. Ministro hori ez zegoen bakarrik.

Carcellerren laguntzailea Hazienda ministroa izan zen: Benjumea jauna, alegia. Bien artean, eta betiere Gómez-Jordanaren ezkutuan, wolframaren kontrabandoa martxan jarri zuten, baita Euskal Herriko mugan zehar ere.

Maiatzaren 2an Espainiako gobernuak akordioa sinatu zuen aliatuekin. Punturik garrantzitsuena wolframaren esportazioa arautzea, neurtzea eta kontrolatzea zen. Kontrolaren barruan zegoen wolframa alemanei kontrabandoz ez pasatzea. Espainiako gobernuak petrolioa jasotzen jarraituko zuen, hartutako konpromisoaren truke. Hala izan ezean, petroliorik ez zen izango. Gómez-Jordana eta haren inguruko politikarien arrakasta izan zen hori. Baina konpromisoa betetzea zaila zela bazekien Gómez-Jordanak. Oso zaila, goi mailako agintari zenbaiten wolframaren kontrabandoak zekarren diru sarrera paregabea aprobetxatu nahi zuten eta.

Gómez-Jordanak Fidel Dávila teniente koronelari idatzi zizkion bere kezka eta nahiak, maiatzaren 3an:

*“Terminadas por fin las conversaciones que desde hace tanto tiempo y sobre todo durante los últimos tres meses hemos venido sosteniendo para lograr la avenencia indispensable que nos permita recibir nuestros abastecimientos vitales y siendo base la ejecución del acuerdo alcanzado la limitación pactada de las exportaciones de wolfram, hemos llegado al momento extraordinariamente difícil y delicado de su aplicación que naturalmente descansa sobre una intervención constante y efectiva de los movimientos de aquel mineral, al que la coyuntura de guerra ha dado tan extraordinario valor que todos los medios parecen buenos a los interesados en obtenerlo para hacerlo pasar a través de las mallas de la reglamentación oficial, ya que su precio permite intentar todas las seducciones y llevar la tentación a todas partes. Y como la salida de wolfram en contrabando anularía todo lo que se ha elaborado con tanto esfuerzo y dificultad y dejaría completamente inoperante el acuerdo alcanzado, es preciso que la estrecha colaboración de todos los a ello llamados nos ponga a cubierto de ese fracaso...”*

Beste agiri batean, maiatzaren 4koan, hain zuzen ere, Gómez-Jordanak berak zera idatzi zuen eskuz:

*“Creo fundamental que esto se lleve con el máximo rigor si no queremos echar por tierra todo lo logrado después de esta penosísima negociación, tan penosa que a mi, por mi parte, me sería punto menos que imposible emprender otra análoga provocada por trapacerías innecesarias y a las que tan dados somos. Por mi parte he escrito al Ministro de Hacienda y al Jefe del Alto Estado Mayor las cartas que en copia se acompañan; pero nada valen si no tienen el apoyo del Generalísimo. Creo es mucho lo que se juega España para no poner todo el empeño en evitarlo”.*

Oso garbi geratzen dira Gómez-Jordanaren jarrera eta helburua. Era berean, garbi zeukan zailtasunak non zeuden, erabat jakitun zen horretaz. Espainiako Atzerri Ministerioko Artxiboetan aurkitutako hainbat agiritan frogatzen denez, Gómez-Jordanak ahaleginak egin zituen sinaturiko akordioak betetzeko. Baina Espainiako gobernuaren barruan eta administrazio desberdinetako agintariengandik jaso zituen oztopoak, gezurrak eta faltsukeriak haren ahaleginen parekoak izan ziren. Goi mailako lehia gozorra izan zen.

Gómez-Jordanak osasuna galdu zuen ibilbide horretan. Ez da harritzekoa.

Ez da harrigarria ere baina bai adierazgarria, Benjumeak 1944. urteko maiatzaren 3an jasotako eskutitza. Gómez-Jordanak, aliatuekin akordioak sinatu ondoren, laguntza eskatu zion hainbat erabaki aurrera eramateko:

*“Siendo su base [akordioarena] fundamental la limitación de las exportaciones de wolfram, todo ello descansa, naturalmente, sobre la represión del contrabando de este mineral, extraordinariamente tentador, ya que por un lado la apetencia de obtenerlo y por otro el precio fabuloso que la guerra le atribuye, son motivos para que todos los medios parezcan buenos a los interesados para lograr su salida. Y como ese contrabando, de realizarse, daría al traste con la normalización alcanzada con tanto esfuerzo y, por consiguiente, con nuestros abastecimientos vitales, es preciso hacer cuanto sea indispensable para impedirlo a toda costa y de manera radical.*

*Para ello le pido a Vd. encarecidamente su estrecha colaboración, ya que son los servicios de Aduanas los directamente llamados a adoptar y practicar las precauciones y reglamentaciones a tal fin encaminadas...”.*

Badirudi Benjumeak nahiago izan zuela “estrecha colaboración” hori eduki Carcellerrek, Gómez-Jordanarekin beharrean, lehenengoarekin aukera baitzeukan isilpeko negozio tentagarriak egiteko. Beraz, Gómez-

Jordanak, aliatuekin lorturiko akordioak betetzeko, hitz onak beste ezer ez zuen jaso Benjumearengandik:

*“... recomienda el mayor celo al personal a sus órdenes para que se cumpla estrictamente el convenio”.*

Eta sinaduraren aurretik gehitzen du:

*“le saluda cordialmente su buen amigo”.*

Bai jarrera faltsua azaldu zuena!

Wolframaren kontrabandoaren saltsa horretan, besteak beste, honako hauek parte hartu zuten: Hazienda Ministerioaren mendeko Aduanetako Zuzendaritza, RENFE, SNCF eta Espainiako kontsulatua Hendaian.

García Perez-en esanetan:

*“... los alemanes aceptaron la disposición de Carceller encantados. Su necesidad de wolframio era grande y Hitler en persona había ordenado el 21 de enero [1944. urteaz ari da] conceder a la compra del wolframio prioridad absoluta”. (452. or.)*

Gómez-Jordanak Carcellerren faltsukeriaren berri izan zuenean (1944ko apirilaren 13an), guztiz haserretu zen. Espainiako Atzerri Ministerioa negoziaketak aurrera eramaten ari zen bitartean, Carceller ministroa eta haren adiskideak kontrabandoa bultzatzen ari ziren. Eta ziur nago Francok bazekiela hori guztia.

Gómez-Jordanak, erabat mindurik, Carceller gobernutik kaleratu zezan eskatu zion Francori. Baina Thomasek dioenez (2010):

*“... tal vez debería haber dirigido al menos una parte de su ira hacia el mismísimo Generalísimo, dado que era éste en última instancia quien había utilizado la iniciativa de Carceller”. (170. or.)*

Noski. Eta, bai, aurrez esandakoa: Francok ongi zekien Gómez-Jordana zertan ari zen, eta Carcellerren trikimailuak ere ezagutzen zituen.

Gómez-Jordana negoziaketen alde eta adostutakoak betetzeko prest zegoela garbi azaltzen da 1944. urteko maiatzaren 3an Consejo Ordenador de Minerales Especiales de Interés Militar zeritzaneko Fidel Dávila lehendakariari igorritako idatzian. Dávilaren erantzuna irakurriz, badirudi, wolframaren salmenta ilegalak zekarren dirutza kontuan hartuz, ulertzen zituela kontrabandoa egitearen tentazioak:

*“He recibido tu carta del 3 de éste mes, señalándome los extremos del acuerdo habido recientemente con los angloamericanos y que afecta a este Consejo Ordenador...”*

*Tú mismo conoces las dificultades que se ofrecen para la ejecución de los acuerdos y para el cumplimiento de las disposiciones y normas dictadas, en razón al extraordinario valor que tiene la mercancía a que nos referimos, con márgenes de beneficio que permiten ejercitar una captación de las personas que en otros productos no se ofrece...”*

Aliatuek akordio teoriko bat lortu zuten: hiru hilabetez Espainiak Alemaniari wolframa ez saltzeko eta hilabete horiek igaro ondoren mineralaren legezko esportazioa neurritz egiteko.

Adostasunen artean wolframa esportatzeko kupoak hilabetez hilabete ezarriko zirela erabaki zen:

*“Al hablarme [Gómez-Jordanak Dávilar] de las toneladas para exportar a Alemania y señalarme el campo que pudieran autorizarse cada uno de los meses que restan del año, incluyendo el presente, me fijas una cifra que a mí me parece bien...”*

Maiatzaren hasiera hartan Gómez-Jordana ministroak hainbat esku-titz bidali zituen, betiere akordioak betetzeko laguntza eta parte hartzea eskatuz (Haziendako zuzendariari, Mineraletako Kontseiluko lehendakariari). Baita Gustavo Navarro Aduanetako zuzendariari ere:

*“... habrían de establecer contacto con los Administradores de Aduanas de los puertos y puestos fronterizos con el fin de mantener una vigilancia minuciosa que permita evitar el contrabando de wolfram...”*

Azken horrek, Navarrok, ez dirudi oso gogo onez hartu zuenik agindua.

Aliatuek Gómez-Jordana presionatzen zuten. Wolframaren esportazioa zela eta, akordioetan sinaturikoa betetzeko indar eta ahalegin guztiekin jokatu nahi zuten. Bestalde, Carcellerren politikarekin ados zeudenek, Gómez-Jordanaren idatziak eta aginduak jaso ondoren, eskatutakoa beteko zutela erantzuten zioten, baina hitz hutsak ziren. Ez hori bakarrik, aliatuekin adostutakoak betetzeko eragozpenak sortzen saiatzen ziren. Esaterako, luzapen administratiboak ohikoak izan ziren.

Hala, aliatuek wolframaren kontrabandoa egiten zelako susmoak edo frogak zituztenean, salaketa idatziz egin zezatela eskatzen zitzairen. Horrela, eta garai hartan gutunak postaz bidaltzen zirenez, idatziak Ministeriora iritsi behar zuten, zegokionak irakurri behar zituen... Erantzuna

itzuli bitartean, denbora pasatzen zen. Zer esanik ez, erabakiak hartu eta martxan jarri behar baldin baziren! Eskutitza jaso, bilerara deitu, bildu, erabakiak hartu, zegokienei aginduak berriro ere postaz bidali, jaso, erabakia martxan jarri... Bitartean, agian idatziren bat galdu egingo zen. Bete nahi ez ziren aginduak ez betetzeko trikimailuak ziren.

Gómez-Jordanak 1944. urteko ekainaren 13an Aduanetako zuzendari zen Gustavo Navarrori eskutitz adierazgarri hau idatzi zion:

*“En mis cartas de 22 de abril, 3 y 9 de mayo le expresaba el deseo de los Consejeros Comerciales británico y norteamericano de que sus funcionarios consulares en los distintos puertos y puestos fronterizos establecieran contacto con los Administradores de Aduanas, con el fin de ayudarles en la labor de impedir y reprimir el posible contrabando de wolfram, rogándole tuviera a bien advertir a los funcionarios a sus órdenes que aceptasen dicha colaboración para el cumplimiento de las disposiciones legales sobre la materia...”*

Badirudi Santanderren zen Britainia Handiko kontsulak, H. Croker jaunak, bertako Aduanetako administrariari bisita egin ziola, baina:

*“... si bien le recibió amablemente, le dijo que no tenía instrucción alguna en el sentido antes indicado”*.

Nahiz eta Navarrok Gómez-Jordanaren hiru eskutitz jaso, agindua beteko zuela esan bai, baina ez zuen bete. Hala ere, hamabost egunera, ekainaren 14an, Navarrok José Pan de Soraluze Atzerri Ministerioko idazkariordeari eskutitz bat bidali zion, eta bertan hau irakur daiteke:

*“... puedo decirle que en conferencia telefónica celebrada personalmente por mí con el Sr. Administrador de la Aduana de Santander el martes día 13 del actual, transmití a dicho señor el sentido exacto de las cartas indicándole que el Sr. H. Croker, Consul británico en Santander, le hará por escrito las denuncias que crea pertinentes y que en caso de extrema urgencia, cuando el servicio pudiera estimarse frustrado por el retraso en la comunicación escrita, puede aceptar la denuncia verbal, a reserva de que la misma sea confirmada seguidamente bajo su firma...”*

Apirilaren 22an Gómez-Jordanak agindua bidali zuen, aduanetako administrarietara aliatuekin sinaturiko akordioaren berri izan zezaten. Baina badirudi Santanderko aduanako administrariak ez zuela aginduen berri jaso. Azkenik, bazen garaia! bere buruak, Navarrok, hainbat betebeharrak azaldu zizkion.

Gustukoak ez ziren aginduak atzerapenez betetzen ziren. Croker jaunna Santanderko aduanara bisitan joan zen, baina ez zuen ezertarako balio izan, bertako administraria ustekabean harrapatu baitzuen. Ez zuen aginduen berri. Croker jaunak kexa Atzerri Ministeriora igorri zuen, eta han, berriro ere.

Aduanetako zuzendariarekin harremanetan jarri zuten. Hango arduradunak, azkenik, Santanderko aduanako administrariarekin. Bukatzeko, Croker jaunak aduanara joateko baimena jaso zuen.

Buelta horiek guztiak egin ondoren, esan zioten salaketak ezin zirela ahoz egin, nolabaiteko sinadura behar zutela, eta, beraz, horretarako berriro ere aduanara ez itzultzeko, hobe zela salaketak idatziz egitea. Berriro ere guztia atzeratzeko estrategiatzat erabili zutela uste dut. Atzerapenak, atzerapenak, atzerapenak...

Maiatzaren hasieran, Robert M. Brandin, Ameriketako Estatu Batuetako Kotsulordea izendatu zuten Irun, Pasaia, Erreterria eta Berako aduanetako administrariarekin harremanak izateko arduradun, *“con la finalidad de evitar todo posible contrabando de wolfram en dichas zonas”*.

Enbaxada horretako Merkataritza agregatu Ackerman jaunak eskutitz bat igorri zion José Pan de Soraluze Espainiako Atzerri Ministerioko idazkari ordeari. Hor esaten zuenez, Brandin jaunak jakin zuenean wolframaren inguruko kontrabandoari buruzko salaketak idatziz egin behar zirela, prozedura ez zitzaion batere egokia iruditu. Arrazoa:

*“Si el Administrador de Aduanas insiste en que ha de tener comunicación por escrito antes de actuar, el elemento tiempo será perdido en casos semejantes de urgencia...”*.

Noski. Baina, hain zuzen ere, kontrabandoaren alde zeuden agintariek horixe nahi zuten, denbora pasatzea eta kontrabandoa bera ez aurkitzea, edo aurkituz gero, ez zigortzea. Dirutza izugarria zegoen jokoan, eta diru ugari irabazteko aukera ezin hobe hura ez zuten galdu nahi izan.

Gómez-Jordana ez zen fio. Ekainaren 26an Navarrori berriro ere eskutitz bat idatzi zion, bere aginduak betetzen ari ote zen jakin nahian. Erantzuna:

*“... los Administradores de las Aduanas de Vigo, La Coruña, Ribadeo, Gijón, Santander, Bilbao, San Sebastian e Irun, tienen las instrucciones deducidas del contenido de las respetables cartas que Ud. tuvo la bondad de dirigirme con fechas 22 de abril, 3 y 9 de mayo y 13 de junio corriente”*.

Jarraitzen du, eta paragrafo hau interesgarria iruditzen zait:

*“El administrador de la Aduana de Fuentes de Oñoro (Salamanca), al que por primera vez se refiere Ud. en su atenta carta del 26 del actual, llegará mañana a Madrid y recibirá las indicaciones consiguientes”.*

Hitz horiek oso maltzurak iduritzen zaizkit. Gómez-Jordanak aspalditxo idatzi zuen honako hau:

*“... habrían de establecer contacto con los Administradores de Aduanas de los puertos y puestos fronterizos con el fin de mantener una vigilancia minuciosa que permita evitar el contrabando de wolfram...”.*

Garbi azaldu zuen aduanetako administrariekin hitz egin eta wolframaren kontrabandoa saihestu behar zela. Ez zuen eskutitz horretan aduanetako administrari bakoitza aipatzen, generikoa erabili zuen. Beraz, zergatik, hain zuzen ere Santanderkoak ez zekien ezer ere, eta Fuentes de Oñorokoak ere ez?

Azken eremu horren inguruan wolfram meategi asko zegoenez, bazuten kontrabandoaren berri. Eta hango aduanetako agintariei zergatik ez zitzaizkien Gómez-Jordanaren aginduak helarazi?

Madrilera hurrengo egunean etortzekoa zen bertako aduanako buroia, eta hurrengo egunean esango zizkion esan beharrekoak Navarro jaunak. Berandu. Ondo kalkulaturako atzerapena.

Navarrok ez du aipatzen Gómez-Jordanak idatzi zion beste puntu bat.

Hain zuzen ere, 26ko eskutitzean hau esan zion:

*“El Consejero Comercial británico me comunica que los funcionarios consulares de su país en Bilbao y Gijón, señores W.C. Graham y A. Lovelace, han intentado establecer contacto con los Administradores de Aduanas de las poblaciones citadas a los efectos antes indicados, pero estos funcionarios manifiestan repetidamente que no han recibido instrucciones de sus superiores jerárquicos a tal efecto. Asimismo ruega se hagan llegar a los Administradores de aduanas de La Coruña y Salamanca intrucciones en el mismo sentido...”.*

Posible ote da? Ez Santanderreko aduanako funtzionarioek, ez Bilbokoek, ez Coruñaekoek, ez eta Salamancakoek ere... ez zuten Gómez-Jordanaren agindurik jaso!!! Eta hark, Gómez-Jordanak, apirilaren bukaeran idatzi zion Navarrori lehenengo eskutitza, aliatuekin sinaturiko akordioa betetzeko aginduak emanez! Esandakoa: aginduak beteko zituela esan zuen, baina ez zuen esana bete.



Dena den, Gómez-Jordanaren ekainaren 26ko idatzi horretan hasierak harritzen nau: *“Siento tener que molestarle nuevamente sobre el asunto...”*. Badirudi Gómez-Jordana bere ardurak bete nahian molesta-tzeko beldurrez zebilen bitartean, Navarrok, bere betebeharrak alde batera utziz, nahiko erantzun ironikoa bidali ziola Gómez-Jordanari:

*“El administrador de la Aduana de Fuentes de Oñoro (Salamanca), al que por primera vez se refiere Ud...”* idatzi zuen.

COMEIMeko (Consejo Regulador de Minerales de Interés Militar) Fidel Dávila lehendakariak Atzerri ministroari, Jordanari, eskutitz guztiz adierazgarria idatzi zion maiatzaren 10ean. Bertan azaltzen denez susmorik bada, Italiako enbaxadako agregatuaren autoa erabiltzen ote zuten wolfram kontrabandoa egiteko. Delitua egiten ote zen eta horretarako esandako autoa erabiltzen ote zuten ikertu, eta frogatuz gero, beharrezko neurriak hartzeko prest zegoen Dávila.

*“... se registran diversas actividades en la frontera galaico-portuguesa por determinados señores y señoras en relación con los negocios del wolframio. Desde luego algunos de los que se indican tienen malos antecedentes en el Consejo Ordenador y por éste se tomarán las medidas necesarias en relación con las atribuciones que tiene para evitar lo que pudiera haber de delictivo, pero el que me dirija a tí obedece a que la información señala como vehículo que utilizan en sus andanzas uno con la matrícula 69.634 del Cuerpo Diplomático, perteneciente al Coronel de Aviación Ferry Forte, Agregado a la Embajada Italiana en Madrid”*.

Ez da hori Italiako enbaxadak nolabait wolframaren kontrabandean parte hartu izanaren susmo bakarra. Britainia Handiko idazkariak, Lewin jaunak, oso salaketa zehatza eginez idatzi zion Iturralderi ekainaren 8an:

*“Le doy a continuación los detalles del coche C.D., que desde junio de 1943 viene utilizándose para actividades de wolfram por un tal Señor D. Antonio Gutierrez Mantecón. Este señor ha venido utilizando un FIAT 1.100 o 1.500, matrícula de Madrid 63284, con placa C.D., para negocios relacionados con el wolfram. El coche pertenecía en un principio a la Embajada italiana y era usado por el Agregado Militar. Durante algún tiempo el Sr. Gutierrez ha venido suministrando wolfram a los alemanes, empleando el coche para viajes y transporte del mineral”*.

1943. urteko ekainaz goerotik wolframa auto horren bidez garraiatzen zutela dio Lewin jaunak. Kontuan hartuz idatzia 1944. urteko ekainean idatzi zela, pentsa dezakegu data horren inguruan enbaxadako autoa zen Fiat hura maiatz aldera ere erabili zela wolframa alemanei pa-

satzeko. Gogoratu beharra dugu garai hartan ez zegoela wolframa alemanei saltzeko aukerarik. Hala sinatu zen maiatzaren hasieran.

Baina saldu zen eta horretarako Italiako enbaxadako kidego diplomatikoa (C.D., Cuerpo Diplomático) erabiliz eta pribilegio horretaz baliatuz egin zen, kontrabando lanetan arituta.

Maiatzean sinaturiko akordioak alde batera utzirik, froga daiteke Portugalgo eta Espainiako wolframa Euskal Herritik igaroz pasa zitzaizela naziei kontrabandoan. Garai batean 600 tona esportatzeko akordiora iritsi arren, aliatuek ziotenez 970 tona izan ziren alemanek jasotakoak. Hau da, 370 tona pasa ziren isilpean, kontrabandoz, alegia.

Kontrabandoan pasa zen wolfram kopurua agirietan azaltzen dena baino handiagoa izan zela seguru nago. Aliatuek zituzten espioien datuak ditugu kontabilizaturik, baina, nire ustez, haiek konturatu gabe kontrabandoan gehiago pasako zela pentsatzea bat dator errealitatearekin.

Nahiz eta 1944. urteko maiatzaren 2an Espainiako gobernuak aliatuekin akordio garrantzitsua sinatua izan, alde batekoek behintzat ez zuten bete. Aliatuen ikerketek ziotenez, Francoren agindupean kontrabandoan saltzen zitzaizen wolframa naziei. Argi eta garbi zegoen.

Ameriketako enbaxadak Gómez-Jordanaren Ministerioari kezka eta kezka ez beteriko eskutitza bidali zion:

*“... Los métodos actuales de control son totalmente inadecuados, y la mera reducción de la cuota alemana de exportación por la cantidad de exportaciones de contrabando descubiertas no constituyen ni una solución ni un castigo para el contrabando. Los alemanes tienen meramente una oportunidad para aumentar sus importaciones de wolfram de España por medios clandestinos, e incluso los cargamentos clandestinos descubiertos llegan a sus manos antes de la fecha señalada para las exportaciones legales, lo cual es una ventaja evidente en las circunstancias en que se encuentran.*

*Estoy seguro de que V.E. comprenderá que la continuación de este estado de cosas tan poco satisfactorio hará desaparecer inevitablemente las grandes esperanzas, que surgieron el acuerdo de 1 y 2 de mayo, de una mejora progresiva en las relaciones entre nuestros dos países...”*

Espainiako Atzerri Ministerioak hori guztia jakin ondoren, idatzi bat kaleratu zuen. Hau zioen:

*“Se ha comprobado por las Autoridades españolas el intento de contrabando de 159.833 toneladas de wolframio y el contrabando efectivo de*

*alrededor 100 T. de las 158/175 T. denunciadas por las Embajadas inglesa y norteamericana.*

*La teoría esgrimida por éstas Embajadas consiste en que si se ha descubierto contrabando efectivo o intentado de mas de 300 T. de wolframio, es lógico suponer que al menos otras 300 T. habrán pasado la frontera desde mayo hasta la fecha sin ser descubiertas. Por tanto aducen, que además de quedar al descubierto la organización alemana para burlar la ley española, ha logrado Alemania importar de España cantidad mucho más elevada de wolframio de la que autorizaba escalonadamente hasta fin de año el Acuerdo de 2 de mayo sobre la materia”.*

Aliatuek salatutako egoera haren aurrean erabakiak hartu behar ziren. Hala, abuztuaren 1ean, Espainiako Atzerri Ministerioak Aduanetako eta Merkataritzako zuzendaritzei telegrama bat bidali zien, honako hau adieraziz:

*“Debido a las exportaciones clandestinas de wolfram realizadas, cúmpleme comunicar a V.I. de orden superior que hasta nuevo aviso se suspende la exportación de la cuota de wolfram correspondiente a Alemania durante el mes de agosto”.*

Gómez-Jordanaren lanak eta ahaleginak pikutara joan zirela dirudi. 1944. urteko abuztuaren 3an hil zen, Donostian, 68 urte zituela.

García Pérezen esanetan (1994):

*“Murió agotado por la enorme presión y ansiedad con que había vivido los últimos acontecimientos, desde la imposición del embargo de petróleo por los aliados, los enfrentamientos en el seno del Gabinete y las consecuencias del giro transcendental dado bajo su mandato a la política exterior española, con el expreso apoyo del general Franco”. (491. or.)*

Moreno ikerlariak (2007) hau dio Gómez-Jordanaren heriotzari buruz:

*“... conmovió a toda España, e incluso a las Cancillerías mundiales por la prestigiosa y hábil personalidad diplomática que en aquel delicado instante de la II Guerra Mundial desaparecía de la política española”.*

Dena den, 2008. urteko urriaren 16an, Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak, Gómez-Jordana eta beste 34 frankistaren inguruko sumarioaren instrukzioa hasi zuen. Zergatia: *“delitos de detención ilegal y crímenes contra la humanidad cometidos durante la Guerra Civil española y en los primeros años del régimen”.*

Gómez-Jordana hil ondoren, eta wolframaren kontrabandoak aurrera egiten zuenez, elkarriketek, salaketek... jarraitu zuten.

Aliatuen aldetik, Gómez-Jordana hil eta 6 egunera, Butterworth jauna Atzerri Ministerioko Idazkari ordearekin bildu zen. Bilera hartan ikerketa honetarako oso interesgarriak diren, hainbat argibide plazaratu zituen:

*“... la fricción en las relaciones hispano-norteamericanas durante los meses de febrero, marzo y abril últimos, fué debida a la actitud valiente y decidida de España para hacer honor a su compromiso con Alemania de exportarle wolfram; esta actitud produjo a España serios perjuicios y fué depuesta en el mes de mayo por propia voluntad del Gobierno español, reglamentando dicha exportación. Alemania ha contestado a este gesto español desconociendo totalmente sus leyes y sus disposiciones, vulnerando el acuerdo mediante la exportación clandestina de elevadas cantidades de wolfram y procurando poner en ridículo el mencionado convenio. Este comportamiento alemán da motivos sobrados a España para que como represalia decreta el embargo total de las exportaciones de wolfram a Alemania, aprovechando la coyuntura que se le presenta para hacer un gesto amigable a las Naciones Unidas”.*

Idatzi horren azpialdean Espainiako gobernuari nolabaiteko mehatxua egiten zitzaiola uste dut: edo gurekin, hau da aliatuekin, edo alemanekin.

Butterworth jauna oso diplomatikoa izan zela iruditzen zait. Hasieran Espainiak Alemaniarekin zeukan harremana kontuan harturik, lehenengoak bigarrenarekin wolframa esportatzeko hitza beterik, egin beharrekoak egin zituela zioen. Ulertzekoa zen, beraz, Espainiaren jarrera, baina horrek gobernuari ez zion inolako onurarik ekarri. Alemaniaren jokabidea guztiz legez kanpoko zela azaltzen du: ez zuten ezagutzen Espainiak aliatuekin sinatutako akordioa; edo ezagutu bai, baina paso egin eta kontrabandoan lortzen zuten wolframa.

Dokumentuan idatzirik dagoena irakurriz, Espainiako gobernuak kontrabando horretatik at zegoela dirudi. Alemanak ziren errudun, ez espainiarrak.

Horrela azalduz, oso modu goxoan esaten ditu Butterworth jaunak esan beharrekoak: alemanek kontrabandoan wolframa jasotzen jarraitzen bazuten, aliatuekin ez ziren ongi konponduko. Erabaki egin behar zuten.

Jaso zuen erantzuna, espero zena:

*“El Sr. Subsecretario explica al Sr. Butterworth que el último documento firmado por el Señor Ministro antes de su muerte fué la suspensión de las exportaciones de wolfram a Alemania correspondientes al mes de agosto, suspensión que ha sido comunicada a todos los organismos interesados. Manifiesta igualmente que los expedientes de la Guardia Civil de la Comandancia de Marina de San Sebastian permiten apreciar un contrabando efectivo, que ha dado lugar al encarcelamiento de varias personas. Dice asimismo al Sr. Butterworth que el Señor Ministro en San Sebastian en sus entrevistas con las autoridades, puso de manifiesto el interés del Gobierno en cumplir a rajatabla las disposiciones del acuerdo sobre el wolfram ...”.*

Badirudi Gómez-Jordanak hil arte egin zituela ahaleginak aliatuekin sinatutako akordioa bete zedin. Baina kontrako iritzia zutenak, wolframaren kontrabandoa bultzatu eta burutu zutenak, gehiago zirela uste dut. Haietako gehienak goi mailako agintariak ziren. Dirutza izugarria zegoen tartean.

Carcellerrek 1945. urtera arte jarraitu zuen Industriako ministro lanetan.




## WOLFRAM

### MEATEGIAK ETA KONTRABANDOA

Aurrez esan dugunez, Bigarren Mundu Gudan wolframak erabateko garrantzia izan zuen. Hainbestekoa, alegia, non alemanak eta aliatuak edozer gauza egiteko prest zeuden, mineral hori lortzearren. Gehiago nork eduki, hura izango zen indartsuago besteen aurrean. Aldez aurretik aipatu dugu zer esan zion Espainian Alemaniako enbaxadore zen Hans Heinrich Diekhof jaunak Cancellor Industria ministroari: *“para nosotros el wolframio es practicamente lo que la sangre para el hombre”*.

Wolframa ez zuten soilik bonbilletako harizpia egiteko erabiltzen hau da, bonbillek argia emateko beharrezko zuten harizpi hori egiteko;



ez. Mineral hori ezinbesteko bihurtu zen gudarako tankeak eta obusen puntak indartzeko. Beraz, nola edo hala, ahal bezainbeste tona biltzea bihurtu zen bi bandoen helburu. Ordaindu beharreko prezioa, dirua, ez zen arazo izan. Minerala ez lortzea izaten zen arazoa.

Ikerketa honen beste zati batean, wolframa erostearen kostua pezetatan zenbatekoa zen azaldu dugu. Dolarretan, honako hau zen prezioa: 1941. urteko urtarrilean, tona bat wolframengatik 1.300 dolar ordaintzen ziren, baina urte horretako urrian, 20.000 dolarrean erosi izan zen. Bada aldea!

1939. urtera arte wolframa Indiako eta Txinako meategietatik ekarzen zela aipatu dugu. Baina aliatuek itsas oztopoak jarrita bide hori itxi zuten, alemanek Espainiako eta Portugalgo wolfram meategietatik erostea erabaki zuten.

León, Galizia, Salamanca eta Extremadurako meategiak izango ziren, batik bat, mineral hori eskainiko zuten lurraldeak. Baita justu herrialde horiekin parez pare zeuden Portugal aldeko eremuak ere.

Wolframa salduz dirutza izugarria lortu zuten bai bertako biztanleek bai gobernuak. Adibide aproposa da esatea tonako 7.500 pezeta ordaintzetik 235.000 pezeta ordaintzera iritsi zela.

Herri xume askotako biztanleak mendietako meategietara joaten ziren wolframa jasotzera. Gizonak, emakumeak eta umeak. Lanbide berri hori, diru sarrera hori guztia, gobernuak kontrolatu nahi zuen, modu horretan Gerra Zibilean Alemaniarekin egindako zorrak ordaindu ahal izateko. Baina ez bakarrik zorrak ordaintzeko, baizik eta, wolframa alemanei salduz, Espainiak urrea lortzeko, eta horrekin, janaria eta batez ere erregaiak erosi ahal izateko ere bai.

Wolframa “*mineral de interés para la defensa nacional*” izendatu zuten. Baina, nondik jasotzen zen, bada, “*mineral de interés para la defensa nacional*” delako hori?

Elhuyar anaiek aurkituriko minerala Iberiar penintsulan Galizia, Salamanca eta Extremadurako lurraldeetako meategietan ustiatzeaz gain, mugaz bestaldera Portugalgo eremuetan ere aurki zitekeen. Rayaren alde bateko eta besteko mendietan, hain zuzen ere. Eta muga bitarteko izanik, wolframaren kontrabandoa egin zen. Erabilitako garraioak: kamioiak, autoak, itsasontziak, trenetako bagoiak, mando eta zaldiak, bizkarrak... Aurrerago aztertuko dugu nola. Interesgarria, benetan.



Wolfram meategiak eta mineral hori lortzeko egokiak ziren zenbait zonalde aipatuko ditut. Horiez gain, askoz ere gehiago daude, baina neuk aztertu eta ikusitakoez arituko natzaizue hemen.

## **GALIZIA**

### *CARREIRAS*

1944. urteko otsailaren 3an, Britainia Handiak Madrilen zeukan enbaxadak Espainiako Atzerri Ministeriora eskutitz bat idatzi zuen. Hor, Carreiras inguruan wolframaren kontrabandoa egiten zelako susmoa azaltzen zuen.

Aliatuen ustetan, minerala Villacovatik hurbil Cualquiera izeneko meategi batetik atera eta Carreirasen zegoen errotara eramaten zen. Garraibide gisa Ford zuri bat erabiltzen omen zuten. Meategia Fernando Martínez jaunarena zen; eta errota, Millares deituriko gizon batena.

Egindako salaketan biltegi bat azaltzen da: Castiñeirako arrain kontserbako lantegia, hain zuzen ere. Badirudi, hala diote Britainia Handiko enbaxadatik, wolframa fabrika horretatik aterata eramaten zela. Ez zen salaketa bakarra izango.

### *CARBALLO*

Coruñako Carballo lurraldean, Neme mendia dago. Bertan ustiatutako wolframa Vigon sortutako Estudios y Explotaciones mineras Santa Tecla enpresaren menpe gelditzen zen. Izena espainiarra zen; dirua, al-diz, alemana.

Meategietan lan eginez dirua eskuratzea zegoenez, inguruko herrietako jende asko bertaratu zen Carballora. Lan egiteak dirua jasotzea zekarren eta honek bizimodua errazten zuenez, biztanleria asko hazi zen. 1940. urtean wolfram meategien ustiaketa hasi zenean, Carballo herriak 1.500 biztanle zituen. Hamar urteko epean, bikoiztu egon zen.

Ameriketako Estatu Batuek Vigon zuten kontsulatuko buruak Madrillgo kontsulatuari eskutitz bat igorri zion, Carballoko biltegi batean aurkituriko C-5770 kamioian 4.000 kilo wolfram topatu zirela esanez. Guztia-  
ren nagusia Parga Moure zen.

Salaketak zioenez, Santiago hirian Barreiros kaleko 39.ean, Parga jaunak 8.000 kilo wolfram gorde zituen edari biltegi batean. Beste 2 tona eta

erdi garraiatzeko asmotan omen zebilen. Azken karga horrek bazuen beharrezko guía de intermediario delakoa, eta Vigoko Minerales de España eramatea zen helburua.

Ekainaren 28an, Vigon zegoen aliatuen kontsulak Coruñaako Guardia Zibilarengana jo zuen, guztia salatzeke asmoz. Hango teniente koronelak beste bulego batera bidali zuen, eta azkenik, arratsaldean, Santiagoko Guardia Zibilaren kapitainarekin solas egitea lortu zuen. Hark, wolframaren inguruko gorabeherak José Feijóo kapitainaren esku zeudela esan, eta harekin harremanetan jartzeko gomendatu zion.

Hala egin zuen. Feijóo kapitainak wolframaren inguruan ez zuela inongo agindu berezirik jaso esan zion kontsulari. Kontsularen arabera, kapitain horrek ez zuen inolako interesik agertu salaketaren inguruan. Esan omen zion berari kostaldeko lanak zegozkiola, barrualdean gertatzen ziren gorabeherak Santiagoko kabo batek zeramatzala, baina bera Coruñaako kapitaina zela. Beste laguntzarik ez zuela jaso zioen kontsulak.

Hala Vigoko kontsulak, Feijóori buruz:

*“... tengo el firme convencimiento de que puede esperarse poca o ninguna asistencia de su parte si puede evitarlo para confiscar el wolfram indocumentado...”*

*... me dió a entender que no estaba especialmente interesado en ejercer dicha vigilancia...”*

Hala ere, Parga Moure izena entzutean gehiago interesatu omen zen José Feijóo. Kontsulari adierazi omen zion Moure ongi ezagutzen zuela, oso gizon ospetsua baitzen, eta harritzen zela wolframarekin horrelakoe-tan aritzea. Arrazoi hauengatik, Moureren biltegian ez zuela zergatik miatu beharrik sutsu esan zion. Baina kontsulak are sutsuago azaldu zue-nez miaketak egin behar zirela, azkenean, azterketak egingo zirela agin-du zion kapitainak kontsulari, baina egun argiz egingo zirela, ez gauez. Jarrera horrek susmo gehiago eragin zuen. Izan ere, kontrabando mugimenduak gauez egiten ziren, ez egunez.

Bien arteko solasaldian, kontsulak zera zioen Feijóoren jarreraz:

*“Procuró evitar llegar a una solución y se mostraba muy poco dispuesto a ordenar una investigación del almacén...”*

*El Capitán quedó bastante deprimido por haberle colocado en una postura que lo obligaba a dar las órdenes citadas. Especificó que el registro se haría de día y no de noche y ello puede ser sospechoso puesto que casi todo el movimiento de mineral indocumentado se hace de noche”.*

Hurrengo egunean, Gumersindo Díaz Suárez Vigoko karabineroen komandantearekin bildu zen kontsula, aurreko guztia azaltzeko. Hark gertatutakoa zuritu zuen. Haren esanetan, Minerales de Españak Vigoko berea zen biltegia wolframa gidarekin (mineralaren agiri legala ) eraman behar zuen ekainaren 30ean. Baina, Alemaniako kontsulak karabine-roi esan omen zien biltegian ez zela wolfram zati hura jasoko.

Arraroa, ezta? Bada, Alemaniako kontsulak zioenez, wolframaren gida ekainaren 29koa zenez, ezin zuten Vigora 30ean eraman, gida iraungita egongo zelako. Eta ( hau nirea da ) alemanek legeak guztiz onartu eta betetzen zituzten, nonbait!


Wolframaren jabeak minerala berriro ere meategira eraman nahi zuela esan zuen Alemaniako kontsulak. Baina hori gauzatu aurretik wolframaren jabea nor zen jakin beharrea zeuden. Gero, honek baimen berezi bat jaso, guztia erabat legezkoa izan zedin.

Irakur dezakegunez, dena oso nahastuta azaltzen da. Nahasketa horren helburua aliatuei ikerketa lanak oztopatzea izaten zen.

#### PONTECESO - BALARES

Coruñan dago Ponteceso ere.

Badakigu wolframa legalki saltzen zela, baina baita legez kanpo ere, kontrabandoz. Esportazio legalak inolako arazorik gabe egiten ziren, baina dakigunez, beste tona asko isilpean atera ziren. Aliatuek jakin gabe, isilpean, kontrabandoan.



Jarduera horretarako, Balares portua oso toki estrategikoa izan zen. Adinekoek diote Balaresen alemanak egoten zirela, baita Varilongon ere. Eta beste datu interesgarri bat ere eman zidaten. Haien esanetan, nazien urpekariak uretan zeudela, bi aldiz wolframa portura garraiatu eta itsasontzietan sartu omen zuten.

Portu hori eraikitzen Pontecesoko mutil gazteak eta gizonak aritu ziren. Haien esanetan, alemanak ziren bai ingeniaria eta bai wolframa garraiatzen zuten kamioien begiraleak ere.

Wolframa, Balares portura Neme menditik, Varilongotik, Santa Combaretik ere garraiatzen zuten.

Aurretik aipatu dudan José Parga Moure dugu, hain zuzen ere, Varilongon zeuden wolfram meategi gehienen nagusia.

Novas de Galizia aldizkarian (93. zenbakian), idatzirik dago Parga Moureren meategietan 4.000 pertsonak lan egiten zutela. Horregatik zen gizon ospetsua, eta horregatik, aliatuen salaketetatik babestu beharrekoa. Geroago, 1946. urtean, FINSA egurgintza enpresa sortzeko dirua jarri zuen Pargak, eta esan beharra dago gaur egun oraindik martxan jarraitzen duela enpresa horrek.

Euskal Herria aipatu zidaten adinekoek; wolfram gehiena Euskal Herrira igortzen zutela, alegia.

Luís Giadás historiagileak dioenez, alemanen kontrolpean zegoen UNQUINOSA enpresara, hain zuzen ere.

Ponferradako Robertok ere, alemanen enpresa aipatu gabe, wolframa Euskal Herrira garraiatzen zela esan zidan.

Giadásen esanetan, *“La mina acabó con el hambre en toda la ria de Cosme y Laxe”*.

Gosea amaiarazi zuen, baina gainera, urte gutxitan irabazi asko sortu zituen. Batzuek dirutza egiten jarraitu zuten; gehienek, aldiz, ez.

Coruñaako Corme herriko Itsas Armadako Laguntzaitzak abuztuaren 23an Glenday kontsul ingelesari idatzi zion Pontecesoko aduanako ikuskatzaile bat eta emakume bat joan zitzaizkiela bertara. Helburua wolframaren kontrabandoaren berri jakitea zen. Cormeko Itsas Armadako Laguntzaitzan ez zuten ikuskatzaile haren bisitaldirik espero, eta hala esan zioten kontsulari harriduraz.

Bi pertsona horiek egindako galderen erantzuna hau izan zen: wolfram ilegalik ez zela itsasperatzen.

Esamesik ere bada “Muy reservado” jarri eta “Estado Mayor de la Armada”ra bidali zen idatzi honetan:

*“Seguidamente se despidió y sobre las 16 h. de hoy salió acompañado de una señora y del Sr. Vista de Aduanas de Puenteceso (con los cuales se me había presentado), al parecer de comer del Bar del vecino de esta localidad D. Francisco Varela, marchando en un coche con las dos citadas personas, el chófer y un Sr. de La Coruña llamado Eduardo Fernández”.*

Espainiako Atzerri Ministerioak daukan artxiboko hainbat dokumentutan ageri da bazituztela susmoak Galiziako portu txikietatik Euskal Herrira wolframa ilegalki (“sin guías”) garraiatzen zela. Adibide modura, idatzi hau:

*“Ha llegado a su conocimiento [aliatuengana alegia] que los alemanes están ofreciendo una prima de 3 ptas. por unidad de mineral de 55% de riqueza, entregado sin guías [bi hitz horiek azpimarraturik daude] en determinados lugares cercanos a la costa gallega. Al reunirse tres toneladas en cada uno de estos puntos, pagarán los alemanes la mitad del precio convenido. La otra mitad será abonada al colocarse en lotes de 20 Tns., en los pequeños puertos de la costa gallega: Malpice de Bergantinos y Laje (Coruña). Desde estos pequeños puertos y en barcos de muy poca tonelaje, será transportado este mineral a Bayona”.*

## **GALIZIA - EUSKAL HERRIKO PORTUAK**

Britainiako enbaxadatik Comeirara eskutitz bat iritsi zen. Hor, ikerketa sakona eskatzen zitzaien, itsasontzi hauek egiten zuten lanari buruz: Purificación Costas Maravillas, Manuel Gestoso Chicha, Mariani, Osasuna, Delfina, Maria Dolores (Botello alargunarena) eta Lolita Goday.

Azken hori dela-eta, bai eta Pilar izeneko itsasontzia dela-eta ere, bazekiten ziur wolfram kontrabandoa egiten zutela. Hala idatzirik dago azalduko ditudan hainbat agiritan.

Itsas Armadako Salvador Moreno ministro jaunari, “Confidencial” jar-tzen zuen eskutitz bat zela medio, Lolita Goday itsasontzia zehaztu gabeko Galiziako portu batean (Goya eta Muros aipatzen dira) atxilotu zutela jakinarazi zitzaion, bai eta itsasontzi horretako marinelak Puente Alonson atxiloturik gelditu zirela ere.

Guztia azaldu ondoren, 1944. urteko ekainaren 5eko idatzi horretan, hau eskatu zuen Atzerri Ministerioak:

*“Sería oportuno averiguar si el hecho es cierto, la procedencia del mineral y la persona o personas responsables de este intento de contrabando”.*

Handik astebetara, erantzun harrigarria jaso zen: eskatutakoaren in-guruan inongo berririk ez zutela, alegia.

Dena den, itsasontzi horrek wolframa kontrabandoz eramaten zuelako susmorik bazegoen. Coruña-ko Itsas Armadako komandanteak, informazio desberdinak jasoz, wolframaren kontrabandoa itsasontziz egiten zela azaldu zuen, eta Lolita Goday horretan aritzen zirelako susmoak ere bai. Maiatzaren 27an 2.400 pezetako isuna ordaintzeko agindua jaso zuen itsasontziak. Arrazoia ez zen wolframaren kontrabandoa, baizik eta baimena eskatu gabe portuan sartzea (*“por infringir lo ordenado en la legislación marítima al entrar en un puerto para el que no estaba despachado”*).

Isuna jartzerakoan, itsasontzia miatu zuten, baina ez zuten kontrabandorik aurkitu. Aurkitu ez, baina Itsas Armadako komandanteak zioenez, bazituzten susmoak:

*“El Ayudante de Marina de Noya, supone, sin mas fundamento que su impresión personal, que el barco entró en Noya para cargar 20 toneladas de wolfram y que si no lo cargó fué seguramente por desavenencias sobre el precio entre los intermediarios”.*

Susmoak soilik. Harrapaketak ez, nonbait.

Geroago, ekainaren 23an, itsasontziaren jarraipena eta miaketa egin zen berriro ere. Nahiz eta berriro ere kontrabandorik aurkitu ez, 500 pezetako isuna jarri zitzaion.

Oso bitxia egiten zait. Bazituzten susmoak, baina ez zuten wolframik aurkitu. Hala ere, isuna jarri zioten. Oso bitxia.

Comeirara igorritako idatzian, Pilar itsasontzia ez zen aipatzen, baina Pontevedrako aduanako Cesar Vallarino zuzendariak Madrilgo Aduaneta-ko Zuzendaritzara ekainaren 23an eskutitz bat idatzi zuen, Pilar itsasontzia La Guardia portuan matxuratuta zegoela eta legeak agintzen zuen miaketa eginez 4.000 wolfram kilo eta 500 kilo kafe topatu zituztela azalduz. Portugalgo kostaldean hartu eta Frantziako kostaldera kontrabandoan eramanez zutela ere argitu zuen.

Uztailaren 12an, Gobernazioko Ministeriokoek *“Secreto”* hitza azpimarratzen zuten idatzian berek radiotelegrafiaz jasotakoaren bertsi-  
o desberdina azaldu zuten:

*“Las Autoridades portuguesas han detenido un barco español matriculado en La Guardia (Pontevedra), con cinco mil toneladas de wolfram que llevaba para exportarlo liberalmente a Alemania”.*

Aurrekoan 4.000 kiloz ari dira, oraingoan 5.000 tonaz. Bai, berriro begiratu ditut agiriak, eta horrela diote. Nahastea? Idazterakoan interes falta? Nahita egina? Non dago gertatu zenaren egia?

Beste hainbat dokumentu miatuz, azken informazioa okerra zela dirudi.

Guztia gehiago korapilatzen da Pilar itsasontziaren jabea zein zen jakitean: Villagarcía zegoen Alemaniako kontsulordea, José Luis García Reboredo. Hau da, Alemaniako kontsulordea zen wolfram kontrabandoa-rekin harrapatutako itsasontziaren jabea.

Vigon zegoen Ameriketako Estatu Batuetako kontsulak uztailaren hasieran eskutitz bat idatzi zion Madrilgoari, hainbat gertaeraren berri azalduz. Horien artean, Pilar itsasontziaren ingurukoak, eta aldez aurretik esandakoa: 4.000 kilo wolfram kontrabandoan pasa nahi izana.

Idatzian, Reboredo jauna ere aipatzen da. Eta hau esaten da berari buruz:

*“... el Señor Reboredo es, o era, Vicecónsul honorario y ha mantenido muy estrecha asociación con toda la colonia alemana”.*

Gutziz adierazgarria! Reboredo erabat lotuta zegoen alemanekin, eta lotuta, era berean, 4.000 kilo wolfram Portugalgo kostaldean hartu eta kontrabandoan Frantziako kostaldera eramanez, berea zen Pilar itsasontzian. Eta... afera oraindik gehiago nahastu zen.

Uztailaren 5ean Britainia Handiko enbaxadako partaide zen Weston jauna Espainiako Ekonomia Politikarako Zuzendariarekin bildu zen. Bileraren akta irakurri dugu, eta guztiz mamitsua izan zela dirudi.

Besteak beste, Weston jaunak Pilar itsasontziaren inguruko berriak eta iritziak jaso nahi zituen. Baita haren jabe zen Reboredo jaunaz ere.

Westonek esan zuen bazekiela Reboredo zela Villagarcía zegoen Alemaniako kontsulatuko kontsulordea. Are gehiago, eta hau da garrantzitsuena, susmo gogorrek plazaratu zituen:

*“La Embajada [Britainia Handikoaz ari da] tiene informaciones en el sentido de que el Consul alemán en Vigo y el Sr. Reboredo forman parte de una organización para el contrabando, y espera poderlo comprobar con documentos fehacientes con el fin de que dichos señores sean expul-*

*sados del país. Esta organización de contrabando tiene ramificaciones en Portugal, donde las autoridades portuguesas están haciendo también las averiguaciones oportunas”.*

Gutziz inportantea da paragrafo hori, datu asko ematen baitu:

- Alemaniako kotsula eta Reboredo jauna wolfram kontrabandoan bat zetoze la susmatzen zuten.
- Egiatzatuz gero, Espainiatik kanporatzea eskatzen zuten.
- Kontrabandoa Portugalekin lotuta dago. Hau da, adierazten zuten Portugal-Espainia-Alemania lotuta zeudela wolframaren kontrabando sarean edo sareetan.

Hortxe dago guztiaren gakoa.

Alemanentzat hain garrantzitsua zen wolframa lortzeko, kontrabandoa egiten zen. Kontrabando horren azpiegitura goi mailako agintarien esku zegoen. Horregatik zegoen hain babesturik; horregatik zen hain zaila kontrabandoa aurkitzea; horregatik, aurkituz gero, ez zitzaion beste kontrabandoei jarritako zigorrik jartzen.

## PORTUGAL

### CASTRO LABOREIRO

Castro Laboreiro Portugalgo iparraldeko lurraldeetan dago. Melgaço herritik gertu, eta Galiziako mugatik ez oso urrun.

Autorik ez zegoenean, eremu bakarti eta isolatua zela garbi dago; hala esan zidaten bertako biztanleek ere.







Testigantzen arabera, mendi zuloetan non-nahi aurki zezaketen dioxosozko wolframa. Zain edo betaren batekin topatuz gero... hura izaten zen poza eta dirutza!

Bildutako minerala inguruko kontrabandista batek erosi ondoren, Melgaçora eramaten omen zuen, eta gero, askotan, muga edo raya isilpean pasa eta Galizia aldera.

Adineko gizon batek esan zidanez, meategi on bat egun batez ustiatuz, Melgaçon lur zati bat erosteko adina irabazten omen zuten. Asko iruditu zitzaidan, baina horrela zela ziurtatu zidan. Dirutza izugarria eskuratuko zutela eta aberatsak izango zirela aipatu nionean, ezetz



erantzun zidan, biztanle askok lehenagoko zorrak ordaintzeko erabili zutela dirua, eta beste batzuek ergelkerietan gastatu eta garaian irabazita-koak xahutu zituztela.

Dena den, eta esan behar dudan hau kurioa iruditu zitzaidan, emakumeak askoz ere zuhurragoak izan zirela diote bertakoek.

Bi emakumerekin solasean aritu nintzen, eta haien esanetan, 1941-1944 epea izan zen gehien ordaintzen zuten garaia, orduan baitzegoen wolframaren behar gehien. Meategietan gizonak aritzen ziren lanean, eta esan bezala, wolfram betaren bat aurkituz gero, dirutza lortzen zuten.

Baina emakumeak ez ziren geldi egoten. Haiek, sobera geratzen ziren wolfram pixarrak bildurik, 2-3 kiloren jabe egiten ziren. Askotan ez zioten kontrabandista nagusiari saltzen. Beste sistema bat asmatu zuten. Melgaçora joaten ziren, eta bertan urrea erosi: lepokoak, eskumuturrekoak, belarritakoak... Denak urrezkoak.

Urre saltzailereren bati bururatu zitzaion emakumeak Melgaçora joan beharrean hobe izango zela Castro Laboreirora urrearekin azaltzea, eta hala hasi ziren emakumeak herrian bertan wolframa urrearekin trukatzen.

*“Las señoras fueron más inteligentes que los hombres porque compraron los collares y luego valían una fortuna, invirtieron”, esan zidaten, gaztelania-portuges hizkeran. Baita hau ere: “Las mujeres apañaban las pequeñas partículas, limpiabanlas con agua y con esas partículas compraban cordones de oro de 5-6 vueltas”.*

Ez dago gaizki lepoko gisa, ezta?

#### PANASQUEIRA

Portugalgo Castelo Branco distrituan, Beira Baixa eremuan, Panasqueirako meategi ustiaketa erraldoia dago. Europako wolfram meategirik handiena. Gaur egun, ustiaketa industrial da.

1940 urte inguruan, portugaldarrek wolframa gehienetan aliatuei saltzen zieten. Baina alemanek diru gehiago ordaintzen bazieten, kontrabandoan Espainiara pasaturik irabazi handiagoak lortzeko aukera zuten. Hala egiten zuten. Alemanek zuzentzen zituzten SOFINDUS enpresek Espainian lortutako wolframaren inguruko merkataritza kudeatuko zuten. Aliatuek, berriz, Portugal aldekoa, Panasqueirakoa barne.



Portugalgo Quadraçaisera gerturatuz, esan zidaten inguruko herri guztietatik gauero jendetza izugarria joaten zela Salamancako Navasfrías eta inguruko herrietara mandoen laguntzaz wolframa kontrabandoan

1941,

*Contrabando de Wolfram.*

*Vagon N. 51621 Salida de Ripasa  
(Portugal) en hacia to para España,  
conteniendo Wolfram*

eramatera. Mutil gazteak, gizonezkoak eta hainbat emakume wolfram kontrabandoan aritzen ziren. *“Por la sierra, como con el café”*.

Salamanca Navasfríasen galdeturik, horrela egiten zela baieztatu zidaten. Portugaldik kontrabandoan ekarritako wolframa Navasfríaseko meategietan sartu eta gero, hurrengo egunean-edo bertako meategietan ustiatutakoa balitz bezala salduko zieten alemani. Horiek gero Bilbora igortzen zutela ziurtatzen dute lekukoek.

## **BIERZO**

### *PEÑA DO SEO*

Ponferrada aldean, paisaia menditsuan, 1918. urteaz geroztik burdin meategiak ustiatzen ziren. Vivaldi, Wagner, Villablino aldekoak, Laciakoak...

Bertakoa den Roberto Cortiñasen aitona, sorterritik alde egin, eta Ponferradan egokitu zen. Herritik patatak hartu eta Ponferradan saltzea zuen bizibide, eta lurrian lo egin behar izaten zuen. Horrek erakusten du hasieran baldintza gogorrek bizi izan zituela.

Arotza ere bazen, eta lanbide horren inguruan zeukan jakinduriari esker, mendian zenbait burdin meategi aurkitu zituen. Ondoren, bere izenean jarri zituen. Haren semeak, Robertoren aitak, meategi kontuekin jarraitu zuen, baina ez burdina ateratzen, wolframa baizik. Eta garai har-





tan, 1940. urte inguruan mineral horrek dirutza izugarria eskuratzeko aukera eman zuenez, burdingintzan baino etekin ekonomiko handiagoak lortu zituen wolframarekin arituta.

Robertoren amak, Elenak, 90 urte ditu, eta naturaltasunez eta inolako harrokeriarik gabe esan zidan baietz, senarrak wolfram meategiak zituela eta bere etxean diru asko izaten zela. Ponferradan bizi den emakume horrek jantziak Bartzelonatik ekarrazten zituela komentatu zidan. Senarrak egiten zizkion oparien inguruan ere aritu zitzaidan. Asko maite zuenez, opariak halakoak izaten zirela esan zidan, pikardiaz.

Elenaren arabera, bere senarrak Ponferradan lurrak, etxebizitzak, biltegiak... ausarki erosi zituen. Oraindik ere, nahiz eta ondasunak seme-alabei emanak izan, eta beste batzuk salduak, badago, bai, hurrengo belaunaldikoentzat!



Wolfram meategiak ikusteko asmotan, Ponferradatik abiatu-rik, mende- balderantz joan ginen. Beti ere mendiz, goranzko bidean.

Ehiztari batekin topo egin genuen, eta wolframaz galdetzean, “*mi abuelo trabajó allí. Todos más o menos trabajaban allí*” esan zigun.

Hark esandako tokitik meategien bila jarraitu genuen, betiere oinez, baina paisai-az gain ezer gutxi ikusten genuenez, bidez nahastu ginelako susmoak sortu zitzaizkigun.

Hala, mendi baten magalean sekulako eraikuntzak ikusi genituen. Eta haien gainean, meategietatik ateratako hondakinak ziruditen harriak.



Eraikin haiek hain handiak izanda, gure harridura ere berdintsua izan zen. Baina, hau zer da? Motoz zebiltzan mutil batzuk topatu genituen, eta haiek esan ziguten wolfram meategiak zirela, baita beren aitonek bertan lan egin zutela ere.

Eraikuntza handi hura etxebizitzatan banaturik zegoela eta langileak bertan bizi zirela adierazi ziguten. *“Es un poblado que cada uno tenía su casa”*.

Meategiak ustiatzen lau urte inguru aritu omen ziren. Ziotenez, *“de aquella se ganaba un buen dinero”*, eta *“de todos los pueblos”* etorri omen ziren. Hau da, aurreko ehiztariaren antzeko komentarioak.

Sekulako muntaia zegoen han. Meategi dezente ikusi genituen. Dударik gabe, bertan langile asko aritu ziren, ustiaketat.

Bizileku zen eraikuntza erraldoia ikusiz, garbi zegoen mendi galdu hartan zeuden wolfram meategiak guztiz garrantzitsuak izan zirela.

Arratsalde apala zen. Mamu herri hura atzean utzirik, Ponferradara abiatu ginen.

## **SALAMANCA - CÁCERES**

### **NAVASFRÍAS**

Gata mendilerroan dago herri hau. Portugalekin muga egiten duenez, kontrabandista ohiak bizi dira bertan.



XX. mendearen hasieratik, Mina Salmantina izenez ezaguna den zonaldean, 200 bat osin induskatu ziren wolframa eta eztainua atera-tzeko. Hogei galeria, denera.

Egindako kalkuluen arabera, toki horretan 5.000 tona mineral atera eta garbitu ondoren, tona bakoitzeko 5 kilo wolfram lortzeko aukera izan zen.

Hainbat lekukok dio XX. mendearen erdialdera 1.000 pertsona aritu zirela bertan lanean. Biztanle gutxiko herri txiki bat izateko, beraz, garbi dago han jende askok egin zuela lan. Hain zuzen ere, ia biztanle guztiak izango ziren bertako langileak.

Celso Ramos Navasfríaseko alkatearen esanetan:

*“... en estos tiempos, gran parte de la población va a compartir sus quehaceres diarios con el trabajo en la mina, siendo raro el habitante del pueblo que de una forma u otra no se relacionara con la extracción del mineral. Digo esto porque los que no trabajaban directamente en la mina se dedicaban al contrabando de mineral...”.*

Ederki! Minerala bai legalki bai kontrabandoa eginez saltzen zela dio alkateak. Nola egiten zen ere esplikatu zidaten bertakoek.

Irakasle jubilatua dugu Jesus. Salamancako Navasfrías herritxoan jaio eta bizi izan zen. Gainera, Nafarroako Arantza herrian irakasle izandakoa dugu. Hor bizi izandako hamaika pasadizo kontatu zizkidan. Besteak beste, esku pilota asko gustatzen zitziola, eta Bortzirietan esku pilotako txapelketak martxan jarri zituela.




Ba, Jesusen esanetan, ia ume, emakume eta gizon guztiek egiten zuten lan wolframaren inguruan. Haren kalkuluen arabera, 1.500-1.600 pertsona inguruk. Eta, bai, aurrez ere aipatu dugun bezala, Portugaldik Navasfríasera kontrabandoz asko ekartzen zela esan zidan.

Dirudienez, wolframa mandoz garraiatu eta Navasfríaseko meategi barruan uzten zuten.

Gero, meategiko jabeak, berea balitz bezala, gida egin eta legal modura salduko zuen. Hau da, wolframa Portugalgo meategietatik legez ateratzen zen, kontrabandoan muga pasa, eta Navasfríaseko meategietan uzten zuten. Ondoren, gida deituriko dokumentua beterik, legaltasunik eza alde batera utzirik, wolframa legeztatuta aterako zuten meategitik, alemanei saltzeko prest.

Baina agintariak ohartuak ziren gida erabilpen inguruko gezurrez, eta 1944. urteko maiatzaren 12an, aliatuen oniritziz, wolframaren garraio eta pilaketa arautu zen. Hala:

*“Toda partida de mineral, para salir del recinto de la mina o coto minero, debe ir acompañado de guía del C.O.M.E.I.M., extendida por el Director Facultativo de la explotación y visada por el Comandante del Puesto de la Guardia Civil.*



*El C.O.M.E.I.M. considera que de esta forma le es conocida exactamente toda la circulación del wolfram”.*

Idatzia 1944. urteko maiatzaren 29an sinatuta dago. Bi egun geroago, beste ohar batean, esaten zen 1942. urteko martxoaren 20an “*guías especiales*” delako baimenak sortu zirela, eta haien barruan beste “*guías cruzadas*” direlakoak zeudela, “*para uso de los intermediarios que legalmente tuvieran reconocida facultad para dedicarse como tales, al comercio de minerales declarados de interés militar*”.

Gida horiek ongi kontrolatu nahian, aurrerago doaz. Wolfram merkataritza zela eta, “*guía del intermediario*” sortu zuten:

*“A partir del día 1º de junio próximo [1944 urtea] queda suprimida la utilización de las guías especiales cruzadas con la palabra “Intermediario” en tinta roja, que para uso de industriales y comerciantes intermediarios con establecimientos o almacenes constituidos legalmente como depósitos, fueron creados por el Consejo Ordenador, entendiéndose que esta supresión se refiere exclusivamente a los depósitos en que se traficara o almacenara wolframio aun cuando a más de este mineral se reunieran en ellos otros de interés militar...”.*

Dena den, Britainia Handiko enbaxadatik Elli Reesek 1944. urteko maiatzaren 31n zera idatzi zuen:

*“La reglamentación que entra en vigor el 1º de junio suprime las “guías intermediarias” y da al Consejo Ordenador control total sobre el wolfram depositado en almacenes, que es considerablemente mayor del que necesitarán los alemanes según el Convenio. Por tanto, no debería haber necesidad de transporte alguno de wolfram desde las zonas mineras y la reciente producción a favor de Alemania, así como el traslado de este mineral, solo puede explicarse por la intención de evadir la vigilancia española para exportaciones clandestinas. Por consiguiente, parecería-me sumamente oportuno que se suprimieran todas las “guías”, y no sólo las “guías intermediarias”, y que el wolfram no se pueda trasladar de las minas o de las zonas mineras sin un permiso especial otorgado por el Consejo Ordenador para cada partida específica”.*

Reesek arrazoi du. Zertarako giden gorabeherak, une hartan wolframik ez bazen esportatuko? Akordioaren arabera, garai hartan ezin zen inolako wolframik saldu; beraz, giden beharrik ere ez zegoen.

Dakigunez, gidarik gabeko hainbat tona igorri zieten alemanei kontrabandoz. Eta noski, esportazio ilegal horretan kontrabandistek parte

hartu zuten. Kontrabandista haietako batzuk herriko gizon xumeak ziren, baina gehienak goi mailako karguak zituztenak izan ziren.

Pedro eta Maria 1940. urtearen inguruan Navasfríasen sortutako anaia-arrebak dira. Haien aitona wolframa erosten zuen, eta gero alemanei saldu. Mariak oroitzen du haurra zelarik kotxe elegante batean ibili zela: “*de unos de Madrid. Uno era del ejército*”. Sukaldari eta guzti etortzen omen ziren Navasfríasera, bertan etxe handi bat alokatzen zuten, eta aitonaekin negoziatzen ibiltzen ziren. Negozio solasaldiak egiten ziren aldi berean, hainbat gazte, Portugaldik wolframa kontrabandoan ekarrik, aitonaaren etxeko atzeko aldetik sartu, gela batean utzi, eta esku hutsik ateratzen ziren aurreko atetik.

“*Los de Madrid*” goiko solairuan aitonaekin solasean egoten zirela dio Mariak; beraz, ez gaude oso oker, madrildarrak wolfram kontrabandoa-  
ren jakitun zirela esaten baldin badugu.

Jesus irakaslearen esanetan, aitona horrek gorabeherak izan zituen. Asko argitu nahi izan ez zituen arrazoiengatik, eraso larri bat jasan zuen, eta horren ondorioz, erdi hilda aurkitu zuten. Ez omen zen sekula bere onera itzuli. Auskalo!

Dena den, wolframaren inguruan beste bi gizon ere hilda agertu zirela diote herriko lekukoek. Auskalo!

Daniel “*el de Rufina Peña*” delakoa 90 urteko agurea da. Lekuko interesgarria hori ere. Berak La Salmantina meategiaz hitz egin zidan. Bigarren Mundu Guda bukatu ondoren, wolframa ateratzen jarraitu omen zuten bertan. 1950. urte inguruan, Patxi ezizenez ezagutzen zuten euskaldunak agintzen omen zuten bertan.

Daniel gaztea zelarik, Navasfríaseko meategietako koordinatzaile antzeko lanpostua betetzen zuen. Meategietan taldeka banatuta lan eginda zientoka gizonak bertatik ateratzen zuten wolframez eta kuartzoz betetzen zituzten poltsak. Berdin gertatzen omen zen Jarama mendiko meategietan. Horko lanak Navasfríasetik gertuko Cáceresko Aceboko gizonen esku zeuden.

Baina Navasfrías-Acebo inguruetako meategietako wolframari Portugaldik kontrabandoan ekarritakoa eransten zitzaion. Eta horren lekuko zuzena Daniel dugu. Gauero ez, baina askotan etortzen omen ziren Portugaldik 100 bat zaldi wolframez kargaturik. 5.000-6.000 kilo inguru ekartzen zituztela ziurtatu zidan gizon horrek. Eta guztia berak eramaten omen zuten, Medina del Campon aleman baten agindupean zegoen biltegi

batera. Han dirua hartzen omen zuen, eta behin baino gehiagotan izan omen zen bera, Daniel, diru horrekin gero portugaldar kontrabandisten buruari ordaindu ziona. Horretarako, bi gizonak Portugalgo raya edo mugaren inguruan hitzordua egiten zuten.

Wolframa, zaldietatik, Danielek eramaten zuen kamioira pasatzen zen. Horrelakoetan ez zen meategietan uzten. Zaldi bide batetik beheratu, eta ahal zen bezain isilik kamioira sartzen zuten zuzenean. Baina badirudi noizbait iskanbilak gertatu zirela, eta alde batetik bestera pasatze hori ez zela hain modu diskretuan egin. Halakoak gertatzean, Guardia Zibila noiz agertuko zain egoten zen Daniel, denak atxilotuko zituzten beldurrez. Noski, 100 zaldi haiekin beste hainbat kontrabandista etortzen ziren, eta haiek, animaliak barne, ez ziren oso isilik ibiliko. Beraz, guardiek eta guardiñek susmoren bat izatea ez zen harriztekoa izango.

Badirudi, beldurrak beldur, Danielek ez zuela arazorik izan. Navasfríaseko lekukoek esandakoa irakurriz, eta beste batzuen pasadizoak entzunez, argi eta garbi azaltzen da wolfram kontrabando hori egiten zela.

85 urteko Domingo Navaisek dioenez, wolfram meatzea altxor izugarria izan zen. Bai. Navasfríaseko meategietako wolframa, bai eta Portugalgo meategietatik kontrabandoz ekarritakoa ere, altxorra izan zen inguruko biztanle guztientzat.

Bigarren Mundu Guduan kiloko 250 pezeta ordaintzen zen. 1940. urteko 250 pezeta gaurko 600 euro izan zitezkeela esan didate. Eta Navaisen hitzetan, *“si tenías suerte y encontrabas una veta, sacabas un kilo hasta de una patada”*.

Acebok, Portugalekin muga egiten duen herriak, badu zer esana wolfram kontrabandoari buruz. Han ere bazeuden minerala ateratzeko meategiak. Hala ere, eta aurrez esan dugunez, Salamancako Jarama mendiko meategietan lortutakoa gehitzen zitzaion, baita Portugaldik kontrabandoz ekarritakoa ere. Guztia jaso eta Euskal Herrira ekartzen zen, alemanek eraman zezaten.

Navasfríasen eta Acebon wolframaren prezioari dagokionez ez datoz bat bi herriak. Acebon diotenez, 1943. urtean kiloko 106 pezeta ordaintzen zieten.

Navasfríasekoek aldiz, 1940. urte inguruan 250 pezetan saltzen zutela diote. Nahiz eta hiru urteko aldea dagoen, prezioen diferentzia handia da. Bikoitza baino gehiago. Datuak ez datoz bat, inola ere.

Lekuko guztiek diote diru asko irabazteko aukera izan zela. Ados dau-  
de. Baina, wolfram kiloa zenbatean saltzen zuten aipatzean... batzuen eta  
besteen esanak oso desberdinak dira.

Trikimailuak ere bazituzten: *“el 39% del que venden los mineros acebanos  
es falso: se trata de moscovita, pirita o granito untado con brea y calentado en  
una lata”*. Alajaina!

Nire ustez, acebotarrek ziria sartu nahi zietela konturatuko ziren  
alemanak. Agian, horregatik, Navasfríasekoei baino gutxiago ordaintzen  
zieten. Acebokoek alemanei ziria sartu nahian, eta azkenean alderan-  
tzikoa ez ote zen izango? Hori guztia ezin izan dut ziurtatu, eta nire  
burutazioak besterik ez dira.

Lana eta dirua zirela eta, Acebora inguruko herrietako jende asko  
hurbildu omen zen. Dirua, alkohola, iskanbilak, legez kanpoko jokoak eta  
abar ohikoak zirenez, San Martín de Trevejon kokaturik zegoen guardia  
zibil taldea Acebon egon zedin erabaki zuten, iskanbilak kontrolatzeko  
aginduarekin.

#### BARRUECOPARDO

César Sánchez Noratoren ikerketen ondorioz, Barruecopardoko mea-  
tegitan wolframa lehen aldiz 1910. urtean aurkitu zela ziurtatu daiteke.

Herri horretako Juan Manuel Sánchez Mellado adineko gizonaren  
esanetan:

*“... por la guerra del catorce, por lo que yo recuerdo de niño y por lo que  
se oía entonces, ya había indicios y rumores sobre la mina. Ya se hablaba  
de unos rollos negros que eran muy pesados y que eran de mina. Los  
descubrió un alemán”*.

Aleman hura nor ote zen jakiteko ziztada nabaritu nuen, eta César  
Sanchezen amaren erantzunak aseko ninduen. Emakume hori, Dolores,  
1907. urtean jaio zen, eta haren esanetan gizon hark, alemanak alegia, ez  
zekien gaztelaniaz, ez zuen inon lanik egiten eta Barruecopardoko *“Tío  
Domingo”* ostatuan bizi zen.

Behin batean ostatuko nagusia zen Domingo, haren semea Julio eta  
alemana, behiak eta idiak belardi batera eramateko helburuarekin atera  
ziren. Animalia bategi ihes egiteko asmoa agertu bezain pron-  
to, Domingok harri bat hartu eta bota egin omen zion, taldera itzul zedin.  
Alemanak harri hura ikusi omen zuen. Esku artean hartu zuela zioen

Doloresek, eta “*en este pueblo están apedreando los bueyes con oro*” esan omen zuen. Wolframa zen.

Lehen ustiaketak, La Comercial izenarekin ezagutuak, 1912-1913an egin ziren. 92 kiloko wolfram harri bat aurkitu zutela diote: “*no podía un hombre con ella*”. Noski!

Bertako buru Jorge Rook alemana zela diote. 15-20 gizonezko osatzen zuten taldea.

1940ko hamarkadan 80 bat taldek egiten zuten lan bertan. 1.200-1.600 gizonek, gutxi gorabehera.

1982. urtera arte, wolfram kontuekin aritu zen enpresa bat osatu zen: Coto Minero Abdón Merladet. Nagusia izen bereko gizona zen. Francoren garaiko gobernuarekin eta Ingalaterrako enbaxadarekin istiluren bat izan zuen.

1944. urteko abuztuaren 4an, Hugh Ellis Rees jaunak, Ingalaterrako enbaxadako ekonomia aholkularia zenak, eskutitz bat idatzi zion Pan de Soraluce Espainiako Atzerri ministroari. Bertan honako hau irakur zitekeen:

*“I shall be grateful if you kindly arrange for an official investigation to be made into the activities of the Josefita and Luisita mines at Barrueco Pardo. These mines are controlled by Sr. Adbon Merladet...”*”.

Merladetek legez kanpo 30-50 tona wolfram saldu zituelako susmoa zuten aliatuek.

Consejo Ordenador de Minerales Especiales de Interés Militar zeritzaneko Valentin Galarza koronelari idatzi bat igorri zitzaion, gai horren inguruan ikerketa bat egin zezan:

*“Manifiesta la Embajada que unos 500 hombres han trabajado en dichas minas desde mediados de mayo durante 6 semanas y que han producido de 30 a 50 toneladas de wolfram...”*”.

Idatzi horretan, mineralaren gidak zirela eta, azkena apirilaren 30ekoa izan zela diote, eta gerora beste agiririk ez zela egin, wolframik ez zelako atera: “*como posteriormente está segura [enbaxada da ziur dagoena] de que ha salido mineral de las mismas en camiones con destino desconocido, teme que haya llegado a terceras manos de forma ilegal*”.

1944. urteko abuztuaren 11n, Valentín Galarza koronelak Politika Ekonomikorako zuzendari zen Ricardo Gómez Navarrori zera idatzi zion:

*“He recibido su carta del día 8 del actual relativo a las minas de wolfram “Josefita” y “Luisita” y parecióme muy exacto cuanto Ud. En su carta expone y muy verosímil, además, dada la categoría del personaje que cita y cuyos antecedentes conocemos. hemos encargado al Capitán Tenedor nos haga una información detallada sobre todo ello, para poder contestarle con pleno conocimiento de causa, aunque, como le digo, me parece que no van muy descaminados en sus sospechas y presunciones...”*

Wolframa legeak bete gabe meategietatik atera zelako susmoak okerrak ez zirela dirudi. Pentsa daiteke minerala modu ilegalean meategietatik atera, era ilegalean kamioiz eraman, eta alemanei saldu zietela.

Ingalaterrako enbaxadakoak lasai gera zitezen, Hugh Ellisi honako hau idatzi zioten, horren guztiaren inguruko ikerketa egingo zela esanez:

*“Como contestación a la carta que ha escrito usted al Señor Subsecretario con fecha 4 del corriente, tengo el gusto de manifestarle que, según me dice el Gerente del Consejo Ordenador de Minerales Especiales de interés militar, ha encargado a un Capitán a sus órdenes que haga una información detallada sobre las actividades de la Minas “Josefita” y “Luisita”, para que con pleno conocimiento de causa puedan exigirse las responsabilidades a que dicha investigación de lugar”.*

Zazpi egunetan harat eta honat. Kasu horretan, ikerketa egiteko eskatu eta beteko zela esan zen, baina askotan aliatuek susmoak izan eta ikerketak egitea eskatu arren, erabakiak denboran luzatuz, gaia pixkanaka ahazten zen.

Coto Abdon Merladet-en inguruan eginiko salaketa eta ikerketa agindua ez zen izan aliatuek egindako bakarra. Espainiako toki desberdinetan aurkitutako wolframa alemanei era ilegalean, kontrabandoz, sal-tzearen susmoa eta frogak askotan azalduko zituzten aliatuek.





# WOLFRAM KONTRABANDOA EUSKAL HERRIAN ZEHAR

Aliatuek, wolfram kontrabandoaren inguruan egindakoa salatuz, lan interesgarria egin zuten. Beren ikerketak espioi lanen ondorioz egin zituzten, eta lan horiei esker dakigu hemen azaltzen ari garen guztia.

Portugalgo eta Espainiako meategietan wolframa ustiatu, eta askotan kontrabandoan Euskal Herrian zehar igaro behar izaten zuten, nazien eskuetara iritsi arte.

Gure lurraldea horren lekuko izan da. Baina ezagutzen ditudan kontrabandista askori wolframaren kontrabandoari buruz galdetzean, ez dute mineral horren berri, are gutxiago horren kontrabandoaren inguruan. Ez dakite wolframa zer den, eta horrelakorik ez dutela pasa ziurtatzen didate. Gehiengo batek nik galdetzean entzun du lehenengo aldiz wolfram hitza.

Batek esan zidan bere aitak Berako menditik pasa zuela behin, eta aitak behin bakarrik hitz egin ziela horren inguruan. Solasaldi bakar horretan, aita kontrabandistak esan omen zuen dokumentu bat sinatu zuela. Hor, kontrabandoan pasako zuena zer zen sekretupean edukiko zuela zin egin omen zuen.

Beste pertsona baten esanetan, hil berri zen izebak garai batean Irundik wolframa pasa zela esplikatu omen zion. Zehaztasun gehiago jaso nahian, osabari galdetu zion, eta hark ez zuen horri buruz hitz egin nahi izan.

Gero, Irungo bi testigantza ditut. Tira, hiru. Bata, garai hartan Irungo kasinoan lan egiten zutenen alabarena, eta bestea, Irungo seme batena. Azken horrek bazituen wolfram kontrabandisten artean lagunak. Haietako baten semearengana jo nuen, baina ez zuen horren inguruan hitz egin nahi izan.

Hirugarrena ez zen wolframaren kontrabandoan zuzenean aritu, baina badu horretan aritu zirenen berri. Nicolas Aguirre, “*a mí no me quites del apellido la U porque no sería mío*” esan zidana.

Testigantza zuzenak, beraz, gutxi.

Zorionez, eta berriro ere aliatuei esker, dokumentu franko daude. Guztiak Madrilen dagoen Atzerri Ministerioko Artxiboan aurkitutakoak dira.

Agiri, eskutitz, dokumentu mamitsu horiekin aritu naiz lanean, eta bertan jaso, irakurri, aztertu, konparatu eta hausnartutakoa eskaintzen dizuet. Edozeinek eskura dezake nik esku artean edukitako materiala. Guztia R2245/9 zenbakiarekin jasota dute Madrilen.

Agiri horietako batean, wolframa Euskal Herrian zehar kontrabandoan pasa izanaren edo pasa nahian ibili izanaren laburpena agertzen da:

- Maiatzaren 5ean eta 6an Izpegi menditik 5 tona pasa ziren. Gauez, Erratzutik, 98. mugarria dagoen Bekaitz oihanetik, 15 bat gizonek kontrabandoan eraman zuten wolframa, bi alemanek zaintzen zuten kamioi batera. Kamioi horretan 5 tona wolfram zegoela diote. Erratzuko Victor Mendiburu kontrabandista omen zen taldearen buru.
- Maiatzaren 24an eta 26an, SA-3962 matrikuladun kamioia harrapatu zuten Irun-Hendaia errepidean, 20-30 tona inguru wolfram kontrabandoan zeramatzala. Kamioi horren eguneroko lana Hendaiatik Irunera gasolina garraiatzea izaten zen. Baina bi egun horietan, eta eguneko bidaia bat eginez, wolframa kontrabandoan pasa zuen.
- Maiatzaren 28an, 40-42 tona inguru zeramatzaten 5 kamioik Behobiako muga gainditu nahi izan zutenean, sekulako iskanbila sortu zen. Berriro ere Marion biltegitik jaso zuten kamioiek kontrabandoan pasa beharreko wolframa.

Gertaera horretaz aurrerago gehiago irakurtzeko aukera izango duzue.

- Ekainaren 11n Biriaturtik mendietatik 2 tona mineral pasa nahi izan zirelako susmoak izan zituzten aliatuek. Badirudi kontrabandista batzuek 87 zaku wolfram eraman zituztela mugaz muga.

- Ekainaren 13an kamioi bat Dantxaria ingurutik 2 tona pasatzeko asmotan ibili zela uste dute berriro ere, aliatuek. Kamioi hori Transportes Marion-ekoa zen. Matrikula SA-3863 zuela frogatu zen, eta 60 zaku wolfram zeramatzala ere bai. Zakuetan, esandako 2 tonak.
- Ekainaren 19ko gauean, ustez 33 tona wolfram pasa zituzten Bidasoatik harago. Azkenean ez ziren 33.000 kilo izan, 22.000 baizik. Berriro ere Irungo Marion biltegia izan zen abiapuntua. Handik kamioiz Bidasoa kaleko 14.ean zegoen beste biltegi batera eraman zuten minerala. Kamioiaren matrikula badugu: SS-8258. Handik, txalupak erabiliz, ibaiaren beste aldera pasa ziren wolfram tona guzti haiek.
- Ekainaren 29an Bidasoa zeharkatuz 30-35 tona pasa ziren. Hilabete horretako 19an wolframa kontrabandoan pasatzeaz arduratutako kontrabandista talde bera izan omen zen antolatzailea hor ere. Marion garajetik atera, eta Z-7670 matrikula zuen kamioian Renault garajeraino eraman zuten. Hortik, gero, txalupetan beste ibaiertzera. Uztailaren 1ean 15.000 kilo eta 4an beste 5 tona atera ziren kontrabandoan Marion garajetik, eta SS-8258 matrikuladun kamioian eraman zituzten Bidasoa kaleko 14.ean zegoen biltegiara; gero, berriro ere txalupaz igorri ziren helmugara.
- Uztailaren 9an kontrabandoaren aurka lan egiten zuten guardia zibilek 20.089 kilo aurkitu zituzten Behobiako baserri batean. Marion biltegitik eramanak izan ziren. Ekainaren 19an eta 29an aritutako kontrabandista berberen ardurapean zeuden.
- Uztailaren 12an “*autoridades españolas*” deiturikoez 54.836 kilo wolfram ilegal harrapatu zituzten Irungo Marion garajea.
- Uztailaren 15ean, susmoa piztu zen Saint Rafael bapore ontziak 6 tona wolfram Frantziara bidean kontrabandoan ote zeraman. Itsasontzia frantsesa zen. Wolframa Cariño portuan kargatu eta Euskal Herriko kostatik Arcachonera eraman zutela zioten aliatuek.
- Uztailaren 17an, Donostian SE-17855 matrikula zuen kamioiak garraiatutako 1.398 kilo wolfram harrapatu zituzten.

- Uztailaren 26an Portugaldik ateratako tren batek 39.510 kilo wolfram kontrabandoan Frantziako eremuetara eraman zuela uste izan zuten aliatuek. Hala izan zenik ezin izan zen frogatu.

Aurrerantzean irakurriko dugunez, kontrabando gehiago ere harra-patu zuten.

## SOFINDUS ETA MARION. LEGEZ KANPOKO LANETAN

HISMA (Hispano-Marokkanische Transport-Aktiengesellschaft) enpresa, alemanek sortu zuten 1936. urteko uztailean, eta honen helburua frankistei laguntza eskaintzea izan zen: materialak bidali, alemanei erositako produktuen gorabeherak kudeatu, hainbat guda ekintzaren antolaketaz arduratu... Guztia Johannes Bernhardt deituriko gizonak zuzentzen zuen.

Bestalde, 1936. urteko urrian ROWAK (Rohstoff-Waren-Kompensation Handelsgesellschaft) enpresa sortu zen Hermann Göring-en aginduz. Helburua Espainiak naziekin egindako zorrak nola eta zeren bidez ordaindu pentsatzea eta ondoren gauzatzea zen.

Geroago, bi enpresek bat egin zuten, eta hala sortu zen SOFINDUS. Horrek, besteak beste, lehengaiak eskuratzea zuen helburu. Lehengairik garrantzitsuena, wolframa. Eskuratu dudan informazioa azterturik, esan dezaket nire ustez naziak wolframa nola edo hala eskuratzea izan zela SOFINDUS enpresaren helburu nagusia. Eta helburu nagusi horren inguruan sortu ziren beste enpresa guztiak.

SOFINDUS hainbat enpresak osatutako holdinga zen. Hiru talde nagusi zeuden: alde batetik, nekazaritzari eta abeltzaintzari zegokiona (artile eta larruak, erretxina, artelazkiak...); bestetik, garraio-zerbitzuen inguruan aritzen zena (Marion eta Nova); eta azkenik, meategiak kudeatzen zituen (Aralarko, Irungo eta Lesakako meategiak barne).

Bernhardt-en agindupean izanik, bitartekoak espainiarrak ziren. Eta bitarteko horien artean zegoen Argillo kondea, Francoren suhiaren aita. Bai, Cristobál Martínez Bordiúren aita, hau da, Carmen Francoren senarraren aita.

Argillo wolframa ustiatzeko zuzendaritza taldeko partaidea zen. Baita kontu korrante bitxi baten bazkide ere.

Aliatuek salatu zutenez, Enrique izeneko diru kontu bat ireki zen, SOFINDUSeko diru kopuru inportante batek zeharkako bidea har zezan. Bigarren Mundu Guda bukatu ondoren, aurrez aipaturiko enpresa horiek bere egin nahi izan zituzten aliatuek. Nahiz eta Espainiako gobernuak baietz esan, oso zaila egin zitzaien eskuratzea. Enrique kontuari buruz galdetzean, Argillo kondeak eta administraria zen De la Matak, esan zuten bertan zegoen dirua alemanek eman zietela gerra bukatu baino lehen, beren enpresetan erabil zezaten. Egindako lan bikaina eskertuz diruaren zatitxo bat beraientzat zela erantsi zuten alemanek.

Aliatuen ustetan, aldiz, kontu hartan zegoen diru guztia SOFINDUSen kontu korronte paralelo bat besterik ez zen. De la Matak eta Argillo kondeak dirua jaso zuten kontu horretatik.

Carlos Collado-k (2005) idatzi honetan jaso zuen zer esan zuen Francoren arrebak, Pilar Francok, Argillo kondeari buruz eta haren semeek buruz. Interesgarria iruditu zitzaidan:

*“El marqués de Villaverde fue nombrado consejero de Obras Electrosoldadas S.A.; su hermano Andrés, conde de Morata de Jalón, fue presidente de una compañía minera; José María, barón de Gotor, está relacionado con el Banco de Madrid, del que fue presidente el conde de Argillo, padre de todos ellos...”*

*Lo cierto es que los hijos de Argillo, y que conste que excluyo al marqués de Villaverde, que me es muy simpático, se situaron económicamente pero que muy bien”.*

SOFINDUSera bueltatuz, esan beharra dago guztira 20 bat enpresa biltzen zituela. Horien artean, Marion enpresa.

SOFINDUS delakoak bazuen Hendaian bulego bat. Irungo Nicolas Aguirreren esanetan:

*“Trabajé desde algo más de los trece años de edad en una Agencia de Aduana y he solido estar con documentación relacionada con la exportación de naranjas con destino a Alemania en las oficinas hendayesas de SOFINDUS Sociedad Financiera e Industrial- que era la empresa alemana que decidía en el tráfico que tenía lugar en la estación de Hendaya. SOFINDUS estaba en el ahora numero 34 del Boulevard De Gaulle. Trataba con Herr Adreas Schwarz, medio militar, alemán, medio policía, medio técnico administrativo. Era SOFINDUS quien organizaba la reexportación del wólfram que los contrabandistas iruneses descargaban en la orilla hendayesa, muy cerca de la villa Pilar ahora transformada en*

*edificio de apartamentos y cerca del caserío Lekueder. Paradójicamente la Villa Pilar albergó durante la ocupación a la kommandatur alemana...”*

Mugaren beste aldera kontrabandoan pasaturiko wolframa Marion biltegieta gordetzen zen. Handik beste biltegi batzuetara eramane, eta gero gabarrak Hendaia garraiatzen zen. Beste modu bat zen beti ere Marion biltegieta kamioietara sartu eta gero behar zen tokira eramatea. Edo beste bat, Marion biltegieta kamioietan trenetaraino eramatea, eta Hendaia aldera edo urrutiago garraiatzea, alemanen esku uzteko.

1943. urteko ekainaren lehenengo egunean, Minerale de España S.A. enpresak Irungo Udalarari idatzi bat igorri zion, baimen bat lortzeko helburuarekin. Enpresa horren kokalekua “Avenida de Francia (Edificio Transportes Marion)” zela dio Juan Nonnast eskutitzaren sinatzaileak. Eskaera zera zen:

*“les sea concedida la debida autorización para el almacenamiento de minerales pertenecientes a la citada empresa, en la planta baja de la casa nº 6 de la calle Bidasoa de esta ciudad y cuyo propietario es d. Juan Bautista Ugarte Olaizola”.*

Eskutitza udaleko arkitektoari eta osasun inspektore zen Aureliano Gallano Bengoecheari pasatu zitzaizen, azter zezaten.

Irungo Udaleko 1943. urteko ekainaren 23ko batzarrean eskaerari baiezkota eman zioten, baina ez behin betikoa, behin-behinekoa baizik:

*“Reservandose el ayuntamiento el derecho de acordar la caducidad en cuanto estime conveniente”.*

1943. urteko ekainean, oraindik ez zegoen hurrengo urtean wolfram esportazioetan gertatuko zen murrizketaren susmorik. Hala ere, Ugarteren biltegieta wolfram zamaketa legalak eta aurrerantzean ilegalak egingo ziren. Eta aliatuek, hori jakinik, gogor jokatuko zuten.

1944. urteko maiatzaren 3an (wolframa esportatu ezin zen garaian) Ameriketako Estatu Batuetako enbaxadatik Ackerman jaunak eskutitz bat igorri zion José Pan de Soraluze Espainiako Atzerri Ministerioko idazkariordeari, esanez Marion biltegieta wolframa atera zutela eta trenetara pasaz Hendaiaraino garraiatu zutela. Zehaztasun osoz ari da Ackerman jauna. Badaki emandako pauso guztiak nolakoak izan ziren, eta, nire ustez, haserre azaltzen da berri horiek idaztean:

*“En vista de las seguridades que han sido dadas de que no tendría lugar más movimiento de wolfram de los garajes Marion de Irún sin permiso*

1964

Contrabando de Wolfram

Inspección por la Guardia  
Civil de diversas partidas  
de Wolfram en  
Irún, Behobia etc.

previo del Ministerio de Asuntos Exteriores, así como de las seguridades dadas también al sr. Ellis-rees de que informaría usted a las embajadas de cualquier salida de wolfram que se contemplara, estoy seguro se que deseará usted que se haga un informe completo de los traslados anteriormente mencionados, controlado por un estudio detallado de las existencias previamente calculadas en irún, las llegadas posteriores por ferrocarril y otros medios, y las existencias actuales en dicha localidad”.

Susmoak badaudela dirudi. Marionek kontrabandoarekin zerikusia zuelako susmoak ez ziren okerrak.

### **WOLFRAM BILTEGIAK EUSKAL HERRIAN. KONTRABANDOA EGITEN ZELAKO SUSMOAK**

Bazegoen wolframa legalki alemanei saltzerik, baina horretarako, legala izateko, kupo bat ezarri zen. Aliatuek eta Espainiako gobernuak adostutako wolfram kopuru horretatik gora alemanek jasotakoa, kontrabandoz eskuratu zuten.

Mineral biltegiak Madrilen, Salamancan, Sevillan, Coruñan, Vigon eta Euskal Herrian zeuden. Azken horietan behintzat, wolframa eta beste



mineral batzuk gordetzen ziren. Wolframari dagokionez, biltegi horietan naziei saltzeko adostutakoa baino tona gehiago gordetzen zen. Aliatuak nahastu nahian, eta horrela biltegi horietan gordetako wolframaren zenbatekoa zen ez jakiteko helburua bete nahian, biltegi batetik bestera garraiatzen zen. Hara eta hona eramatean, sarritan hainbat tona “galtzen” zen bidean. Horri guztiari buruzko susmoak zituzten aliatuek.

Errenterian, Vicente Elizegi kaleko 6 eta 8 zenbakietan, wolfram biltegi bat zegoen (“*almacen alemán en Rentería*”).



1933. urteko urriaren 23ko uholdeen ondorioak Vicente Elizegi kalean.  
Errenteriako Artxiboa.  
A051F015 argazkia

Bestalde, Mendelu inguruan Alhondiga 14ean eta Elizatxon (Irun) wolframa gordetzen zen biltegiak zeuden ere. Bada, martxoaren 2an eta 6an Errenteriako biltegitik horra 500-600 tona mineral garraiatu zela diote aliatuek. Mineral hori beruna zela esan zen, baina aliatuek susmoa zuten beruna bai, baina tartean wolframa ere garraiatu zela. Ellis Rees jaunak zioenez:

*“No puedo evitar la sospecha de que estos movimientos de mineral están hechos solamente para cubrir la salida clandestina de wolfram y que el mineral tomado del almacén de la cuesta de Mendelu de Irún era realmente Wolfram”. (1944ko apirilaren 8an)*



Irungo Artxiboa. 29106 zk.

1944. urteko apirilaren 28an Marion biltegitik kamioiz 10 tona wolfram atera eta KFH-18 bagoian sartu zituzten. Bagoi hori, gauerdian, Ferrocarriles Vascongados-ek zeramatzan beste bagoiei itsatsita, Hendaiara eramane zuten. Horretan parte hartzaileak zein izan ziren idatzita dago: Santa María makinista, José García trenetako langilea, eta Insausti jauna, “agente” zena.

Hurrengo egunean, goizeko 9etan, Marion garajetik 120 tona wolfram berriro ere kamioiz garraiatu eta zenbait tren bagoitan sartu zirela diote enbaxadakoek. Bagoien zenbakiak: YFH-4, YFH-5, YFH-16, YFH-17, YFH-21 eta YFH-22.

Gaueko hamabiak eta laurdenetan, bagoi horiek, beste bagoi batzuekin nahasturik, Ferrocarriles Vascongados-ek Hendaiara eramane zituen. Batzuek wolframa ilegalki zeramaten, baina besteetan burdina, legala, omen zegoen.

Hugh Ellis-Rees jaunak salaketa gogorra egin zuen. 1944. urteko uztailaren 19an José Pan de Soraluze-ri idatzitako eskutitz batean, Marion biltegitik 6 wolfram ateraldi ilegal egin zirela esan zion:

- Maiatzaren 28an, 42 tona.
- Ekainaren 19an, 33 tona.
- Ekainaren 29an, 30 tona.

- Uztailaren 8an, 20 tona.
- Uztailaren 1ean, 15 tona.
- Uztailaren 4an, 5 tona.

Une batean, wolframa Marion biltegitik Campanas herriko biltegitira eramatea erabaki zen. Hau zen arrazoa: Nafarroako biltegia urrunago zegoen mugatik, eta, beraz, baita nazien eskuetatik ere. Baina susmoa dago mineralaren garraiatze prozesuan berriro ere tona dezente helmugara iritsi gabe geratu zela.

Marion garajeetatik wolframa bi txandatan ateratzeko baimena jaso zen. Bata 33,49 tonakoa, eta bestea 184,7koa. Lehenengoan 220 barrika eta 8 zaku erabili ziren.

Aliatuek diotenez, ez dago tona horiek guztiak atera izanaren frogarik. Campanasera zenbat ailegatu zen jakiterik ere ez dago. Harago doaz hau esatean:

*“Nuestras indagaciones nos llevan a la conclusión de que las cantidades que realmente se manipularon fueron mayores que los totales expuestos, que el mineral que salió de Irún desapareció en el camino y que no puede justificarse en el lugar de recepción”.*

Aliatuen esanetan, minerala trenez garraiatu zen Campanasera. Bagoien zenbakiak azaltzen dituzte, baita egindako bidaia ere.

- Trenbide nagusian: FHV-14675, JFH-5534 eta JFH-21361. Bazekiten beste bagoi batean ere eraman zela, baina ez haren zenbakia. Norteko trenbideak Campanas bertan bazuen geltitzerik. Minerale de España S.A. konpainiarena zen Campanasko biltegia. Handik trenbidera 100 metro besterik ez zeuden. Trenbide nagusian 33,49 tona garraiatu ziren.
- Trenbide txikitik 13 bagoi: ELX-2, X-9, X-6, X-1, X-7, X-12, FHX-1, FHX-26, FHX-2, FHX-4, FHX-11, FHX-8 eta FHX-22. Bagoi horietan 184.717 kilo garraiatu ziren, hau da, esandako 184,7 tonak. 1.410 barrika eta 5 zaku behar izan ziren bagoietan sartzeko.

Irundik Donostiara joan, eta Plazaola linea erabiliz Iruñara iritsi zen. Trenbide horrek Campanasen ez zuen geralekurik. Iruñean gelditu eta wolframa kamioietara pasa zela diote aliatuek. Gutxi gorabehera 16 kilometro egin ondoren, Campanasen (*“donde se ha establecido por los alemanes otro almacén”*) Minerale de España S.A konpainiak zuen biltegitira erama-

terik izan zen. Baina aliatuen ikerketen arabera, zenbait bagoi Irurtzunen deskargatu ziren, Campanasera ailegatzeko 37 bat kilometro falta zirenean.

Aduanetako Zuzendaritzak, guztia esplikatzen nahian, bi zatitan egin behar izan zela esan zuten: zati bat, 60 tona, 3 bagoitan Irurtzunera eramanean zela, eta beste zatia Andoainen gelditu zela.

Nire ustez, esandakoak are gehiago nahasten du gertatutakoa. Oso arraroa dirudi guztiak. Aliatuek horrelako mugimendu aldrebesen arrazoiak kontrabandoa erraztea zela uste zuten.

Ellis Reevesek hau esan zion Pan de Soraluze jaunari:

*“No puedo evitar la sospecha de que se escogió el ferrocarril de vía estrecha con la finalidad de realizar alguna decepción. Como usted sabe, esta línea de vía estrecha va desde Pamplona hasta Aoiz, desde cuyo punto arranca una carretera de montaña solitaria que lleva al pequeño puesto fronterizo de Arnegüy a través de Roncesvalles. La línea que va desde Pamplona a Aoiz corre paralela a la carretera y hay varias estaciones en el recorrido en las que se podría hacer fácilmente un transbordo. Esto puede explicarse igualmente al ramal que llega a Sangüesa. Un vagón fué desenganchado en Andoain”.*

Aliatuen susmoen arabera, Irundik Campanasera wolframa garraiatzearen arrazoiak ez izan minerala mugatik aldendurik naziei kontrabandoan pasatzea oztopatzea, baizik eta trasladoan bertan hainbat wolframa tona desbideratzea.

*“... los libros de las dos Compañías ferroviarias en cuestión debieran ser examinados al igual que el personal de las estaciones donde pudiera haberse efectuado el transbordo...”*

*Quando se toman en consideración los detalles de este traslado a que me refiero, se ponen de relieve las sospechas que existen de evasión y espero que se controlen con especial atención las cantidades originariamente cargadas en los garages de Irún y quellas que actualmente se hallan almacenadas en Campanas”.*

Trenetako garraioaren behaketa zuzena egitea eskatu zuten, baina hainbat tona jada desagertuta zeuden.

Desagertzeko nahikoa denbora izan zen. Teorian, Irundik maiatzaren 5ean ateratu zuten wolframa, eta Campanasko biltegira 16an iritsi zen. Hamaita egun!

Aliatuek berriro ere kezka azaldu zuten:

*“...concluyentes argumentos de esta Embajada, que hacen suponer que un número considerable de barriles de wolfram trasladados de Irún a Campanas, fueron de hecho exportados clandestinamente y sustituidos en el almacén de Campanas por un número equivalente de barriles conteniendo plomo”.*

Haserrealdi horren ondoren, espainiarrek ikerketa bat egingo zutela esan zuten:

*“en el deseo de que ambos obtengan la seguridad de que sus temores sobre el posible contrabando o exportación clandestina del mineral en cuestión no resultaron confirmados”.*

Ikerketa egiteko *“inspector especial”* bat izendatu, eta Madrildik Iruñea inguruetara bidali zuten.

Eta bazegoen beldurrik. Izan ere, kontrabandoa egin zela frogatuko balitz, *“revestirían una gravedad que no puede ocultarse”*. Eta ondorioz:

*“evitar que los hechos consumados nos coloquen en una situación embarazosa en grado máximo y que me atrevería a calificar de sumamente peligrosa para los intereses de España”.* (Maiatzaren 4an. Aliatuekin akordioa sinatu eta bi egunera.)

*“Hechos consumados”* zioten. Beraz bi hitz horiekin, wolframaren desbideratzea egin zela aitortzen zen. Aliatuek ez jakitean zetzan arazoa, ez frogatzea hobe. Jakin, susmatu, susmatzen zuten; frogatzea falta zitzaien, eta horren beldur ziren espainiarrak.

Oso nabarmena izandako gertaera horren ondotik, guardia zibil pare batek Campanasko biltegian behaketa zuzenak egin zitzaala erabaki zen. Baina esandakoa: aldez aurretik hainbat tona wolfram joan zen beste bide batetik, kontrabandoan.

Errenteriako eta Irungo biltegi haietan wolframaz gain beste mineral batzuk ere bazeudela esan dugu. Susmoak zeuden azken horiekin nahasturik (berunarekin, esaterako) wolframa ateratzen zela. Eta biltegi haietan mineralez gain beste produktu batzuk ere gordetzen zirenez, uste zen wolframa horien artean ere eramaten zela kontrabandoan. Hala, Ellis Reesek Madrilgo Atzerri Ministeriokoei igorritako idatzi batean azaltzen zien larruz beteriko kamioiak biltegi haietara joan eta larruen artean wolframa eramana zutela. Ez zen zaila izango. Besteak beste, Irungo Nazioarteko Zubian ez zegoelako gauetz zaintzarik.

Idatzi horretan Rees jaunak zioenez:

*“... estos camiones debieran ser examinados cuidadosamente por autoridades aduaneras responsables y que no debiera autorizarse a ningún camión cruzar el Puente de noche”.*

Gai horretaz Gómez-Jordana ministroak Fidel Dávila COMEIMeko zuzendariari idatzi zion:

*“... durante las últimas semanas ha sido posible la entrada y salida de camiones de los almacenes sin una inspección seria del contenido de los mismos, habiendo llegado camiones con pieles que han vuelto a salir sin ser examinados y que bien podrían haber llevado camufladas debajo de las pieles cantidades importantes de mineral de wolfram”.*

Bera, Etxalar, Dantxaria, Erratzu eta Arnegiko mugetan behaketa serioa egiteko ere eskatu zuen Rees jaunak. Eta aurreko idatzi hori bukatzeko, aliatuek askotan erabili zuten mehatxu edo-eta beldurra azaldu zuen:

*“...estimo que aunque existe la mejor buena voluntad y el mejor deseo por parte del Gobierno español para que se cumpla totalmente el Acuerdo, este deseo no ha sido llevado a la práctica por las autoridades responsables en la frontera; y que al menos que la vigilancia sea muy reforzada y a ser posible reorganizada nuestro propósito común se halla en peligro de quedar frustrado”.*

Gómez-Jordana ministroak behin eta berriro eskatzen zuena, berriro ere:

*“... se cumpla totalmente el acuerdo, este deseo no ha sido llevado a la práctica por las autoridades responsables en la frontera...”.*

Paragrafoaren lehen zatia oso diplomatikoa dela deritzot. Reesek dio Espainiako gobernuak aliatuekin sinatutako akordioa betetzeko interesa zuela. Hitz horiek politikoki goxo azaltzeko idatzi zituen Reesek. Bazezkieen Gómez-Jordanaren tesiaren aldekoak zirela akordioa betetzeko prest zeuden bakarrak, ez gobernuan zeuden beste batzuk. Azken horiek naziei kontrabandoan wolframa eramanez diruaren akordioa betetzearen aldekoak ziren.

Gómez-Jordanak Dávilarari bidalitako idatziaren bukaeran, ministroak eskuz ohar bat idatzi zuen. Hitz haien bitartez hau oroitarazten du:

*“Teniendo pendientes los suministros de algodón y caucho con los Aliados y en marcha el de la gasolina, cualquier transgresión del Acuerdo en lo que se refiere al wolfram podría ser sumamente perturbador”.*

Baina hainbatentzat alferrik izan zen. Wolframaren kontrabandoak ematen zuen dirua interesgarriagoa izan zitzaizen aliatuekin sinaturiko akordioa betetzea baino.

Hori guztia pasa eta gero, uztailearen 7an, aliatuek, bere horretan jarraituz, esan zuten Irungo biltegian 800 tona wolfram zeudela, Minerales de España alemaniar enpresarenak. Baita beste 200 tona ere. Azken horiek SOMAR, Minas Reunidas eta Montes de Galicia enpresenak (alemaniar diruaz sortuak).

Salatu zuten wolframa garraiatzen zuten 68 kamioi Marionen garajera sartu zirela. Baita biltegi horretatik 100-150 tona wolfram atera eta kontrabandoan naziei pasa zitzairela ere. Marion zelatatuta ez zegoenez, sartu-irtenak erraz egiten zirela zioten aliatuek.

Britainia Handiko enbaxadak uste zuen tona horiek guztiak mugatik urrunago zegoen beste biltegi batera eraman behar zirela. Irungo eta Campanasko biltegi haiek ixtea ere proposatu zuen. Eskaera gauzatu zedin Francok baimena propio eman zuela aurkitu nuen idatzi honetan:

*“Comprendido que lo fundamental para esto es el alejamiento de los depósitos de la zona fronteriza, el Generalísimo, a quien naturalmente he informado al detalle de la situación de este asunto, me ha expresado su deseo de que se comience inmediatamente el transporte de mineral en forma que pueda quedar realizado en la semana entrante, poniendo así término al peligro constante de pasao clandestino que los emplazamientos actuales facilitan de modo tan notorio”.*

Hara! Hori irakurriz, badirudi wolframaren kontrabandoa egitearen zergatia mineral horren biltegiak muga ondoan egotea zela. Eta ez. Biltegiak beste nonbait egonda ere, berdin egingo zela iruditzen zait. Metodoa beste modu batekoa izango zen, baina kontrabandoa egin, egingo zela iruditzen zait. Diru asko zegoen-eta tartean.

Toki aldaketa horrekin, nire ustez, berriro ere kontrabandoa egiteko aitzakia aparta izan zuten. Aurreko lekualdatzean erabilitako antzeko trikimailuak asmatzeko aukera aparta.

Aliatuen ustetan, Irunen eta Campanasen bilduta zegoen wolfram guztia mugatik urrunagoko beste biltegi batera eraman behar zen; dena, guztia. Espainiako gobernu cupos oficiales zirelakoak han bertan, betiko

biltegietan, uztearen alde azaldu zen. Horren aurrean aliatuek honako hau zioten: *“la retención del wolfram en la frontera conducirá, sin duda, a nuevos intentos de exportación clandestina”*.

Aipatzen ari naizen azken idatzi horren bukaeran, berriro ere aliatuen kekek azaltzen dira. Zenbatgarrena ote?:

*“Como conclusión, esta Embajada desea hacer constar su convencimiento de que las medidas de control que han sido adoptadas hasta el momento actual, han demostrado ser ineficaces... La Embajada espera que se tomen inmediatamente las medidas oportunas para fortalecer y reconstruir los medios de control existentes en donde proceda, con el objeto de suprimir totalmente este tráfico ilícito”*.

Tira, wolframaren lekualdaketarako plana aurrera zihoan. Abuztuaren 2an Arsensio Martínez Camposek COMEIMera idatzi bat igorri zuen, azken albisteak emanez: Uztailaren 27an eta 31n, 23 bagoitan 206.359,600 kilo wolfram ailegatu ziren.

Idatzi zuen egunean hau da, abuztuaren 2an, berriz, 20 bagoiren zain zeuden:

*“Y a este ritmo acelerado se continuará el traslado del depósito de Irún que acabará en esta semana dando seguidamente principio al traslado del mineral depositado en Campanas (Navarra)”*.

Bagoiak prezintaturik zetozen. Hala omen. Baita zelatatuta ere. Omen. Horrela egingo zelako bermeak bazeuden:

*“... garantizar que durante el transporte la integridad de las expediciones es perfecta, no cabiendo como antes se indica sustracción ni mixtificación de la mercancía transportada ni en una mínima parte. Y ello desde los depósitos de la frontera hasta el depósito de Madrid”*.

Hala gertatu ote zen? Irakurritakoak irakurrita, zalantza sortzen al da?

Nire zalantzak Estatu Batuetako enbaxadatik igorritako gutun batek argitu zituen. Argitzeaz gain, horren bidez ziurtatu ahal izan nuen honako hau: nahiz eta Irun eta Campanasko biltegietatik wolframa legalki Madrilera eramane behar zela agindu, hainbat tona berriro ere bidean desagertu ziren; kontrabandoa egin zen. Hala, enbaxada horrek zioen uztailaren 15ean Guardia Zibilak SE-17855 matrikuladun kamioi bat gelditu zuela Donostian. Kamioiak Verinen jasotako 1.300 kilo wolfram zeramatzan. Txoferrak azaldutakoaren arabera, Verindik Iruñearako bidea egin behar zuen. Baina Campanasko biltegia itxita zegoenez, hau da, bil-



tegi horretatik Madrilera eramateko agindua martxan jarrita zegoela jakinik, esan daiteke gida horrek ez duela zentzurik. Are gutxiago Verin-Iruñea bidea egiteko Donostiatik pasatzea alferrik zela jakinik.

Horregatik zioten gutunean: “... parece deducirse se trata de un intento de contrabando...”.

Baina guztia gehiago korapilatu zen, zeren eta ikerketan, kamioia Iruñeara ez, baizik eta Irunera zihoala esan zen. Beraz, Donostiatik pasatzearen arrazoia Irunera iristea omen zen. Ahal zen neurrian gertaerak zuritu nahian, nahasketaren nahasketa.

Gertaerak gehiago argitzearren, hona hemen zehazkiago:

Uztailaren 14an, Donostiako Benta Berrin, eguerdiko ordu bata alde-ra, Daniel Fernández Fernández brigadak eta Felix Pino Vicente guardia zibilak, beren lana betez ohiko zerbitzua egiten ari zirela, Ford kamioi bat gelditu zuten. Gidaria Juan Maria de Oztueta y Arana zen, eta laguntzaillea, berriz, Antonio Sedón García. Garraiatzen zutena... 1.378 kilo wolfram, 35 zakutan banatuta. Nahiz eta gertaerak salatzen zituen gutunean Verineko gida zuela idatzi zen, gero gida hori Ourenseko Oimbrakoa zela esan zuten. Gidaren zenbakia A.-276.009 zen, eta bertan irakur daitekeenez:

*“Expedida en España. Oimbra el 11 de julio del actual, extraído en la mina “Concepción” y remite D.S. Somar S.A. con destino a “Minerales de España” Irún”.*

20.709 zenbakia zuen COMEIMeko gida ere bazeukaten; beraz, guztia erabat legala zela zirudien. Agintariek gida legalak eskuratu zizkieten kamioi gidariei.

Baina kontuan hartu behar dugu, hain zuzen ere, kamioia gelditu zutenean, uztailaren 14an, Irungo wolfram biltegia erabat itxita zegoela, legalki behintzat. Bertako wolframa Madrilera eramatea aginduta zegoen, are gehiago wolfram gehiago ez bertaratzea (“*En vista de las órdenes y disposiciones vigentes sobre minerales determinados y toda vez que el depósito de Irún a que viene consignada esta partida, se halla suprimido por recientes disposiciones...*”).

Esandako bi gida horiez gain, txoferrak beste agiri bat erakutsi zuen; horretan, “137ª Comandancia de la Guardia Civil de Costas y Fronteras” jartzen zuen, eta azpian Manuel Casado Fernández komandantearen sinadura zeraman.

Hau da, Oztueta eta Sedon kamioilariak bi gida guztiz legalak eta agiri ofizial bat zeukaten, baina zeramaten karga ez zen legala. Nola, ba, eskuratu zituzten mineral gida legalak, wolframa uzteko legala ez zen biltegi batera eramateko?

Berriro ere, ziurtatuta geratzen dira goi mailako agintarien trikimailuak.

Nor ziren Oztueta eta Sedon? Lehenengoa, 40 urteko bilbotarra. Ezkonduta zegoen eta Verinen bizi zen. SOMAR S.A.-ko langilea zen. 1942. urteko azaroaren 30ean Getxon egindako 000.635 NANA erakutsi zien guardiei.

Sedonek esan zuen 31 urte zituela eta Pontevedrako Mondarizekoa zela; ezkonduta zegoela eta Oztuetaren enpresa berean lan egiten zuela. NANA eskatu zitzaionean, kasualitatez edo, kartera lau egun lehenago lapurto ziotela esan zuen.

Azkenean, akta egin eta sinatu ondoren:

*“...acordó levantar la presente acta que se remite al lltmo. Señor Delegado de Hacienda de esta provincia, a cuya disposición quedan los presuntos inculpados y camión indicado y el mineral depositado en la Administración de Aduanas de esta ciudad (San Sebastián)...”.*

Campanasera bueltatuz, gertaera horiek tarteko, abuztuaren 26an

Martínez jaunak hau idatzi zion COMEIMI:

*“...ha terminado el traslado de mineral de Wolframio desde los depósitos de Minerales de España S.A, en Campanas (Navarra), hasta los almacenes de la misma entidad en esta capital”.*

Eramandako kopurua, 387.473 kilo.

Kopuruak, ordea, ez datoz beti bat. Hau da, aliatuek eta espainiarrek azaltzen dituzten kopuruak agiri batetik bestera desberdinak dira, eta batuketak egitean ez datoz bat askotan.

Argi dagoena zera da: wolframaren kontrabandoa guztiz interesgarria suertatu zen. Alemanek behar zuten, eta eskatzen zitzaaien dirua ordaintzeko prest zeuden. Garaiko gobernuak hori bultzatu zuen, bertan zeuden hainbat agintariri ongi zetorkion eta.

## KAMIOIZ ETA GABARRAZ BIDASOA ZEHARKATUZ

Bidasoa ibaia kontrabandoaren lekuko dugu. Historian zehar, lanbide horren protagonista isila izan da.

Wolframaren esportazioa debekatu zenean, minerala askotan Irungo Marion biltegitik atera eta Bidasoa zeharkatuz pasatzen zen beste aldera, alemanek eskuratu zezaten. Eta eginkizun horretan Bidasoa eta bertako inguruak ongi ezagutzen zituztenek parte hartu zutela azaltzen da Mardilgo Atzerri Ministerioako Artxiboetan, R2245/9 zenbakiaz ezagutzen diren agirietan.

Hala, uztailaren 1ean eta 4an SS-8258 matrikuladun kamioian wolframa garraiatu omen zen. Kamioiaren jabea Domingo Ugarte zela zioten aliatuek, eta Marioneko biltegietatik Ugarteren etxera, Bidasoa kaleko



Irungo Artxiboa. 38274 zb.

14.era, garraiatu zuela Domingok berak. Etxe horretatik, gero, ibaiaz beste aldera eraman zuten, gabarraz.

Bestalde, LO-2071 zenbakia zuen kamioi batek Behobiako etxe batera 20 tona eraman zuela diote. Baina azken karga hori harrapatu egin zuteenez, konfiskaturik gelditu zen. Ez, ordea, beste 83 tona. Horiek beste aldera pasatu ahal izan zituzten kontrabandistek.

Beste agiri batean, ekainaren 29an pasaturiko wolframaz zehaztasun gehiago ageri da: goizeko 7etan hasi eta 10ak bitarteko lana izan omen zen. Erabilitako kamioiaren matrikula Z-7670 zen, eta zama Marionetik Bidasoa kaleko Renault garajera eraman zuten.

Aliatuek bazekiten kontrabandista talde bat horrelakoetan aritzen zela, eta haien izenak salatu zituzten, oso helburu zehatz batekin:

*“Espero que se darán instrucciones para detener e interrogar cuidadosamente a todas estas personas, especialmente Sebastián Galarza, que parece ser el enlace con los alemanes”.*

Ikus dezagun, bada, aliatuen informazioen arabera nor ziren wolfram kontrabandista horiek:

- Sebastián Galarza. Marion garraiobideen administraria. Aliatuen esanetan, hura zen alemanen izenean sare guztia antolatzen zuena.
- Domingo Ugarte. Bidasoa kaleko biltegiaren jabea. Bertan wolframa gordetzen zuen, gero gabarretara pasa eta Hendaia-rra garraiatzeko. Aurrez esan dugunez, harena zen SS-8258 matrikuladun kamioia, eta harekin eramaten zuen wolframa alde batetik bestera.
- Fermín Semper
- Andrés Camio
- Francisco Cerezal. Marioneko langilea. Kamioiak wolframez kargatzen eta gero gabarretan garraiatzen laguntzen zuela zioten aliatuek.
- Alfonso Salazar, Ascencio Aguirreche eta Hondarribiko Miguel. Marion garajeko langileak ziren. Zakuak wolframez bete eta kamioietan sartzen zituzten.

Beste aldera, Hendaia aldera, wolframa pasatzen zutenen artean hauexek aipatu zituzten aliatuek:

- Moncho Gil. Irungo Falangeko bulegoaren burua.
- Ramonchín de Tomás. Irungo Udaleko langilea.
- Francisco Rodríguez. Donostiakoa zela diote, besterik ez.
- Matías delakoa. Arocena alargunaren txoferra.
- Martín Casagne. Polizia.
- Leandro Cope. Irungo kasinoko atezaina.

Cope hori abizena izango zela uste nuen, baina dirudienez, Leandro, Kote ezizenez ezagutua zen, eta Cope hitzarekin nahastuz horrela utzi zioten dokumentuan. Irungo kasinoko atezaina izan zela jakinik, informazio gehiago lortu nahi izan nuen, eta hara non haren alaba Marina Goyenetxearekin solas egitea lortu nuen. Emakume hori 1930ean jaio zenez, garai hartan 14 urte zituen.

Haren esanetan, aita, ama eta senideak gerra hasi eta Hendaiara joan ziren ihesean. Handik Alacantera jo zuten, familiako kide batzuen babesera. 1940. urte inguruan, Irunera itzultzean, aitari, Leandrori, nahiko kosta zitzaion lana aurkitzea, rojotzat baitzeukaten. Azkenik, kasinoa eta ikatz biltegia alokatu zituen, eta horretan hasi zen.

Marina, alaba, kasinoan lanean aritzen zen, eta kontrabandoaren inguruko zurrumurruak entzuten zituen. Kartetan jokatzera joaten ziren Irungo kontrabandista haiek. Lanik ez zutela egiten eta dirua nondik ateratzen zuten ez zekiela zioen Marinak. Baina karta jokoan dirutza jokatzen zutela bai.

Aita ezkertiarra izanik, atxilotu zutenean kontrabandoa leporatu ziotela esan zuen alabak, baina ez zuela horrelakorik egin. Beste dokumentuetan, Leandrori buruz ez da beste ezer aipatzen.

Hara hor, bada, beste bertsio bat.

Irungo beste lekuko gutxi batzuekin horretaz hitz egiten saiatu naiz, baina ezezkoa jaso dut.

Ekainaren 19an Marion garajetik Ugarteren etxeraino wolfram garraioa gertatu zela esan dugu. Beste agiri batean, horri buruz zehaztasun gehiago azaltzen da idatzita: nola egin zen, eta nork parte hartu zuten ere bai.

Aliatuek zituzten informazioen arabera, Domingo Ugartek ekainaren 19an Marion garajetik arratsaldeko zazpiak inguruan 33 tona wolfram garraiatu zituen bere kamioian, Bidasoa kaleko 14.ean zuen biltegiraino.

Kamioiaren matrikula aurrez esan duguna zela diote dokumentu horretan ere.

33 tonak ez ziren bidaia bakar batean eramaten. Lehenengo bidaian, 4 tona garraiatu zituen Domingok, eta beste sei bidaietan, beste 29 tonak.

Aliatuen informazioaren arabera, Marion garajearen wolfram zama kargatu, Bidasoa kaleko biltegira joan, deskargatu, Marionera itzuli eta berriro gauza bera egiteko 15-20 minutu behar izan zituen bidaia baikoitzean.

Ugarteren biltegiaren atzealdea Bidasoa ibaiaren parean zegoela zioten. Hala, gauzez gabarretan wolframa sartu eta beste alderaino eramaten zuten. Azken garraio horren arduraduna Andrés Camio zela zioten: “*contrabandista profesional*”. Beste parte hartzaileen izenak ere aipatu zituzten:

- Fermín Lecuona: Irungo Udaleko arielak jasotzen zituena. Solves ardoteagian lan egiten zuen bat, izengoitik Kuku. Beste agiri batean haren izena Manuel Mikelajauregui zela irakurri nuen.
- Lasa. Irungo basozaina.
- Ugarteren beraren koinata eta semea.

Wolfram kontrabandoan parte hartu zutenen artean, oso profil desberdinetako pertsonak zeuden: Marioneko langileak, Falangeko bulegoaren burua, polizia bat, Irungo Udaleko langilea, txoferra, kasinoko langilea, siseroa, basozaina, denda bateko langilea...

Britainia Handiko enbaxadako Weston jaunak idatzi bat igorri zion José Pan de Soroluceri, esanez Bidasoa zeharkatuz wolframa ilegalki Hendaiara eramaten zelako susmoa zutela.

*“Desde hace tiempo hemos sospechado que se contrabandea wolfram en lanchas que atravesaban el Bidasoa..”.*

Bai, Bidasoatik hara wolfram kontrabandoa egin... egiten zen. Eta aipaturiko kontrabandista horiek horretan ari zirela harrapatu zituzten.

Itsas Komandantziak idatzitako gutun batean orriaren gaineko aldean “*Muy Secreto*” jartzen du. Bertan azaltzen da Bidasoa aldean wolframaren kontrabandoan ari ziren pertsona batzuk atxilotu zituztela eta deklarazioa egiteko eskatu zitzaizela. Hala:

- Domingo Ugartek hasiera batean (1944-07-14) esan zuen ez zuela horrelakotan parte hartu. Gero, 19an, esan zuen Fermín Semperrek, Camiok eta Lasak mineral pixka bat beste aldera

eramateko proposatu ziotela. Gabarran sartu, baina urperatu egin zenez, azkar deskargatu eta etxera joan omen zen, norbaitek ikusiko ote zuen beldurrez. Aitortu zuen ez zuela sosik jaso eta ez zekiela nor aritu zen zamalanetan.

- Andrés Camiok, hasieran, zurrumuruak entzunak zituela besterik ez zuen esan. Gero, uztailearen 19an, jakinarazi zuen Fermín Semperrek 20.000 pezeta eman zizkiola ekainaren 28 inguruan 15 tona mineral beste aldera pasatzeko gastuak ordaintzeko. Camiok jarraitu zuen esanez lan horietan berak ez zuela zuzenean parte hartu, eta 28an bertan, Fermín Semperrek goizaldeko laurak inguruan lana bukatu zela esan ziola, horrela berak (Andrések) langileei 1.000 pezeta ordaindu ahal izateko. Camioren hitzetan, ezin zuen esan nor ziren langileak, gaua iluna zenez ez baitzituen ikusi! Era berean, esan zuen berak ez zuela dirurik jaso eta ezin zuela kalkulatu zenbat mineral pasa zen.
- Manuel Mikelajauregui. Kuku izengoitiaz ezaguna. Hasieratik esan zuen berak ez zuela wolfram kontrabandoarekin zerikusirik. Hurrengo deklarazioetan berdin esaten jarraitu zuen.
- Juan Lasa. Baietz esan zuen, wolframa beste aldera pasa zela entzun zuela. Gero, bera ere horretan aritu zela aitortu zuen, eta Camio, Lasa, Ugarte eta Mikelajauregui lan horretan aritu zirela ere bai. Goizeko ordu bietan hasi omen ziren, eta handik ordu erdira Semper iritsi zela eta guztia bukatu arte bertan izan zela. Semperrek 1.000 pezeta eman omen zizkion, eta ez 70.000 (norbaitek hala esango zuen, nonbait). Camiok beste 1.000 jaso omen zituen, baina ez omen zekien zenbatekoa izan zen Ugarteren partea. Lasak eta Mikelajaureguik 50na pezeta hartu zutela azaldu zuen.
- Jose Joaquin Ugarte. Domingoren anaia dugu. Adierazi zuen berak ez zuela kontrabandoan parte hartu.

Horraingo pertsona haien azalpenak. Baina, nor ziren? Zein zen haien eguneroko bizitza?

Dokumentu honi esker, wolfram kontrabandistatzat jotzen ziren pertsona hauei buruz zerbait gehiago jakin dezakegu:

- Domingo Ugarte. 50 urte, ezkondua, industrialaria (legarra eta hondarra Bidasoatik ateratzen aritzen zen). Herriko jendeak

kontrabandoan aritzen zela esaten omen zuen. *“Buena conducta, ideales políticos de derechas, posición desahogada, le ayudan sus tres hijos de 21, 19 y 16 años”*. Zaharrena Bilbon soldaduska egiten zebilen. Hirurak ezkongabeak ziren, eta *“observan buena conducta, habitan con su padre a quien ayudan en sus faenas de contrabando, desconociéndose filiación política”*.

- Andrés Camio. 40 urte, ezkondua. Bidasoatik legarra eta hondarra ateratzen zuela diote. Beraz, badirudi Ugarteren langilea zela. Baina udaleko langilea zela idatzi zuten. *“Buena conducta, de derechas, prestó servicio como Requeté, considerado como contrabandista, ignorándose si ha sido sancionado alguna vez por este motivo”*.
- Manuel Mikelajauregui. 33 urtekoa, ezkondua. *“Escasa inteligencia”* zuela jartzen du. Bestalde: *“buena conducta, de derechas, preso por los rojos en Guadalupe, tomó parte activa como voluntario y Requeté en la guerra de Liberación, considerado como contrabandista, ignorándose si ha sido o no sancionado alguna vez por este motivo”*.
- Juan Lasa. 35 urte, ezkondua. *“de derechas, bien conceptuado, fue empleado provisional de la Diputación Provincial, voluntario Requeté, actualmente empleado municipal, conceptuado como contrabandista, ignorándose si ha sido o no sancionado alguna vez por esta causa”*.

Deigarria egiten zait pertsona horiek atxilotu eta haien inguruan ikertu zuten arren, inork ez jakitea ea aldez aurretik kontrabandoan aritzeagatik zigorrik jaso zuten. Nire ustez, ez zuten ezer egin datu hori ziurtatu edo ezeztatzeko. Ez zen zaila izango zegokien agintariei txostenen bat eskatzea bakoitzari buruz, informazio garrantzitsu hori jakiteko. *“Buena conducta, de derechas, bien conceptuado...”* azpimarratzen interes handiagoa jarri zen, eta ez kontrabandista izateagatik delitua eginez zigorren bat jaso ote zuten jakiten.

1944. urteko uztailaren 22an, Gipuzkoako Itsas Komandantziak Armadako almiranteari gertatutakoaren laburpen bat igorri zion. Jorge Espinosa de los Monteros jauna zen Itsas Armadako komandantea, eta haren idatziak zioenez, Lauten Barker alemanak zenbait tona wolfram ekarri zuen Irunera. Haren asmoa minerala Frantzia aldera pasatzea zenez, Irungo aduanako langile zen Fermín Semperrekin elkarrizketatu zen.



Adostu zuten azken horrek wolframa beste aldera pasatzeko guztia antolatuko zuela, 180.000 pezetaren truke.

Juan Lasa Aizpuruak 1.000 pezeta jaso zituen Fermínengandik, eta Andrés Camio Arbelaizek 20.000. Garai hartan dirutza zen. 20.000 pezeta haiekin, beste kontrabandista batzuei ordaindu behar zien.

Laburpen horretan Espinosa Itsas Armadako komandanteak zioenez, Fermín Semperrek 70.000 pezeta eman zizkion Domingo Ugarte Ginzari, baina Domingoren arabera, ez zituen 70.000 pezeta jaso, 1.000 baizik.

Manuel Mikelajauregui Bengoecheak bere deklarazioetan esan zuen ez zuela inolaz ere kontrabando horretan parte hartu, baina beste kontrabandistek bestelakoa azaldu zuten. Manuelek 1.000 pezeta jaso zituela ere bai.

Domingoren anaia Jose Joaquin Ugarte aipatzen da laburpenean.

Hark ere 1.000 pezeta eskuratu zituela aipatzen da.

Hori guztia kontrabandistek buruzkoa da, baina gertatutakoaz harago doa idatzia, eta Irungo karabineroek Behobia auzoan zenbait tona wolfram biltegi batean aurkitu zutela idatzi zuen Itsas Armadako komandanteak. Kamioneta baten txoferrak wolframa garraiatu zuen Irungo biltegi batetik Behobiako beste biltegi horretara. Salaketan ez da txoferraren izena azaltzen. Dirudenez, Irungo biltegiko jabea zen, eta biltegia berak beste zerbaiteko behar zuelako garraiatu zuen minerala Behobiako biltegiara. Horretan ari zela harrapatu eta atxilotu zuten.

Aipatzen diren kontrabandista guztiei buruz: *“se encuentran detenidos y a disposición de este Juzgado en la carcel de Ondarreta de esta capital...”*.

Aurrez aipaturiko Nicolas Ugarte irundarrak bazuen horren guztia-  
ren berri:

*“La mayor parte de los contrabandistas iruneses que intervinieron en el tráfico del volframio estuvieron en la prisión de Ondarreta pero por poco tiempo. Fue una operación fraguada en las alturas para demostrar a los aliados que el gobierno español se mostraba intolerante ante cualquier acción que perjudicara a los aliados. Otra cosa es que éstos se tragaran el embeleco...”*

Oso ongi adierazten du Nicolasek bizi izandakoa.

Gipuzkoako Itsas Armadako komandanteak kontu hura nolabait arindu nahi izan zuen. Hau da, garrantzia kentzeko asmotan edo, kontraban-

doan pasatu ziren wolfram kopuruak gehiegizkoak zirela zioen, “*como siempre sucede en estos casos*”.

Ez zait iruditzen benetan izandako kopuruak baino gehiago salatu zituztenik. Besteak beste, kontrabandistek pasatutako kiloak eta jasotako dirua benetan izandakoa baino gutxiago aitortzea komeni zitzaielako. Kontrabandistak ez ziren hasiko, bere buruaren aurka joanez, kopuruak benetan izandakoak baino gehiago izan zirela aitortzen, alderantziz baik. Beraz, Jorge Espinosak “*puede afirmarse que en la denuncia que contiene el Memorandum hay mucho de cierto si bien se exageran cifras como siempre sucede en estos casos*” idaztean, wolfram kontrabandistak babesten ari zela iruditzen zait.

Laburpenaren bukaeran, kontrabandoa egitearen zergatia azaltzen du komandanteak:

*“El caso es típico de contrabando al que se presta el wolframio por el precio elevadísimo que ha adquirido por la puja descarada que desde hace años vienen sosteniendo en España ambos bandos beligerantes para quedarse con el wolframio nacional -en 1940 su precio en España era de unas 4,00 pts. kilogramo y en 1943 se pagaba a 342 pts. kilogramo-. La mayor parte de las personas citadas en el Memorandum están consideradas como contrabandistas profesionales y dada la información recibida sobre cantidades entregadas y cotización aproximada de 8 a 10 pesetas por paso de cada kilogramo de wolframio, parece cierto que la cantidad pasada de contrabando no rebasa la cifra de 20 tons”.*

Bai, zergatia ekonomikoa zen. Diru asko irabazten zen wolfram kontrabandoa eginez. Aipatzen diren kontrabandistek beren diru zatia jaso zuten, baina bidean, zatirik potoloena beste batzuek eskuratu zuten. Kontuan hartu behar da Bidasoaz beste aldera minerala pasatzea azken urratsa zela. Wolframa Galizia, Extremadura, Portugal aldeko meategietatik zetorrenez, bide luze horretan zeuden bitartekoez, goi mailako lanbidea edo kargua zutenek, diru ugari eskuratu zuten.

Aurrez azterturiko laburpen hartan, txofer bat Irungo biltegitik Behobiako beste batera wolframa zeramala harrapatu zutela esan dugu. Bada, Gustavo Navarrok, Aduanetako zuzendariak, uztailaren 10ean eskutitz bat idatzi zion horretaz José Pan de Soraluze Espainiako Atzerri Ministerioko idazkariordeari.

Bertan, Behobiako etxe batean wolframa aurkitu zela esaten da. Aurkikuntza hori ez zuten egin ez guardia zibilek, ez aduanako funtzionarioek ez Espainiako beste agintari batzuek. Ez. Salaketa Brandley jaunak,

aliatuak, egin zuen. Gizon hori aduanako administrariaren etxera joan zen, guardia zibilen teniente koronelarengana ere bai, eta Marionen biltegiak aztertzeko eskatu zuen. Aliatuak egindako deklarazioan esaten da Marionetik 432 zaku wolfram eraman zirela, Behobian “*hacia Navarra*” zegoen etxeko biltegi batera. Guztira, 50 kilo wolfram.

Garraio hartan, aurretik aipatutako izenik gabeko txoferra harrapatu zuten.

Baina, esandakoa: aliatuak konturatu ziren Behobiako etxe edo biltegi horretan wolfram ilegala zegoela, bai eta kontrabandoa saihesteko zer nolako bitartekoak zeuden ere. Eta aliatuek bultzatu zuten bai kontrolak eta bai atxiloketak egitea. Bultzadaren bultzadaz... azkenean espainiar agintarien erabakia iritsi zen:

*“La Dirección general en esta conferencia telefónica da órdenes claras y precisas al Administrador de la Aduana para que se proceda inmediatamente a autorizar el recuento, así como para interesar el establecimiento de la vigilancia constante y permanente por fuerzas de la Guardia Civil en el Depósito MARION. Igualmente se le ordena que proceda a adoptar cuantas disposiciones tiendan a facilitar y asegurar el exacto cumplimiento por parte de la Aduana de cuantas obligaciones sean inherentes a la vigilancia fiscal, interés que debe quedar en todo momento bien patente”.*

Tira, paragrafoa oso zinikoa dela iruditzen zait. Hori bakarrik irakurrita, badirudi Espainiako gobernuak bitarteko jartzen zituen agintarien bidez ahaleginak egiten zituela wolframa Espainiatik ilegalki ez ateratzeko. Eta errealitatea guztiz bestelakoa zen.

Kasu zehatz horretan Behobiakoan, alegia, Brandley jauna pertsonalki joan zen, uztailaren 9an, igandea, goizeko ordu batean, Irungo aduanetako buruaren etxera. Hala hasi zen Behobiako etxe horretan gordetzen zenaren miaketa. Aliatuek bortxatzen zutenean besterik ez zen aztertzen zuzenean wolframaren inguruan zer gertatzen zen. Eta espainiarrek ongi aski zekiten mineral horren kontrabandoaren ingurukoa. Baina ez zegoen “*interés que debe quedar en todo momento bien patente*” delakoa, ez behintzat Cancellor ministroaren inguruan zeudenen aldetik. Bai, aldiz, aliatuekin sinaturiko konpromisoa betetzearen alde zeudenen aldetik.

Bidasoa aldera bueltatuz, Hondarribiko Bidasoako Itsas Armadako komandanteak eta fragatako kapitain zen Manuel Calderón jaunak, beren karguei zegokien ardura zela-eta, txosten bat idatzi zuten.

Lehenengoaren esanetan, ikerketa bat egin zuen, eta horretarako *“Me dirijí para informarme a los elementos eternamente contrabandistas de sobra conocidos en este pueblo de Fuenterrabía”*.

Jakin zuenaren arabera, Hondarribitik ez zen inolako wolfram kontrabandorik egin. Bai, aldiz, Nafarroako mendietatik, Behobiako mugatik eta Faisan uhartearen ingurutik.

Tira, Hondarribiko kontrabandistek ez zioten esango beren eremutik kontrabandoa egiten zenik. Normala da. Kontrabandista horiek beste eremu batzuetara desbideratu nahiko zuten kontrabandoaren gaia, ez beren eskualdera. Normala da. Zer esango zioten, bada, Itsas Armadako komandante jaunari? Baietz, Hondarribiko inguruetatik wolframa ilegalki pasatzen zela beste aldera? Eta zer gehiago? Berek *“los elementos eternamente contrabandistas de sobra conocidos en este pueblo de Fuenterrabía”* pasatzen zutela wolframa isilpean? Bada, ez, noski!

Hala ere, Hondarribiko Itsas Armadako komandanteak idatzi horretan zioen, lasaitasuna eman nahian edo, gau eta egun itsasontzi bat edo bi aritzen zirela arretaz miaketa lanetan. Miaketa lan horiek arrantzari zegozkionak ziren, baita *“las cosas anormales que en personas y embarcaciones cruzan por el río”* ere. Noski, wolframa Bidasoatik garraiatzea guztiz ezohikoa izan beharko zuen. Baina, dirudienez, ohikoa izan zen wolframa Bidasoatik, baita Hondarribitik ere, garraiatzea.

Calderón jaunak zirrikitu bat zabaltzen du, hala egiten zela susmatzeko:

*“... como quiera que dicen que el wolfram se parece mucho a la tierra y constantemente cruzan por el río barcazas con arena para la reconstrucción de Irún y para las camas de los establos de los caseríos, no es extraño hayan podido pasar desapercibidas barcazas con wolfram oculto entre la arena, ni que haya parecido anormal a la vigilancia el ver a algún camión atracado al desembarcadero de arena”*.

Hitz horien bitartez, Itsas Armadako komandanteak ederki argitzen digu nola eramaten zen wolframa kontrabandoan Hondarribitik. Haren esanetan, agian, bazitekeen... wolframa lurra zelakoan garraiatzea, eta horregatik ustekabean kontrabandoa egitea...!

Bai zera! Wolframaren eta lurraren arteko desberdintasuna nabaria da. Eta Hondarribiko *“elementos eternamente contrabandistas”* haiek bazekiten, jakin ere, zer garraiatzen ari ziren. Dirua baitzen bitarteko. Dirutza, alegia.

## BEHOBIA-PAUSUKO MUGA ZEHARKATU NAHIAN

1944. urteko maiatzaren 28ko gauean, Irungo Behobiako mugan gertaera guztiz garrantzitsu bat izan zen. Behobia hitza inoiz ez bezala erabili zen Madrilgo goi mailako bulegoetan. Hainbeste, non Fidel Dávila jeneralak Atzerri Ministerioko agintariei honako hau idatzi baitzien:

*“Noticias llegadas a este Alto Estado Mayor señalan que en la noche del 27 del mes anterior [28ko arratsean gertatu zela ziurtatu zen geroago], entraron en Francia, por el puente de Behovia, paso no autorizado y a cargo sólo de Guardia Civil de Fronteras, dos camiones de la “Marion” (empresa alemana con cabecera en Salamanca y a cuyo cargo se han hecho todos los transportes a Francia) provistos de remolque cuya presencia no pudo encubrirse, pese a haber sido apagadas las luces del barrio, toda vez que el ruido de los motores los delataba. No se precisa el transporte que se hacía pero parece ser que se trataba de wolfram”.*

Guztia ekainaren 12an sinatu zen, orriaren goiko aldean “Secreto” jarririk.

Maiatzaren hasieran Gómez-Jordanak eta aliatuek wolframari buruzko akordioa sinatu zutenez gero, gertaera hori guztiz ilegala izan zen. Bi aldiz ilegal: alde batetik, akordioaren aurka zihoalako, eta bestetik, muga itxita zegoenez, hori kamioiz gainditzen saiatzea guztiz debekatuta zegoelako.

Eta ez ziren 2 kamioi izan modu ilegalean muga pasatu nahian ibilitakoak. Dirudienez, lau izan ziren, baita auto bat ere. Beste lekuko zenbait tek bost izan zirela diote.

Kamioien matrikulak badakizkigu; ez, ordea, autoarena: 31/SA-3862; 37/SA-3869; 39/SA-3863; 30/SA-3870.

Ellis Rees aliatuaren susmoen arabera, kamioiak wolframez kargaturik Marion biltegitik atera ondoren, Behobiara joan ziren, zubiko muga

gainditzeko asmotan. Gaua zenez, goizeko 3ak edo 4ak inguru, kamioiek egindako soinuarekin bertako biztanleak esnatu ziren. Beraz, lekukoak bazeuden. Dena den, eta lekukorik ez egoteko, kamioiek pasatu behar zutenean Behobia auzoko argiak itzali egin ziren, hain zuzen ere bertako biztanleek ezer ikus ez zezaten. Baina, esandakoa: kamioiek gauetz egindako zarata izugarria, noski, nabarmena izan zen. Gauetz beste soinurik ez zegoenez eta kamioiak pisu handiz kargaturik zihoazenez (agian, wolframaren pisuaz kargaturik), are burrunba handiagoa eginez... ziur nago sekulako iskanbila gertatu zela.

Kamioi batek muga gainditzea lortu zuen (39/SA-3863 matrikuladunak hain zuzen ere), eta hurrengo goizean Nazioarteko Zubitik Irun aldera pasa zen. Beraz, nahiz eta muga legalki itxita egon, dirudienez wolframa beste aldera garraiatzea lortu zuen. Aliatuen informazioen arabera, pasatutako wolfram kopurua 48 tona izan zen.

Honela diote:

*“Haber tenido conocimiento de que en la noche citada habían entrado en Francia por el puente de Behobia dos camiones de la Empresa Marion, provistos de remolque [esan dugu lekuko batzuen arabera lau kamioi eta kotxe bat izan zirela], cuya presencia no pudo encubrirse pese a haber sido apagadas las luces del barrio, toda vez que el ruido de los motores*



Irungo Artxiboa. 3822 zbk. 1940-50 inguruko argazkia

*los delataba. El General Jefe del Alto Estado Mayor añade en su Oficio, que la policía de frontera y la Aduana habían enfocado el hecho en el sentido de contrabando, instruyéndose las informaciones adecuadas”.*

Gómez-Jordana ministroak erantzun zion susmoak ez zeudela frogaturik, baina “*ordeno la más minuciosa y rigurosa investigación*” ere esan zion. Eta hala egin zen. Ikerketa aurrera eramán zen, eta oso mamitsua eta koropilatsua gertatu zen.

Gustavo Navarro Aduanetako zuzendariak esan zuen, Behobiako aduana itxirik zegoenez, ezin zela bertatik inolako garraiorik pasa, eta Behobiako Zubia zelatatzea guardia zibilen lana zela. Beraz, badirudi gertatutakoa ez zela haren ardurapekoa.

Eta bai, guardia zibilen lana zen, baina dirudienez, eta Navarrok berak esandakoaren arabera: “*debe haber existido un acuerdo con los carabineros encargados de su custodia*”.

Hau da, karabineroak erosita zeuden.

Dena den, badirudi Gustavo Navarro pertsonalki etorri zela Irunera ekainaren 4an. Bisitaldi horretan, Aduanetako arduradunekin, Behobiako administrari nagusiarekin eta guardia zibilen komandantearekin hitz egin zuen. Irunen egon ondoren, Dantxarinea, Erratzu, Etxalar, Arnegi eta Bera-ko aduanetara joan eta wolframa zela-eta hainbat ikerketa egin zuen.



Irungo Artxiboa. Behobiako muga. 78. zk.

Esana dut aurrez gertaera horiek oso korapilatsuak gertatu zirela. Hala izan zen. Irungo eta Behobiako mugetan nolabaiteko arduraz zuten agintari guztiak martxan jarri ziren: Irungo mugako arduraduna, Aduanetako burua, mugetan espezializatutako Guardia Zibileko agintaria, Segurtasuneko idazkari nagusia... Navarrok azken horri (López Barrón-i) egindako ikerketen emaitzak igortzeko eskatu zion, eta ikerketa egiteari buruzko erantzuna honako hau izan zen: *“No se habían recibido ninguna, pero que se ponía inmediatamente al habla con Irún para que el Coronel Ortega, Jefe de la Frontera nos informase con detalle”*.

Ortega koronelarekin solas egin zuen, baina hark are gehiago korapilatu zuen ikerketa guztia, zeren eta haren aginduz:

*“Las diligencias las estaban instruyendo por separado el Jefe de la Aduana y el Jefe de la Guardia Civil de Fronteras (especialistas, antiguos carabineros), los que les dijeron que la tramitación sucesiva era la remisión de las diligencias a sus Direcciones Generales respectivas, Aduanas y Guardia Civil”*.

Ikerketa egin, egingo zen, baina informazioa hainbat bulego eta pertsonatetik pasata azkenean galduko zen itzaropena zuten. Batetik bestera deiak, aginduak, eskutitzak, esanak... pasatuz, denbora joan ahala guztia ahaztuko zela uste zuten, beste batzuetan gertatu zen bezala. Huraxe izaten zen helburu nagusia. Eta horrela, batzuek besteei ikerketak egitea aginduz eta haien emaitzak eskatuz, ezer garbi esan gabe, hilabete luze pasa zen.

Baina kasu horretan, behintzat, ez zen horrela gertatu. Gertaera ez zen ahaztu, aliatuek ez zutelako ahaztu nahi izan. Ekainaren 26an, Weston jaunak (Britainia Handiko enbaxada) galdetu zuen ea hilaren 7an Behobian gertatutakoa salatuz egindako agiria Madrilgo Atzerri Ministerioan jaso zen.

Haserre azaldu zen Weston jauna, ondorengo esanez:

*“...el hecho fué tan descarado y tuvo tal resonancia, que el Gobierno de Londres lo supo por sus propios Servicios antes de que la Embajada de Madrid se lo comunicara...”*.

Hori guztia esan ondoren, aliatuek Espainiari bidali beharreko hornidurei buruz aritu zen. Oso diplomatikoa! Idatzia irakurtzean, halako mehatxu antzeko zerbait badagoela iruditu zitzaidan. Lehenbizi Espainiari egin beharrekoak eskatu, eta justu ondoren Espainiak behar-beharrezkoak zituen produktuak ekartzeaz mintzatu...!




Eta geroxeago, Weston jaunak esan zuen wolfram kontrabandoa egi-  
ten zela jakin ondoren Estatu Batuek mineral horren esportazioak erabat  
debekatzeari eskatuko zutelara, eta Britainia Handiak ez zuela ezer egiterik  
izango horren aurka, baldin eta Behobiako gertaerari buruz erantzun  
serio bat jasotzen ez bazuen. Argi dago bilera oso ondo prestatu zuela.

Bestalde, nahiko barregarri uzten ditu Behobiako agintariak, hau esa-  
nez:

*“consta que los vecinos oyeron y vieron el paso de los camiones en cues-  
tión, en cambio aquellas autoridades a las que por el hecho pudiera  
derivarse algún cargo o ser acusadas de negligencia, admiten pueriles  
supuestos de despiste de los conductores y regreso a Irún”.*

Uztailaren 5ean Ackerman amerikarrak, beste gai batzuen artean,  
Behobiako gertaeraz galdetu zuen: *“... pregunta insistentemente si todavía  
no se ha recibido el informe incoado por la Guardia Civil acerca de la exportación de  
42 toneladas de wolfram por el puente de Behobia en 5 camiones denunciado a  
principios de junio”.*

Bilera horretan bost gai zeuden, eta bi azkenekoak wolfram kontra-  
bandoaren ingurukoak ziren. Aliatuentzat mineral horren kontrabandoa  
guztiz inportantea zenez, ez zuten etsiko, eta behar zuten informazio



guztia eskatu zuten. Erantzunak ez ziren askotan espero bezain mami-tsuak izan.

## **BEHOBIAN GERTATUTAKOAREN ONDORIOAK.**

Aliatuek behin eta berriro galdetzen zuten Behobiako gertaeren inguruan: “*insistentemente*”. Hainbeste, non erantzunen bat ematera behartuak izan ziren Espainiako gobernuko agintariak.

“*Muy reservado*” oharra daraman dokumentuaren arabera, aliatuek salatu zuten 1944. urteko maiatzaren 28ko goizaldean wolframa zeramaten lau (bost?) kamioi (eta auto bat?) Behobiatik muga zeharkatu nahian ibili zirela, itxita bazegoen ere. Eta horri erantzun bat eman behar zitzaiola, bai ekonomikoa, bai politikoa, Espainiako gobernua ondorio latzak jaso nahi ez bazituen. Garbi azaltzen da: edo gertaera ilegal hura argitu eta beharrezko neurriak hartzen ziren, edo aliatuek Espainiarekin zituzten harremanak erabat okertuko ziren.

Larritasun honen aurrean, irteera bakarra zegoen: gertatutakoaz ikerketa egitea. Guztiaren kudeatzailea eta koordinatzailea Humberto Padura Segui komandantea izan zen.

Hala, bai Guardia Zibilaren buruak bai Aduanetako agintariak lanean jarri ziren. Guardia Zibilarik zegoenez, espedientea “*143 Comandancia del 43 Tercio Mixto*”k kudeatu zuen.

Maiatzaren 28ko gau hartan Behobiako biztanleak erabat lotan zeudela pentsa dezakegu, bai eta lau zapabost kamioi zaratatsu, oso zaratatsu, etxe azpitik pasatzean esnatu egingo zirela ere. Eta hala izan zen. Beraz, gertatutakoaren lekukoak bazeuden. Haien artean, Juan Lavandivar Echegaray zegoen: “*que vio pasar a dichos camiones en dirección a Francia en el mencionado día*”.

Beste lekuko bat Pedro Hidalgo Higuera izan zen.

Emakume batek ere bere bertsioa azaldu zuen: Martina Tellechea Urtizberek.

Hirurek poliziaren aurrean egin zuten deklarazioa ikusitakoaz eta aditutakoaz.

Ikerketan, beste lekuko garrantzitsu bat egon zela esaten da. Pertsona hori, Aduanetako agentea izateaz gain, Aduana Agentzia pribatuen lehendakaria ere bazen, (Irunen ugariak ziren horrelako agentziak): Eugenio Olló. 63 urteko beratarra, Behobiara ezkondua.

Agiriaren arabera, gizon hori polizien aurrean deklaratzera deitu zuten:

*“ha notado la presencia de camiones y en su manifestación dice que a la tan repetida hora de las 3 y media de la mañana del día 28 de mayo, oyó ruido de motores y le levantó, y al acercarse a la persiana de la ventana pudo ver que en ese momento pasaba por delante de su casa un camión, no pudiendo precisar, debido a la oscuridad, si iba o no cargado y asimismo no se preocupó de observar su ruta, ignorando si pudo pasar a Francia o tomó la carretera de Irún”.*

Olo jaunak kamioiak Behobiatik pasatu zirela esan zuen, baina ez zuen bere iritzia eman nahi izan norantz zihoazen esateko. Eta agintarientzat jarrera hori arraroa izan zen:

*“Es muy raro que este señor se levantara de la cama por el hecho de oír ruido de camiones y una vez asomado y ver pasar a uno no se cerciorase de si pasaba por el puente, ya que esta circunstancia debía de interesarle por su condición de Agente de Aduanas”.*

Atzerri Ministerioan aurkitutako dokumentuek diotenez, lehenengo hiru lekukoen testigantzak entzun eta transkribatu ondoren, hainbat departamentutara iritsi ziren. Besteak beste, noski, Aduanetakora.

Agirian komatxoen artean idazten da teniente koronelak eta koronelak berak hitzez hitz esandakoa:

*“son tan precisas y coincidentes en todos sus detalles, que inclinan el ánimo de los informadores a la convicción moral de crearlas sinceras y puede considerarse su entrada en Francia como un hecho consumado”.*

Koronelak beste zerbait erantsi zuen:

*“... por confidencias reservadas recibidas, conversaciones tenidas con el Jefe de Fronteras, las declaraciones antes citadas así como conversaciones con muchos más que lo dicen pero que temen declarar, dada la pequeñez del pueblo y su mucha relación con la aduana y la fuerza, aparece cierto el paso de los camiones así como las operaciones de apagar y encender las luces del citado puerto”.*

Behobiako hiru biztanle haien esanak izan zuen eraginarik.

Baina zer esan zuten zehatz-mehatz lekuko haiek? Egindako deklarazioak jaso zirenez, badugu informazio hori jakiterik.

- Juan Lavandivar Echegarayk 38 urte zituen, Manuela Espinisa-rekin ezkondata zegoen eta Irungo semea zen. Osasun arloan

lan egiten zuen; zaindaria zen. Haren esanetan, 28ko gau hartan sekulako zarata entzun zutenez, emazteak leihoa itxi behar izan zuen, semea esna ez zedin. Ohetik jaiki, eta leihotik kamioiak ikusi omen zituen. “*Van a Francia*” komentatu omen zuen. Juan bera ere altxatu omen zen, eta leihotik begiratzean azkeneko kamioiaren atzeko alde ikusi omen zuen, Frantzian sartzen. Geroxeago, kamioiaren argiak alde hartan ikusi zituela esan zuen. Ondoren berriro ere oheratu zen.

Kamioiak zer zeramana ba ote zekien galdetzean, erantzuna ezezkoa izan zen.

- Pedro Hidalgo Higuera. Ávilako Carpio Medianero herrikoa zen. 24 urteko gazte hark Irungo Palmera lantegian egiten zuen lan. División Azul zeritzanean parte hartu zuen, eta datu hori azpimarraturik azaltzen da agirian.


Aurrekoaren antzeko azalpenak emateaz gain, datu gehiago ere erantsi zituen:

*“... que estando acostado con su esposa en la madrugada del día 28 de dicho mes sobre las tres y media horas de la citada madrugada fueron despertados los de su casa por el ruido de unos motores; se levantó y asomó a la ventana para cerciorarse de lo que ocurría, ya que vive en una casa inmediata al Puente Internacional; que vio pasar primero un potente camión que venía por la carretera de Irún y a continuación otro seguido de un coche ligero, los cuales tomaron la dirección del Puente, viendo como lo pasaban en dirección a Francia; que la valla española la vio levantada y observó que los focos que existen frente a su casa estaban apagados, pero que inmediatamente de pasar los vehículos fueron encendidos; que no se fijó si en la entrada del Puente había persona alguna, como tampoco en las matrículas de los camiones y coches; que el manifiesto después de comentar el caso con su familia volvió a acostarse...”.*

Hidalgok esan zuen Espainia aldeko itxitura irekita, goratuta, zegoe-la. Hala behar zuen izan, kamioiak eta autoak beste aldera pasatzeko. Baina kontuan hartu behar dugu, eta ez dugu ahaztu behar, berez mugak, hesiak, erabat itxita egon behar zuela, eta hala izan ezean ez zen hala izan.

Wolframa beste aldera pasatzea debekatuta zegoen. Debekaturik zegoen ere, itxitura hura irekitzea. “*Dicho Puente está cerrado completamente al tráfico desde el año 1936*”. Delitu bikoitza gertatutakoa.

Hurrengo egunean, José Velasco Bragado izeneko guardia zibila azaldu zen Pedoren etxera. Bertsio bera eman zion hari ere, baina guardia zibilak kamioien hondarrak ikusi al zituen galdetu zionean, eta baiezkoa



jaso zuenean, oker zegoela esan zion. Velascok behin eta berriro azpimarratu zion hondar haiek ez zirela kamioienak, eta Pedrok, berriz, kamioienak zirela.

José Velascok Hidalgori ikusitakoaz galdetu zionez, José bera ere deklaratzera deitua izan zen. Eta ez arrazoi horregatik soilik. Izan ere, 28ko gau hartan, zubia zaintzeko txanda Eustaquio Borreguero Mayorekin batera egokitzen zitzaionez, makurren bat gertatuz gero bera eta bere bikotea izango ziren arduradunak.

Joséren esanetan, egia zen Pedroren etxera joan zela, entzuna baitzuen Behobiako auzoan gaez gertatutakoa, eta hori bat zetorren Pedrok berak esandakoarekin. Guztiari buruz Pedrok esateko zer edo zer ba ote zuen jakin nahi zuen Josék. Hala deklarazioa.

Pedrok ez zuen esan kamioiek zer garraiatzen zuten, baina Josék zioenez, olia zeramatela esan omen zion Pedrok.

Arrastoei buruz, hau ageri da: *“se trasladaron [Pedro eta José] al Puente Internacional para reconocer si existía pista alguna que denunciara el referido paso, pudiendo observar en la parte española unas dudosas huellas que no pudieron apreciar si correspondían a los ya referidos camiones y de qué tiempo databan...”*.

- Martina Tellechea Urtizberea beratarra zen, 63 urtekoa. Behobian bizi zen, eta haren etxea behatoki ona zen zubia ikusteko. Sekulako zaratak esnarazi ondoren, handik ikusi zuen itxitura igota, eta beste aldera bi kamioi pasatzen.

Horraino Behobiako hiru biztanle haien eta José Velasco Bragado guardia zibilaren lekukotasunak. Baina haiez gain, gau hartan gertatutakoaren inguruan bazeuden beste zenbait pertsona ere.

Marina Goyenetxea Leandroren alabak gaur egun ere buruan dauka 1944. urtean kasinoan aipatzen zena:

*“... decían que a la madrugada se oían camiones pasar por Behobia. Que hacían un ruido seco como de llevar mucha carga. Que iban despacio y el ruido era grande, sordo...”*.

Lekukoen aitorpenak jaso ziren:

- Rafael García Sánchez. Pontevedrako Tuykoa, 60 urtekoa, Behobiako aduanako arduraduna (Jefe de Negociado de 2ª del Cuerpo Administrativo de Aduanas).

Haren esanetan, 28ko goizaldean lasai asko zegoen lotan bere etxean, Behobiako Senperenea kaleko 73.ean. Ez zuen ezer entzun. Hurrengo egunean, Irunen bizi zen Behobiako aduanako administrariak, Vizcaino jaunak, telefonoz deiturik Behobiatik iritsitako zurrumurruak kontatu zizkion, eta guztiari buruz ikertzeko agindu zion.

Rafaelek ukatu egin zuen Behobiako biztanleek esaten zuten guztia:

*“... no pasó ningún camión... La barra estaba con señales de no haberse levantado, incluso aparecían algunas telarañas en el mecanismo de elevación y que el candado estaba cerrado, de cuyas dos llaves, tiene el manifestante una en la Aduana y la otra la tiene el Comandante del puesto en su poder...”*

Beste ezer esan nahi ote zuen galdetu zitzaionean, zera erantsi zuen:

*“que el Comandante del puesto y los dos Guardias que dicha noche se encontraban de servicio le merecen entera confianza por su comportamiento y honorabilidad...”*

- Santiago Martín Rodrigo. Santanderko Oriñón herriko 22 urteko guardia. Une haietan komandante lanak egiten zebilen. Gazte haren testigantza bitxia iruditu zait. Gertatutakoaren beste bertsio bat azaltzen digu. Haren esanetan, gau hartan guardia egitea tokatzen zitzaion. Irundik zetorren kamioi bat ikusi zuen. Zubian zegoen itxiturarantz zihoan, bai, baina iritsi baino lehen atzera egin eta berriro Irungo aldera abiatu zen. Hamar bat minutu geroago, beste hiru kamioi azaldu ziren, eta atzetik auto bat. Behobiako auzotik bira eginez berriro ere Irungo bidea hartu zuten.

Martínen esanetan, bitxikeria hori gertatzearen arrazoia kamioiak eta autoa bidez nahastu zirela izan zen.

Horri ere Behobiako aduanako administrari Vizcaino jaunak eman zion gertatutakoaren berri, Irundik telefonoz deiturik, 29an.

Galdeketak jarraitu zuen, eta Behobiako argiez jakin nahi izan zuten. Testigantza horren arabera:

*“... el foco que recae sobre la valla estaba encendido y éste suele encenderse por los mismos Guardias de Servicio, y los otros focos estaban apagados”*.

Behobiako biztanleek ziotenez, kamioiak pasatu ziren unean argi guztiak itzalita zeuden.

Gau hartan, 10etatik goizeko 6ak arte, Antonio Gutierrez Otero eta Isaac Izquierdo Zapatero guardiak zeuden zubian zerbitzuan. Gau osoa zubian pasatu zutela zin egin zuen Martín jaunak, eta han ezer berezirik ez zela gertatu ere bai:

- Antonio Gutierrez Otero.Santanderko Potes herrikoa. 32 urteko guardia, ezkondua. Haren esanetan:

*“... estuvo de servicio en el Puente desde las 22 horas del día 27 de mayo próximo pasado hasta las 6 horas del día siguiente y que durante este tiempo no pasó ningún camión por el Puente...”*

Onartu zuen, Santiago Martínen antzera, kamioi bat gerturatu zela, baina buelta eman eta aldendu egin zela zion. Geroago, beste bi kamioik eta auto batek antzeko zerbait egin zutela jakinarazi zuen.

Gau hartan Isaac Izquierdo Zapatero berarekin zegoela esan zuen.

- Isaac Izquierdo Zapatero. Valladolideko Tordehumos herriko 29 urteko gizonezkoa. Aurrekoaren antzeko adierazpenak egin zituen. Hala ere, eta lau kamioien eta autoaren harat-honat bitxiak zirela-eta zer egin zuten galdetzerakoan, hau esan zuen:

*“... no tomaron ninguna medida para detenerlos y reconocerlos, ya que por la noche no tienen servicio de control”*.

Eta:

*“que no les llamó la atención el paso de dichos vehículos; de que al día siguiente se enteró de los rumores que ocurrían de que los mismos habían pasado a Francia, pero que él puede afirmar rotundamente que mientras estuvo de servicio ningún coche atravesó el Puente”*.

Niri, ordea, deigarria egiten zait garai hartan, 1944. urtean, gauez kamioi batzuk Behobiako inguruetan bueltaka jarduteak. Gaur egun edozein ordutan ditugu martxan autoak, kamioiak eta bestelakoak, baina garai hartan, erabat itxirik zegoen mugaren inguruan gaueko 3ak aldean eta zarata izugarria eginez ibiltzea... Isaac Izquierdori ez bezala, niri oso deigarria egiten zait.

Vizcaino jaunak, Behobiako aduanako administrariak, jakinarazi zizkion Isaaci gertatutakoaren zurrumurrak.

Hori irakurriz, badirudi Irunen bizi zen aduanako administrariak gau hartan gertatutakoaz informatu arte Behobiako Zubia zaintzen zuten ar-



duradunek ez zutela jakin zer gertatu zen beren ardurapean zeuden eremuetan!

Ikerketa osoaren koordinatzaile Humberto Padura Segui komandan-teak froga eta testigantza guztiak kontuan hartu eta azken ondorioetara iristerakoan, ez zion balio handirik eman Martín, Velasco eta Borreguerok esandakoari. Hau da, esan zuen kamioiak Behobiaraino etorri eta gero berriro Irun aldera bueltatzeak ez zuela inolako funtsik. Eta hala da. Zertara, zertarako, zergatik, horrelako bidaiatxo bat egin? A bai! Bidez nahastu ziren! Baina arrazoi horri ere ez zion inolako sinesgarritasunik eman Padura jaunak:

*“Es singular la coincidencia en los detalles del hecho relatado por los tres Guardias de servicio en el Puente y es indudable que de admitir sus manifestaciones habría que admitir también el absurdo que supone el que tres o cuatro camiones y un turismo lleguen por la carretera de Irún hasta el mismo Puente de Behovia y luego se vuelvan tranquilamente por el mismo sitio que han venido, ya que la otra carretera que hay, que es precisamente la de Navarra, no fué empleada para nada por los vehículos en cuestión, pues aparte que los encartados dicen que venían los coches dirección Irún; en la de Navarra y a siete kilómetros del lugar del hecho está el control de Endarlaza y personado el Instructor en el mismo ... ésta diligencia no dió resultado alguno, es decir: que de dos a cuatro de la madrugada del 28 del pasado no pasó ningún camión por el citado control”.*

Ikerketan beste lekuko batzuk ere deitu zituzten. Guardia Zibileko Kostaldeko arduradunak besteak beste:

- Emiliano Mota Gonzalez. 33 urteko Palenciako Piña de Campos herrikoa. Ezkondua.

Esan zuenez, gaueko 3etatik 4ak arte, Behobiako Zubitik 800 bat metrora *“entre el depósito de agua y el Puente Internacional”*, Hilario Leonardo izeneko guardiarekin egon zen, eta aditzera eman zuen gau osoan ez zutela ezer berezirik ikusi.

- Antonio Moreno Naranjo. Cádizko El Gastor herriko 25 urteko kostetako guardia. Haren esanetan, Gregorio de la Hera guardiarekin Behobiako zubitik Unzueta errekarainoko zatiaren zaintza egiten ari zen gau hartan, eta ez zuten ezer berezirik ikusi. Ez. Ez zuten ezer berezirik ikusi, nahiz eta 3etatik 4ak bitarte Zubitik 300 bat metrora egon.



Irungo Artxiboa. 38169 zk. 1940. urte inguruko argazkia. Behobiako zubia.

- Guardiez eta Behobiako biztanle xumez gain, teniente bat ere deitu zuten deklaratzera: Tomás Salvador Manso. Gizon hori Guadalajarako Cendejar de la Torrekoa zen. Garai hartan 47 urte zituen.

Irungo aduanako arduradun nagusiak maiatzaren 29an bere bulegora joan zedin eskatu zion Tomásí. Hark hantxe jakin zuen Behobian gertatutakoaren zurrumurruek berri, eta gertaera haiek ikertzeko eskatu zitzaion.

Agindua bete nahian, Behobiako aduanako administrariarekin batera muga ingurura joan zen. Bertan, mugako itxitura nola zegoen begiratu eta armiarma sareak zituela ikusi zuten (aspaldi igo ez zen seinale); giltzarrapoa itxirik zegoela egiaztatu zuten.

Zubiko zati handi batean ibili ziren, eta han inolako ibilgailuren arrastorik ez zuten ikusi; gau hartan guardia egiten egondako bi zaintzaileri galderak egin zizkieten, baita Santiago Martíni ere, eta frogatu zuten handik ez zela kamioirik pasa. Horren guztiaren berri Irungo aduanako arduradun nagusiari jakinarazi zioten, eta hark hurrengo egunean Tomás Salvadorri honela esan zion:

*“... que de acuerdo con el Comandante Militar de Irún habian sacado la conclusión de que dicho paso no era cierto y que sólo habia sido un bulo y que por consiguiente se daba por terminado el asunto”.*

Baina kontua ez zen hor bukatu. Ikerketek jarraitu egin zuten. Ekainaren lehenean, ostegunarekin, Behobiako aduanako administraria, Vizcaino jauna, eta Irungo aduanako arduradun nagusia arratsaldean Behobiako zubi aldera berriro agertuko zirela esan zioten Tomás Salvadorri. Hala dio berak.

Dirudienez, ekainaren 2an Tomásen agintariak (“sus jefes”) Irunera joan ziren, baina Tomásék ez zien gertatutakoaz edo zurrumurruez ezer esan. Itaunketa honen zergatiaz galdeturik, egun hartan, ekainaren 2an alegia, Irungo Colon ibilbidean hango aduanako arduradun nagusiarekin topo eginez zera esan ziola dio:

*“... que había estado en Behobia la tarde anterior, pero que no había sacado nada en concreto, por cuyo motivo le indicó que no diera cuenta a nadie, pero que no obstante ello lo comunicó en San Sebastián a su Capitán de Compañía en la Calle San Jerónimo...”.*

Interes handia zuen Irungo aduanako arduradunak Behobian maiztaren 27tik 28rako gau hartan ez zela deus berezirik gertatu kaleratzeko.



Irungo Artxiboa. 48907 zk.

Baina, oroitzen bagara, hitzez hitz Behobiako hiru biztanle haien esanak kontuan harturik honako hau adierazi zuten teniente koronelak eta koronelak berak:

*“... son tan precisas y coincidentes en todos sus detalles, que inclinan el ánimo de los informadores a la convicción moral de creerlas sinceras y puede considerarse su entrada en Francia como un hecho consumado”.*

Bestalde, José Tristán Palacios koronelak dio Behobiako beste hainbat biztanlek bazutela zer esanik:

*“... así como de muchos más que lo dicen en conversaciones, pero que temen declarar, dado lo pequeño del pueblo y su mucha relación con la Aduana y la fuerza aparece cierto el paso de los camiones, así como las operaciones de apagar y encender las luces del Puesto citado”.*

Beraz, muga edo aduanekin zerikusia zuten Espainiako zenbait agintarik emandako bi ikuspegiak ez datoz bat.

Gau interesgarri hartan Behobiako muga kamioiren batek zeharkatu ote zuen galdetu zioten Tomás. Eta horra hor baten ahulezia, hau izan baitzen erantzuna:

*“... que absoluta seguridad no la tiene, pero que cree que no ha pasado ningún vehículo por el Puente”.*

Oso erantzun ezberdina eman zuten Santiago Martín komandanteak, Antonio Gutierrez eta Isaac Zapatero guardiek. Haien esanetan kamioi bat lehenbizi, eta geroxeago beste bi (hiru?) gehi auto bat Irundik Behobiara gerturatu ziren, baina berriro Irun aldera bueltatu. Agian bidez nahastu zirela pentsatu omen zuten.

Desberdina zioten Emilio Mota eta Antonio Moreno kostetako guardiek ere. Ezer berezirik ez zuten ikusi. Kamioirik gerturatzen ere ez!

Tomás Salvador tenientea, aldiz, ez zegoen hain ziur. Haren ustez, Behobiako muga ez zuen inolako garraiobidek zeharkatu, baina ez zuen *“absoluta seguridad”*.

Hainbat kamioik Behobiako muga zeharkatu zutela ziurtasun osoa zuten Behobiako hiru biztanlek (Juan Lavandivarrek, Pedro Hídalgo eta Martina Tellecheak). Eta horietaz fio ziren teniente koronela eta koronela.

Beste arduradun batzuei ere egin zizkieten galdeketak, baina aipatzekoa da, nire ustez, Luis Ruiz Horn guardia zibileko kapitainarena. 42 urteko santandertarra zen. Haren esanetan, maiatzaren 31n Irunera joan



Irungo Artxiboa. 38227 zk. 1930 urte inguruko argazkia

eta bertako tenientearekin solasean aritu zen. Lan arruntaz hitz egiten ari zirelarik, maiatzaren 28an Behobian gertatutakoaz, zurrumurruaz, mintzatu zitzaion tenientea, “*sin darle importancia*”:

*“... circuló el rumor de que unos camiones habían pasado a Francia por Behovia, según noticias que le dió el Administrador, en unión del Vista Sr. Vizcaino y también comprobado por la Comandancia Militar, no lo había comunicado, y sobre todo por haberle insistido el Administrador que no lo hiciera por ser contraproducente darle publicidad...”*.”

Luis Ruizek tenienteari errieta egin eta gero, hasi zen bere kabuz ikerketetan, “*con la mayor reserva y discreción*”.

Lehen ikerketen emaitza ezezkoa izan omen zen, eta hala adierazi omen zion teniente koronelari. Azken hori Irunera etorri zen, eta hainbat miaketa egin ondoren, Ruizi esan zion:

*“Que el Administrador de la Aduana había recibido orden escrita de la Comandancia Militar de hacer nuevas averiguaciones e informar confidencialmente”*.”

Jarraitu zuen, bada, Luis Ruiz tenienteak ikertzen, eta haren testigantzak ez du zalantzarako zirrikiturik uzten:

*“... consiguió inspeccionar ocularmente todo el Puente de Behovia, no apareciendo señal alguna de paso, observando que los montones de grava que existen en medio de la calzada, estaba la tierra con la señal evidente de no haberse movido en bastante tiempo y sobre todo, reconocidas con todo detalle las defensas alemanas, compuestas por varios caballos de frisa de alambre de espino que cierran por completo todo el puente en su entrada con Francia, se ve claramente como las últimas filas de caballetes tienen sus bases bien cerradas con cemento, por lo que se puede presumir en conciencia que no se han movido y su paso por allí no es posible. A esto se puede sumar que según se desprende de los informes recibidos no hay quien diga que ha visto entrar los camiones en Francia; ni regresar los que declaran que los vieron entrar hasta la mitad del Puente ni mercancía que llevaban. Asimismo se informó el manifestante que se decía que los camiones habían regresado por Irún, pudiendo comprobar no ser cierto por asegurarlo los Periciales de la Aduana, Comandante del puesto y no constar su entrada en los libros de refrendo de la Aduana. La pareja y Comandante de puesto de Behobia niegan el paso por el Puente de los camiones y afirman haberlos visto pasar por cerca del mencionado Puente, siendo cuatro los camiones y un turismo por equivocación...”*.”

Ruiz tenienteak garbi zeukan mugaz bestaldera ez zela inolako kamioirik joan. Froga fisikoak eta testigantzenak ere bazituen.

Afera horretan guztian, ordea, norbait oker zebilen, ezinezkoa baita batzuen esanetan kamioiek muga zeharkatu izana, eta aldi berean beste batzuen arabera ditxosozko kamioiak Behobiaraino joan eta muga zeharkatu gabe Irunera itzuli izana!

Agian lectura de cargos delakoa azaltzen denean izango dugu guztia-  
ren argia. Izan ere, bertan, Ruiz tenienteak, esandakoari zerbait erantsi  
nahi ote zuen galdetu zitzaionean, baietz esan zuen:

*“Que siguiendo sus indagaciones ha podido recoger confidencialmente de persona de toda solvencia de que hay gente antipatriota a sueldo para lanzar bulos y entorpecer como puede suceder con el supuesto paso de camiones”.*

Alajaina! Gaizkileen, bazter nahasleen eta gobernuaren kontra zihoa-  
zenen trikimailua besterik ez zen izan hura guztia asmatzea: kamioiek  
ilegalki muga gainditu zutela eta ilegalki alemanei wolframa (?) eraman  
zietela... dena asmaketa hutsa! Noski! Nori bururatuko zitzaion, bada,  
tamainako gezurra, ez bazen sistemaren kontra zihoa zen deabruerik!

Irungo aduana edo mugaren inguruko arduradun gehienak Behobia-  
ko biztanleek ziotenaren aurka ageri zaizkigu. Baina badirudi, eta ez da  
nire ikuspegia bakarrik, arduradun haien testigantzak nahiko ahulak eta  
askotan zentzu askorik gabeak zirela.



Irungo Artxiboa. 3819 zk. 1940. urte inguruko argazkia.

Enrique Galván García teniente koronelak zera pentsatzen zuen:

*“... tiene la convicción moral suficiente para considerar que el paso de los repetidos camiones por el Puente internacional de Behovia y su entrada en Francia es un hecho consumado...”*.

Ikerketaren kudeatzaile eta koordinatzaile zen Humberto Padura Segui komandantearen emaitzek ere beste zerbait diote. Hark, bere hausnarketen ondorioz, hau idatzi zuen:

*“Por todas estas manifestaciones y por cuanto se ha expuesto hasta el momento, sin duda alguna hay que admitir, que, el paso de camiones por el Puente o ha sido un hecho consumado o dichos manifestantes han sufrido todos ellos una alucinación colectiva o bien se han confabulado todos ellos para decir que vieron a los camiones pasar el Puente, aunque para este último extremo no hay el menor motivo de sospecha”*.

Ironia pittin bat dagoela iruditzen zait.

Ez, ez zen “alucinación colectiva” izan, eta ez, ez zen “gente antipatriota a sueldo” direlakoek pentsaturiko trikimailu maltzurra izan.

Ni bat nator Enrique Galván eta Humberto Padurarekin, uste baitut baietz, 1944. urteko maiatzaren 28ko gau hartan gutxienez kamioi batek eta agian lau kamioik Behobiako muga gainditu zutela, 1936. urteaz geroztik garraioentzat erabat itxirik bazegoen ere. “Ha sido un hecho consumado”.

Tira, eta gertakizun horrekin amaierara goazen neurrian, zer besterik esan? Zer erantsi? Badago beste zerbait.

Guztia oso larria zen, eta erabaki batzuk hartu behar ziren. Hemen ere harridura sortu zait. Badirudi gertatutakoaz zalantzarik ez zuela Padura jaunak, eta hala ere...:

*“El Instructor [Padurak], no considera suficientemente aclarado el hecho de que los tan repetidos camiones no pasaran el Puente; sin embargo ha podido apreciar por parte del personal de la Compañía a quien afecta el suceso en cuestión, una falta de celo e interés...”*.

Ez dagoela frogaturik? Baina ez al zuen esan “ha sido un hecho consumado”?

Bada, ez dago frogaturik. Eta? Zigorrik ez? Bai, baina hara zer zela-eta zigorrak:

*“... sin embargo ha podido apreciar por parte del personal de la Compañía a quien afecta el suceso en cuestión, una falta de celo e interés que estima y propone a la Superioridad debe corregirse en la siguiente forma:*



-A los Guardias 1º y 2º respectivamente SANTIAGO MARTIN RODRIGO y ANTONIO GUTIERREZ OTERO, dos meses de arresto en el calabozo por no detener y reconocer el camión que entró en el recinto de la Aduana y retrocedió seguidamente.

-Al Guardia 2º ISAAC IZQUIERDO ZAPATERO, un mes de arresto en el calabozo por el mismo motivo.

-Al Teniente Jefe de la línea don TOMÁS SALVADOR MANSO, catorce días de arresto en banderas por no dar cuenta de los hechos a su Capitán hasta el día treinta y uno de mayo de unos hechos de tal importancia; no haber tomado providencia con los Guardias de servicio en el Puente y autorizar declaraciones de los mismos sin el competente permiso.

-Al Capitán de la Compañía D. LUIS RUIZ HORN ocho días de arresto en Banderas por no haber dado cuenta de las investigaciones practicadas hasta las trece horas del día dos del mes en curso, no providenciar contra el Teniente Manso por su apatía manifiesta y por autorizar a dicho Oficial para que declararan los Guardias referidos sin autorización de su Jefe de Comandancia”.

Eta kitto? “Falta de celo e interés” hitz horiek manipulatu, esan deza-kegu interes handia jarri zutela gertaera oso larri bat gordetzeko. Interes handia, baina aitzakia oso ahul eta zentzugabeez inguratua.

Dena den, José Tristán Palacios koronelak neurri gogorragoak ezar-tzea proposatu zuen:

“... expulsión del Cuerpo del Comandante del Puesto, Guardia 1º SANTIAGO MARTIN RODRIGO, y de los segundos ANTONIO GUTIERREZ OTERO y ISAAC IZQUIERDO ZAPATERO, por habersele vulnerado la línea de servicio, encomendada a su vigilancia, y, no haber reaccionado, bien sea por descuido o por connivencia, cosa esta última no probada pero si existe la convicción moral en el paso... Al Teniente D. TOMAS SALVADOR MANSO, le propongo para “un mes de castillo” por habersele vulnerado igualmente su línea de servicio, y observar una actitud fuera de los Reglamentos del Cuerpo... me permito ratificar la propuesta hecha en mi citado escrito, referente a la “suspensión de mando de este oficial”... al volverse a colocar, debe serlo fuera de esta provincia, ... Al Capitán don LUIS RUIZ HORNS, igualmente me permito proponerle para “un mes de castillo”... bajo el concepto de “inexactitud en el cumplimiento de obligaciones reglamentarias” por haber sido vulnerado el distrito de su Compañía sin enterarse de nada y demostrar incapacidad y falta de condiciones de mando en su Unidad y pasar a Francia sin permiso de sus superiores,...

*permitiéndome igualmente proponer a V.E. su traslado a otra Unidad fuera de esta provincia...”.*

Ezarritako zigorra zein izan zen jakin nahiko duzuela pentsatzen dut. Baita nik ere! Eta ezin izan dut kuriositate hori ase, ez baitut aurkitu inolako agiririk, kontu hori nola amaitu zen azaltzen duenik.

Hainbat eleberrik eta ipuinek bukaera bat baino gehiago eskaintzen duten antzera, kontatutakoa ez eleberri eta ez ipuin izanik, hemen ere aukera dugu norberak idurikatzeko ea Behobiako muga inguruan gertatutakoaren inguruko arduragabekeriak ordaindu ziren ala ez, edota nola ordaindu ziren...

## **BIBLIOGRAFIA**

- GARCÍA, R. *Franquismo y Tercer Reich*, Centro de Estudios Constitucionales 1994
- GORDON, D. eta DANGERFUEKD, R. *The Hidden Weapon. The Story of Economic Warfare*, Harper-Brothers 1947
- IRUJO, J.M. *La lista negra. Los espías nazis en España*, Aula de Cultura Virtual 2003
- JIMENEZ DE ABERASTURI, J.C. *De la derrota a la esperanza: Políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea 1999
- MORENO, A. *La política informativa del Conde de Jordana frente a la propaganda germana en España*, Historia del presente 2007
- RODRIGUEZ, M. *Espías Vascos*, Txalaparta 2004
- SACKS, O. *El tío Tungsteno. Recuerdos de un químico precoz*, Anagrama 2003
- THOMÀS, J.M. *La batalla del Wolframio. Estados Unidos y España de Pearl Harbor a la guerra fría (1941-1947)*, Cátedra 2010
- CAMPO, R. Canfranc. *El oro y los nazis*, Mira editores 2012
- ROMÁN, P. *Los hermanos Delhuyar, la Bascongada y el wolframio*, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País 2000
- LABORDE, M. *Exposición y comentario técnico sobre la Memoria presentada por los hermanos Elhuyar, con motivo de su descubrimiento del metal Tungsteno o Wolframio*, Aranzadi